



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko uztailaren 17a

64. ZK.

A U R K I B I D E A

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena ([2. or.](#)).

Serie H:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 160. artikulua, hona erabakia:

1. 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**4/2008 Legegintzako Foru Dekretua,
ekainaren 2koa, Pertsona fisikoen
errentaren gaineko zergari buruzko
Foru Legearen testu bategina onesten
duena**

ZIOEN AZALPENA

I

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 27ko 18/2006 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian Nafarroako Gobernuari baimena eman zitzaion 2008ko urtarrilaren 1a baino lehen bat egin zitzan Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruz indarra duten legezko xedapenak, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari

buruzko abuztuaren 10eko 13/1983 Lege Organikoaren 21. artikuluan xedatutakoaren babesean. Gerora, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko urtarrilaren 24ko 2/2008 Foru Legeak, laugarren xedapen gehigarrian, baimen hori 2008ko ekainaren 30era arte luzatu zuen.

Gaur egun, zerga horri dagozkion xedapenak indarreko Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea eman zenetik onetsitako hainbat arau-testutan barreiatuta daude; baimen honen xedea, argi dagoenez, xedapen horiek testu bakar batean bilduz zerga-sistema argiago egitea da. Horrela, Zerga administrazioaren segurtasun juridikoa eta bereziki, zergadunena, handitzen lagunduko da.

Baimen hori baliatuz komenigarritzat jo da testu bategin hau egitea. Testu honetan bilduko dira gaur egun Nafarroan Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duten lege mailako arau iraunkor eta orokor guztiak.

II

Zerga orokor, pertsonal eta progresibo baten eredua 1978an ezarri zen gure zerga-sisteman, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arauak onesteari buruzko Nafarroako Foru Diputazioaren 1978ko abenduaren 28ko erabakiaren bitartez. Hori berriro arautu zen 1992az geroztik, maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen bidez. Eta azkenik, gerora, 1999az geroztik, orain indarrean dagoen abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen bitartez. Orduz geroztik, eta gaur arte, azken foru lege hori hainbat aldiz aldatu da, neurri handiagoan eta txikiagoan. Adierazi behar da zergaren erregulazioak –ezarri zenetik– jasan dituen aldaketa guztiek ez dutela inoiz ere orain arte indarrean egon den eta ildo nagusietan irmoa den sistema urratu, eta egoera ekonomiko eta sozial

berrietara nahiz gure inguruneko zerga-sistemen bilakaerara egokitzeko egin direla.

Adierazi den bezala, indarreko Pertsona fisiko-en errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeak, 1999ko urtarrilaren 1etik indarrean jarri zenetik, hainbat aldaketa izan ditu, eta horien artean ondoko arauak eragindakoak nabarmendu ahal dira; hona hemen, kronologikoki azalduta:

a) Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikolari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeak familiako kideen inguruabarrak zirela-eta legeetan zirauen bazterkeria desagerraraztea izan zuen helburu, eta horretarako aldaketak sartu zituen, besteak beste konpentsazio pentsioengatik edo gutxieneko familiarrarengatik zerga oinarria gutxitzeari buruz eta familia unitatearen kontzeptuari buruz.

b) Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrak, zergen arloko kudeaketa eta ikuskapen egintzak, zergen arloko arau-hauste eta zehapenak eta administrazio bidezko egintzen berrikuspena oro har arautzean, gai horiei buruzko artikulua ugari indargabetu zituen.

c) Zenbait zerga eta beste tributu-neurri batzuk hein batean aldatzen dituen abenduaren 29ko 20/2000 Foru Legeak, alderdi batzuk aldatu zituen; aldaketa garrantzitsuenak ziren, alde batetik, pentsio planei egiten zaizkien ekarpenen mugei dagozkienak, handitu egin baitziren, eta bestetik, zerga oinarriaren eta likidazio oinarriaren muga pertsonal eta familiarak sartu eta zabaltzea. Azken horiek era berean geroko aldaketek handitu zituzten. Enpresen arloan, nabarmentzekoak dira teknologia berriak erabiltzen hasteko zerga pizgarri bidezko laguntzak eta errepide bidezko garraiorako ibilgailu industrial edo komertzialen kutsadura gutxitzen laguntzeko neurriak.

d) Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 14ko 3/2002 Foru Legeak, beste alderdi batzuk jorratzeaz gain, batez besteko karga-tasaren beste definizio bat zehaztu zuen eta enpresa txikien eskura jarritako ibilgetu materialaren elementu berriak azkar amortizatzeke aukera eman zuen.

e) Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legeak aldaketa handiak egin zituen. Horren erakusgarri nabarmenenen ardatzak hauek dira: familiararen eta ezgaitasuna daukaten pertsonen zerga tratamendua hobetzea, aurrezki produktu ezberdinen tratamendu neutralaren arloko aurrerabidea, aurreikuspen eta aurrezki sistemetarako bide berriak garatzea eta laneko jardue-

ra eta familiako betebeharrak gero eta neurri handiagoan bateratzea. Horretarako, atzerrian eraturako errenta-esleipeneko araubideko entitateei definizio berria eman zitzaion eta horien erregulazioa eta kontrola argitu zen; halaber, Pentsio planen antzeko ezaugarriak dituzten Aseguratutako aurreikuspen planak sartu ziren. Zerga gardentasuna desagertu zen eta ondare sozietateak sortu ziren. Profesional eta artisten sozietateek Sozietateen gaineko zergako araubide orokorrean ordainduko zituzten zergak, eta balore sozietateek eta ondasunen edukitza soileko sozietateek, berriz, ondare sozietateen araubide bereziari jarraikiz. Bizi-aseguruaren kontratuen tratamendua erraztu zen eta, aldi berean, haien zerga-ordainketa hobetu zen. Ondare gehikuntzei dagokienez, erreserben ondoriozko kapitala banaketaren bitartez gutxitzea arautu zen eta dibidenduen banaketa arruntzat hartu zen. Espainiako eta Europar Batasuneko bigarren mailako balore-merkatuak ere parekatu ziren. Likidazio oinarri bereziko %15eko tasa ezarri zen. Ohiko etxebizitza erostea-gatik eta alokatzeagatik kenkariak nabarmen aldatu ziren. Alargun pentsioengatik kenkaria sartu zen eta amatasunagatik zenbait motatako laguntzak sortu ziren. Azkenik, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak autoliquidaziorako proposamenak egiteko ahalmena arautu zen, ondoren autoliquidazio bihurtu ahal izango direla.

f) Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 30eko 35/2003 Foru Legeak, oraindik indarrean duen zatian, enpresen lehiakortasuna hobetzea du helburu eta, horretarako, ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatzen ditu. Halaber, aurrezki kutxen partaidetza-kuotek izango duten zerga araubidearen estatuko araubidea moldatzen du.

g) Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 19/2004 Foru Legeak Foru Komunitateak erabilera partikularreko motordun ibilgailuak erosi edo egokitzeko elbarriei ematen dizkien prestazio ekonomikoak salbuetsi zituen; horretaz gain, Europar Batasuneko estatu batean aurrezkiaren etekinak interes gisa ordaintzen zaizkienean Batasuneko beste estatu batean zergapetu ahal izateari buruzkoa den Kontseilua-ren ekainaren 3ko 2003/48/EE Zuzentarauaren transposizioa egin zuen eta ezgaitasunak dituzten pertsonen ondare babestuari egindako ekarpenen zerga araubidea arautu zuen.

h) Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 19/2005 Foru Legeak arrisku-kapitaleko entitateak enpresak sustatzeko sozietateekin parekatu zituen; horrela, arrisku-kapitaleko entitateak enpresen inbertsioa

bideratzeko bitarteko gisa agerrarazi zituen eta subjektu pasiboari arrisku-kapitaleko entitateetan egindako diruzko ekarpenen %20 kuota osotik kentzen utzi zien. Enpresen jarduerari dagokionez, ingurumena zaindu eta hobetzeko jarduerengatiko kenkariaren arauak aldatu ziren eta enpresen lehiakortasuna handitzen saiatu zen, berrikuntza sustatuz eta ehungintzako eta zapatagintzako erakusgaiak sortzera hedatuz. Beste xedapen gehigarri batek, hogeita batgarrenak, egoitza Europar Batasuneko kide den beste estatu batean duten pentsio funtsen zerga arloko betebeharrak ezarri zituen, eta xedapen iragankor batek, hamahirugarrenak, landalur birkalifikatuen ondare gehikuntzak aipatu zituen; horrenbestez, hirigintzako plangintza betetzean egindako administrazio jardueraren ondorioz sortzen den gainbalioa Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ordainduko da, horretarako ezarritako murriztapen koefizienteak aplikatu gabe.

i) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duen abenduaren 11ko 13/2006 Foru Legeak aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen, eta horietan ondokoak nabarmendu behar dira: aurrekontu nahikoa dagoela bermatzeko eta zergadunek barruko eskaria bideratzeko baliabide ekonomiko gehiago eskura izan ditzatela helburu izanik, zergaren tarifa gutxitzea –handiagoa tarte txikietan handienetan baino– eta gutxieneko pertsonal zein familiarrak handitzea; bide batez, beren egoera dela-eta tratamendu espezifiko behar duten giza talde batzuen zerga egoera hobetzea (ezgaitasunak dituztenena, beren buruaz baliatzen ez direnena, hirugarren adinekoena, etab.), eta lanagatiko kenkaria ezartzea; azkenik, alargun pentsioengatiko kenkarian prestazio publiko horietarako erreferentzia lanbide arteko gutxieneko soldata izan dadila ezartzea.

j) Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 27ko 18/2006 Foru Legeak neurri zabal eta garrantzitsuak ezarri zituen:

1. Aurrezkiari buruzko zerga-ordainketari dagokionez, berdintasun eta hazkunde arrazoengatik, eta gure ingurunean araudi aldetik egiten ari diren aldaketengatik, tratamendu neutrala eman zitzaien aurrezkiaren ondoriozko errentei, eta hori gauzatzeko dauden tresnen artean zeuden diferentzia zentzugabeak desagerrarazi ziren. Horrela, zergadunek erabaki ekonomikoak kontzeptu ekonomikoen arabera (errentagarritasuna, likidezia eta arriskua) hartuko dituzte, zerga tratamenduaren mende egon gabe. Dibidenduengatiko zerga-ordainketan, zerga oinarrian jasotzen diren dibi-

dendu guztiak sartzen dira, zuzenketarik gabe, jasotzen diren lehenengo 1.500 euroetarako salbuespenarekin. Higiezinaren kapitalaren etekin osoetan, kutxa irizpidearen sistemaren orde, galdagarritasun irizpidea ezarri zen. Hobetu egin zen biziarteko eta aldi baterako errenten zerga-ordainketa, murriztu egin baitziren higigarrien kapitalaren etekintzat hartzen ziren portzentajeak, betiere hartzailearen adinaren arabera (biziarteko errenten kasuan) edo errentaren iraupenaren arabera (aldi baterako errenten kasuan).

2. Enpresen arloan iruzurrari aurrea hartzeko eta horren aurka egiteko zenbait neurri ere arautu ziren, eta kautelazko edo "iruzur aurkako" arauak txertatu ziren. Modu horretan, diru-sarreraren bolumenaren tamaina zenbatzeko, kontuan hartuko dira, subjektu pasiboak eginiko eragiketak ez ezik, ezkontideak, ondorengo ahaideek eta aurreko ahaideek egindakoei, eta orobat, aurreko horietako edozein partaide den errenta-esleipeneko araubideko entitateek egindakoei dagozkienak ere, baldin eta antzeko jarduerak badira eta zuzendaritza eta bitartekoak partekatzen badira.

3. Ondare gehikuntza eta murrizketen idatzatzen, berariazko arauak eman ziren, inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzen ondoriozko ondare aldaketetan izaten diren ondare gehikuntzak eta murrizketak zenbatzeko. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako elementuen ondoriozko ondare gehikuntzen erregulazioan, gaur egun eraentzen duten koefizienteak 2006ko abenduaren 31 baino lehen sortutako ondare gehikuntzari soilik aplikatuko zaizkio.

4. Aldaketa garrantzitsu hau eragin zen: zerga oinarriaren zati orokorra bazterketa bidez edo modu negatiboan definitzen da: etekinek eta aurrezkiaren zati berezian sartzen ez diren ondare gehikuntzek eta murrizketek osatuko dute. Zati berezi hori hauek osatuko dute, salbuespenak salbuespen: higiezinaren kapitalaren etekinak, eta ondare elementuen eskualdaketak egitean agerian geratzen diren ondare gehikuntzak eta murrizketak. Horrela egindako aldaketaren ondorioz, produktu horiek zerga karga homogenea daukate. Horretarako, esan den bezala, aurrezkitik datozen errenta guztiak, salbuespenak salbuespen, aurrezkiaren zati berezian sartzen dira, horietarako guzti-etarako tasa finkoa dagoela.

5. Zerga oinarriaren murriztapenetan aldaketa garrantzitsuak egin ziren, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egiten zaizkien ekarpen eta kontribuzioei dagokienez, eta langileek eta banakako profesional edo enpresaburuen ezkontideek eta lehen mailako ahaide odolkideek ere gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan ekarpenak egin ahal zituz-

tela zehaztu zen. Aukera berri bat sartu zen, hau da, menpekotasun larria edo menpekotasun handia baizik estaltzen ez duten aseguru pribatuei ordaindutako primen zenbatekoan zerga oinarria murrizteko aukera, eta enpresek hartutako pentsio-konpromisoak bideratzeko aseguru kontratu kolektiboetarako ekarpenen barruan enpresaren gizarte aurreikuspeneko planak sartu ziren. Murriztapenen gehieneko mugak handitu ziren eta ezkontidearen gizarte aurreikuspeneko sistematako ekarpenen zenbatekoak ere bai.

6. Kuotaren kenketei dagokionez, handitu egin zen elbarrien ohiko etxebizitzan egiten den inbertsioagatikoen kenkaria.

7. Azkenik, atxikipen eta konturako sarreren arloan, lanaren etekinei aplikatu beharreko atxikipenen taula berri bat diseinatu zen.

k) Eta azkenik, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko urtarrilaren 24ko 2/2008 Foru Legeak aldaketak sartu zituen, eta beken salbuespena berrantolatu eta argitu zuen. Salbuetsi egin ziren, orobat, Foru Komunitateko Administrazioak gizarte integratzeko etxebizitzaren esleipen-hartzaileei edo erosleei ematen dizkien diru-laguntzak; erakunde publikoek genero-indarkeriaren biktimei ematen dizkieten prestazio ekonomikoak; eta ekonomia sozialeko enpresetako bazkideen ordezkapena sustatzeko ematen diren prestazio ekonomiko publikoak. Etxebizitzaren alokairua laguntzeari dagokionez, etxebizitzaren errentatzaileek etekin garbi positiboa %55 murrizteko aukera ezarri zen, eta etxebizitzaren errentariarentzat, alokairuagatikoen kenkariaren gehieneko muga urtean 900 eurora arte handitu zuen. Ondasun higigarrien kapitalaren etekinei dagokionez, ondasun higigarrien kapitalaren etekinak sorraraz ditzaketen ondasun higigarriak edo eskubideak erabili edo gozatzeko eskubide edo ahalmenak eratzearen edo lagatzearen ondoriozkoak aurrezkiaren oinarri berezian sartu ziren. Ondasun higigarrien kapitalaren etekin garbia finkatzeko, 65 euroko gehieneko kenkaria desagerrarazi zen eta diru-sarrera osoetatik %3ko muga utzi zen. Ondare gehikuntza eta murrizketen atalean, enpresa edo lanbide ondare guztiaren "inter vivos" irabazizko eskualdaketak erraztu ziren. Izan ere, Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33.1.b) artikuluan araututako kenkaria aplikatzen zaien entitateetako partaidetzak "inter vivos" irabaziz eskualdatzen direnean hori ere ez da ondare gehikuntza eta murrizketatzat hartuko; gainera, beste baldintza hau sartu zen: emailak hirurogei urte edo gehiago izatea edo erabateko baliaezintasuna edo baliaezintasun handia izatea. Zalantza batzuk argitzeko, zera eza-

rri zen: aurrezkiaren zati berezian sartu ziren ohiko etxebizitza eskuratzeagatik edo ohiko etxebizitza zaharberritzeagatik kapital moduan eskuratutako diru-laguntzek eragindako ondare gehikuntzak. Zergaren tarifari dagokionez, hura deflaktatu zen, zerga-ordainketa inflazioaren eraginek saihesteko. Ohiko bizilekuan egiten den inbertsioagatikoen kenkariari dagokionez, handitutako %30eko portzentajea aplikatzeko eremua handitu zen, familia ugaria izatea nahikoa baita. Kontabilitate eta merkataritza arloko legedi berrian eskubide kontsolidatuak eta gizarte aurreikuspeneko sistema jakin batzuen eskubide ekonomikoak mugitzeko aukera dago. Sistema horiek pentsio planak, gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, aseguraturako aurreikuspen planak, enpresaren gizarte aurreikuspeneko planak eta menpekotasuna estaltzen duten aseguruak –baita ezgaitasunak dituzten pertsonentzat eraturako aseguruak ere– dira, adibidez. Hori dela-eta, arautu egin ziren eskubide ekonomikoak gizarte aurreikuspeneko sistema batetik bestera mugitzearen ondorio ekonomikoak, eta kontuan harturik estatuak erabateko eskumena duela arlo horien merkataritza eta kontabilitate arauak onesteko, beharrezkoa izan zen estatuko arauetara jotzea, eskubide ekonomiko horiek mugitzearen zerga ondorioei dagokionez. Zerga konpentsazioa ezarri zen bizi-aseguru baten edo baliaezintasun-aseguru baten kontratuaren indarrez kapital geroratu bat jasotzen duten zergadunentzat, kontratuak ondasun higigarrien kapitalaren etekinak sortuz gero eta aseguruak 2006ko abenduaren 31 baino lehen kontratatuz gero. Zerga konpentsazio hori ordainduko da, baldin eta 2007ko zergalditik aurrerako zerga araubidea 2006ko abenduaren 31 baino lehen zuena baino kaltegarriagoa bada zergadun horrentzat. Azken finean, 2007tik aurrera etekinaren %40 edo %75 murrizterik izango ez duten zergadunei zerga konpentsazio bat eman nahi zitzaion. Murrizketa hori egiten zitzaion primak, hurrenez hurren, gutxienez bi urte lehenagotik edo gutxienez bost urte lehenagotik ordainduak zituen bizi-aseguru edo baliaezintasun-aseguru bat zutenei.

III

Legegintzako foru dekretu honen bidez onetsitako testuan, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea zenbait arauarekin bateratu da. Arau horietako bat bere artikuluetan txertatu da, berriaz ezarrita, eta beste batzuk artikuluetan edo xedapen gehigarri gisa sartu dira. Honela banatzean kontuan hartu da beren indarraldia, eta xedapen bakoitzaren edukia zergaren oinarriko araudian inte-

gratzeko aukera dagoen eta hedadura espezifiko daukan ala ez.

Horrenbestez, testuaren artikuluetan Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen artikulua ondoko xedapenekin bateratu dira batzuetan; bestetan, berriz, lege horren artikulua berariaz hartuko dira kontuan:

a) Hitzarmen Ekonomikoaren Negoziazio Batzordearen 2003ko urtarrilaren 23ko erabakia. Uztailaren 15eko 25/2003 Legeak onetsitako erabaki horrek Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa aldatu zuen, Foru Komunitatearen jatorrizko atxikipen eta konturako sarrerei dagokienez. Izan ere horiek, beste gai batzuk ez bezala, ez ziren ezarri Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen artikuluetan. 81. artikuluan gai horri buruzko Hitzarmena berariaz aipatu da.

b) Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 14ko 3/2002 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria, sasoikako langileei eta haien ahaideei aterpea emateko higiezinak erosi edo egokitzeko inbertsioengatik zerga pizgarri jakin bati buruzkoa. Hori 62. artikuluan 9. idatz-zatian agertzen da.

c) Zerga neurriei buruzko abenduaren 30eko 19/1999 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorra, hartzaileak inbertsioaren arriskua hartzen duen bizi-aseguruen kontratu jakin batzuen zerga-ordainketari buruzkoa. Hori hogeita batgarren xedapen gehigarrian agertzen da.

d) Zenbait zerga eta beste tributu-neurri batzuk hein batean aldatzen dituen abenduaren 29ko 20/2000 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarria, etekin batzuk atxikipenen edo konturako sarreren mendean ez daudela azaltzen duena. Hori hemeretzigarren xedapen gehigarrian agertzen da.

IV

Bestalde, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen xedapen gehigarriak eta arau batzuen edukia testu bateginaren artikuluei gehitu zaizkie, baita xedapen gehigarri gisa batu ere. Hona hemen arau horiek:

a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen xedapen indargabetzailearen 2. idatz-zatiaren c) letra, Sozietateen gaineko zergari buruzko

abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarri indarraldi iraunarazten diona. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarrian sartzan ez diren laguntza jakin batzuei buruzko azken xedapen horren edukia testu bateginaren zortzigarren xedapen gehigarri agertzen da.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen xedapen indargabetzailearen 2. idatz-zatiaren e) letra, Zenbait zerga aldatzeko abenduaren 29ko 14/1995 Foru Legearen 4. artikuluan indarraldia iraunarazten duena. Errenta berrikusteko eskubiderik ez duten etxebizitzaren errentatzaileen Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota gutxitzeari buruzko artikulua horren edukia testu bateginaren 62. artikuluan 8. idatz-zatian agertzen da.

c) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarria, Espainiako lurraldean ez egoiliarak direnei eta nazioarteko organismoei buruzko xedapenen, inbertsio koefiziente, norberaren baliabide eta finantza-bitartekarien informazio betebeharrei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritako zerga araubidearen eta balioen mailegu batzuen zerga araubidearen arloan estatu osoan dagoen araudia –arau berezirik egon ezean– Nafarroan aplikatzeari buruzkoa, indarrean jarraitzen duen bitartean, eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek dagokien guztian. Horretarako, hamabigarren xedapen gehigarrian zazpigarren xedapen gehigarri hori Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aplikatzeari buruzko aipamena agertzen da.

d) Zerga neurriei buruzko abenduaren 30eko 19/1999 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarria, judizialki ezgaituta dauden pertsonen elbarritasun mailari buruzkoa –zergen ondoretarako–. Hori bosgarren xedapen gehigarrian agertzen da, haren aipamena eginez.

e) Zerga neurriei buruzko abenduaren 30eko 19/1999 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarria, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 1996ko abuztuaren 7an Biescasko uholdeek sortutako kalte pertsonalak konpontzeko laguntza publikoak zerga honetatik salbuesteari buruzkoa; Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen 10. artikulua, 2004ko Done Jakueren Urte Santua egitearekin zerikusia duten eragiketetan ezarri ahal diren estatuko legediko zerga onurei buruzkoa, eta Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren

30eko 35/2003 Foru Legearen hamabigarren xedapen gehigarria, 2005ean Almerian egindako Mediterraneoko XV. Jokoei aplikatu ahal zaizkien zerga onurei buruzkoa. Horiek zazpigarren xedapen gehigarrian agertzen dira, beren aipamena eginez.

f) Uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuak onetsitako Nafarroako nekazaritza ustategien erregistroari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 23. artikulua eta lehenengo xedapen gehigarria, nekazari gazteentzako zerga onura berezi batzuei buruzkoak. Horiek bederatzigarren xedapen gehigarrian agertzen dira, beren aipamena eginez.

g) Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria, Jarduera ekonomikoen zergarengatik ordainduriko udal kuotak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik kentzeari buruzkoa. Hori 66. artikulua f) letran agertzen da.

V

Azkenik, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen xedapen iragankorrek eta arau batzuen edukia testu bateginaren xedapen gehigarri gisa gehitu dira. Hona hemen arau horiek:

a) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hogeita zazpigarren xedapen iragankorra, ondare sozietateak desegin eta likidatzearen zerga ondorioei buruzkoa. Hori hamaikagarren xedapen iragankorrean agertzen da, bere aipamena eginez.

b) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hamabigarren xedapen iragankorra, autobideen emakidadun sozietateek 1979ko urtarrilaren 1ean zerga horren barruan finantzaketa eta birfinantzaketa eragiketarako beren legedi espezifikokoaren eta 1978ko abenduaren 28eko Foru Diputazioaren erabakiaren hirugarren xedapen iragankorraren 2. idatz-zatian nahiz hori garatzeko arauetan ezarrita dagoenaren arabera aintzatetsita dituzten onurak iraunarazteari buruzkoa. Hori hamabigarren xedapen iragankorrean agertzen da, bere aipamena eginez.

VI

Komeni da adieraztea sistematikotasunezko eta araudiaren koherentziazko arrazoiengatik testu bateginean ez direla sartu zerga arloko garrantzia izanik ikuspegi subjektibo edo objektibotik edo

denborazko ikuspegitik eduki berezia izateagatik izaera eta norainoko orokorra duen araudiarekin bateratzeko egokiak ez diren arauak. Horrelako arauak testu honetan bateratuz gero, beraietan bildutako araudia barreiatu egingo litzateke, hainbat arlori eta hainbat zergari eragiten dietelako. Hona hemen araudi horiek: Kooperatiben zerga araubideari buruzko ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea, eta Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea. Hain zuzen ere, horien guztien indarraldia Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen xedapen indargabetzaileak aitortu zuten, bakoitza bere mugen barruan.

VII

Aldaketa horien ondorioz, alde batetik artikuluen eta xedapen gehigarri nahiz iragankorren zenbakiak moldatu behar izan dira, eta testu bateginaren barne-aipamenak doitu behar izan dira; beste alde batetik, bertan aipatutako arauen identifikazio eta izenak eguneratu behar izan dira.

VIII

Legegintzako foru dekretu honek artikulua bat, bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu.

Bere artikulua bakarraren arabera, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onetsi da.

Lehenengo xedapen gehigarriaren 1. idatz-zatian, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarriaren edukia agertzen da. Xedapen hori, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea eta 1988ko ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen VII. tituluaren VI. kapituluak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeari buruz egiten dituzten araudi arloko aipamenei buruzkoa da. Halaber, lehenengo xedapen gehigarri horren 2. idatz-zatian, legegintzako foru dekretu honen bidez onetsi den Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legea testu bategina denez, testu bategin horren aipamen orokorra egiten da, edozein xedapenetan Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeari buruz egiten diren arau-aipamenengatik.

Xedapen indargabetzaile bakarrean, testu bateginean bateratzen diren arau edo aginduak ager-

tzen dira, horiek indargabetzeko helburuz; gainera, aurreko VI. idatz.-zatian zerrendatutako zerga arloko arauen indarraldia aitortzen da, ikuspegi subjektibo edo objektibotik edo denborazko ikuspegitik eduki berezia izateagatik izaera eta norainoko orokorra duen araudiarekin bateratzeko egokiak ez diren arauena, alegia.

Azkenik, azken xedapen bakarrean ezartzen denez, legegintzako foru dekretu honek eta onetsi den testu bateginak :bon.ean argitaratu eta bihar-munetik aurrera hartuko dute indarra.

Onetsi den testu bategina 88 artikuluk osatuko dute, honela banatuta: 8 titulu, 27 xedapen gehigarri eta 12 xedapen iragankor.

Halaber, testu bateginak hasieran edukia aurkibidea du. Horren helburua dagokienek arau errazago erabil dezatela da, aginduak berehala aurkitu eta sistematikoki kokatu ahal izateko.

IX

Legegintzako foru dekretu hau Nafarroako Kontseilura bidali zen, aginduzko irizpena eman zezan, Nafarroako Gobernuak 2008ko apirilaren 7an hartutako Erabakia betetzeko.

Irizpen hura 2008ko apirilaren 22an eman zen eta haren arabera arauaren edukia bat dator indarra duten legeekin.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Artikulu bakarra.

1. Onesten da Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, legegintzako foru dekretu honen eranskinean ageri dena.

2. Legegintzako foru dekretu hau Nafarroako Parlamentuari jakinarazi beharko zaio, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 53.4 artikuluan ezarritako ondoretarako.

Lehen xedapen gehigarria. Arau-aipamenak.

1. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeak eta 1988ko ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen VII. titulua-ren VI. kapituluak Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeari buruz egiten dituzten aipamenak legegintzako foru dekretu honetan onetsi den testu

bateginari dagozkion aginduei buruz egin direla ulertuko da.

2. Edozein xedapenetan Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeari buruz egiten diren aipamenak legegintzako foru dekretu honen bidez onetsi den testu bateginari dagozkion aginduei buruz egin direla ulertuko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

1. Legegintzako foru dekretu honek indarra hartzen duenean, onetsi den testu bateginean sartzeagatik indarrrik gabe geratuko dira arau hauek:

a) 22/1998 Foru Legea, abenduaren 30ekoa, Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzkoa.

b) Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 14ko 3/2002 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria, sasoiakako langileei eta haien ahaideei aterpea emateko higiezinak erosi edo egokitzeko inbertsioengatik zerga pizgarri jakin bati buruzkoa.

c) Zerga neurriei buruzko abenduaren 30eko 19/1999 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorra, hartzaileak inbertsioaren arriskua hartzen duen bizi-aseguruen kontratu jakin batzuen zerga-ordainketari buruzkoa.

d) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen aipamena, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 19/2004 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarrian egindakoa, bere edukia gerora foru lege hartan sartu zelako.

e) Zenbait zerga eta beste tributu-neurri batzuk hein batean aldatzen dituen abenduaren 29ko 20/2000 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarria, etekin batzuk atxikipenen edo konturako sarreren mendean ez daudela azaltzen duena.

2. Aurreko idatz-zatian hori ezarri bada ere, indarra izaten segituko dute hauek:

a) 9/1994 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Kooperatiben zerga araubideari buruzkoa.

b) 10/1996 Foru Legea, uztailaren 2koa, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duena.

3. Halaber, indarrrik gabe geratu dira legegintzako foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra dauden maila bereko edo beheagoko beste xedapen guztiak.

4. Aurreko 1. idatz-zatian aipatutako xedapenak indargabetzeak ez du esan nahi indarra izan zuten aldian sortutako betebeharrei buruz Nafarroako Ogasun Publikoak eskubiderik ez duenik.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek eta berak onetsi duen testu bateginak :bon.ean argitaratu eta biharamunean hartuko dute indarra.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: Miguel Sanz Sesma.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Alvaro Miranda Simavilla.

ERANSKINA

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

AURKIBIDEA

I. TITULUA. Zergaren araubide juridikoa, izaera, xedea eta aplikazio eremua

1. artikulua. Araubide juridikoa.
2. artikulua. Izaera.
3. artikulua. Xedea.
4. artikulua. Aplikazio eremua.

II. TITULUA. Zergagaiaren esparru materiala eta pertsonala.

I. KAPITULUA. Esparru materiala

5. artikulua. Zergagaia.
6. artikulua. Zergari lotuta ez dauden errentak.
7. artikulua. Errenta salbuetsiak.
8. artikulua. Errenten estimazioa.
9. artikulua. Eragiketa lotetsiak.

II. KAPITULUA. Esparru pertsonala

10. artikulua. Subjektu pasiboak.
11. artikulua. Errenta-esleipena.

III. TITULUA. Errentaren zehaztapena

I. KAPITULUA. Zerga oinarria

12. artikulua. Zerga oinarria. Arau orokorra.

II. KAPITULUA. Zergapeko errentaren definizioa

1. atala. Lanaren etekinak
 13. artikulua. Lanaren etekin osoak.
 14. artikulua. Kontraprestazioak edo onurak.

15. artikulua. Diruzkoak ez diren ordainsariak edo gauzazkoak.

16. artikulua. Lanaren ordainsarien balorazioa, diruzkoak ez direnena zein gauzazkoena.

17. artikulua. Lanaren etekin garbia.

18. artikulua. Gastu kengarriak.

19. artikulua. Lanaren etekinen indibidualizazioa.

2. atala. Kapitalaren etekinak

1. azpiatala. Arau orokorrak

20. artikulua. Kapitalaren etekin osoak.
21. artikulua. Diruzkoak ez diren ordainsarien balorazioa edo gauzazkoena.
22. artikulua. Kapitalaren etekin garbia.
23. artikulua. Kapitalaren etekinen indibidualizazioa.

2. azpiatala. Higiezinaren kapitalaren etekinak

24. artikulua. Higiezinaren kapitalaren etekin osoak.
25. artikulua. Higiezinaren kapitalaren etekin garbia.
26. artikulua. Ahaidetasuna dagoenean izandako etekina.

3. azpiatala. Higigarrien kapitalaren etekinak

27. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekin osoak.
28. artikulua. Edozein motatako entitateen funts berekietan parte hartzeagatik lortutako etekinak.
29. artikulua. Norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako etekinak.
30. artikulua. Bestelako ondasun higigarrietatik edo eskubideetatik datozen etekinak.
31. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekintzat jotzen ez diren kasuak.
32. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekin garbia.

3. atala. Enpresa edo lanbide jardueren etekinak

33. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueren etekin osoak.
34. artikulua. Etekin garbia.
35. artikulua. Etekin garbia zuzeneko estimazioan zehazteko arauak.
36. artikulua. Etekin garbia estimazio objektiboan zehazteko arauak.

37. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueri lotutako ondare elementuak.
38. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueren etekinen indibidualizazioa.
4. atala. Ondare gehikuntzak eta murrizketak
39. artikulua. Kontzeptua.
40. artikulua. Gehikuntza edo murrizketen zenbatekoa. Irizpide orokorra.
41. artikulua. Erosketa eta eskualdaketa balioak.
42. artikulua. Irabazizko erosketa edo eskualdaketa.
43. artikulua. Berariazko arauak.
44. artikulua. Justifikatuko gabeko gehikuntzak.
45. artikulua. Berrinbertsioagatikoko salbuespena.
46. artikulua. Ondare gehikuntza eta murrizketen indibidualizazioa.
5. atala. Errenta-esleipena, nazioarteko zerga gardentasuna eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeak
1. azpiatala. Errenta-esleipena
47. artikulua. Errenta-esleipeneko araubideko entitateak.
48. artikulua. Esleitutako errentaren kalifikazioa.
49. artikulua. Errenta esleigarriaren kalkulua.
50. artikulua. Konturako ordainketak.
2. azpiatala. Nazioarteko zerga gardentasuna
51. artikulua. Nazioarteko zerga gardentasuneko araubideko errenta-egozpena.
3. azpiatala. Inbertsio kolektiboko erakundeak
52. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideen zerga-ordainketa.
- III. KAPITULUA. Errenten integrazioa eta konpentsazioa.
53. artikulua. Zati orokorra.
54. artikulua. Aurrezkiaren zati berezia.
- IV. KAPITULUA. Likidazio oinarria
55. artikulua. Likidazio oinarri orokorra.
56. artikulua. Likidazio oinarri negatiboaren zati orokorraren konpentsazioa.
57. artikulua. Aurrezkiaren likidazio oinarri berezia.
- IV. TITULUA. Zerga kuota
- I. KAPITULUA. Kuota osoa
58. artikulua. Kuota osoa.
59. artikulua. Likidazio oinarri orokorraren karga.
60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio oinarri bereziaren karga.
- II. KAPITULUA. Kuota likidoa
61. artikulua. Kuota likidoa.
62. artikulua. Kuota-kenkariak.
63. artikulua. Frogagiriak.
64. artikulua. Kenkari zehatz batzuen muga.
65. artikulua. Ondare egoera frogatzea.
- III. KAPITULUA. Kuota diferentziala
66. artikulua. Kuota diferentziala.
67. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitzarengatikoko kenkaria.
68. artikulua. Alargun pentsioengatikoko kenkaria.
- V. TITULUA. Zerga-zorra
69. artikulua. Subjektu pasiboaren ondare erantzukizuna.
- VI. TITULUA. Baterako zerga-ordainketa
70. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren aukera.
71. artikulua. Familia unitatearen kontzeptua.
72. artikulua. Aukera gauzatzea.
73. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren elementuak.
74. artikulua. Kontu-sail negatiboaren konpentsazioa.
75. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren arau bereziak.
- VII. TITULUA. Zergaldia eta zergaren sorrarazpena
76. artikulua. Zergaldia eta zergaren sorrarazpena.
77. artikulua. Urte naturala baino laburragoa den zergaldia.
78. artikulua. Diru-sarrera eta gastuen denbora-egozpena.
79. artikulua. Familia egoeraren zehaztapena.
- VIII. TITULUA. Zergaren kudeaketa
- I. KAPITULUA. Atxikipenak eta konturako beste ordainketa batzuk

80. artikulua. Konturako ordainketak egitera behartuak.

81. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion atxikipen eta konturako sarrerak, lanaren etekinei, enpresa eta lanbide jardueri, higigarrien kapitalari, ondare gehikuntza jakin batzuei eta konturako beste ordainketa batzuei buruzkoak.

III. KAPITULUA. Prozeduraren hasiera

82. artikulua. Aitorpena egiteko betebeharrak.

83. artikulua. Autolikidazioa.

84. artikulua. Autolikidaziorako proposamena.

III. KAPITULUA. Likidazioa

85. artikulua. Ofiziozko itzulketa.

IV. KAPITULUA. Betebehar formalak

86. artikulua. Subjektu pasiboen betebehar formalak.

87. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebehar formalak.

88. artikulua. Errenta-esleipeneko araubidean dauden entitateek informazioa emateko betebeharrak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria. Gauzazko ordainsariak.

Bigarren xedapen gehigarria. Bikote egonkorak eta ezkontideak parekatzea.

Hirugarren xedapen gehigarria. Zerga arloko informazioa ematea.

Laugarren xedapen gehigarria. Informazio betebeharrak.

Bosgarren xedapen gehigarria. Judizialki ezgaituta dauden elbarriei aplikatu ahal zaien araubidea.

Seigarren xedapen gehigarria. "1999 Done Jakueren urtea" eta "Compostelako Donejakue - Europako Kulturaren Hiriburua 2000. urtean" ekimenei aplikatu ahal zaizkien zerga onurak.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Hondamenekin eta kultur edo kirol arloko aparteko gertakari jakin batzuekin zerikusia duten zerga onurak.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Zerga oinarrian sartzen ez diren laguntzak.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Nekazari gazteentzako zerga onura bereziak.

Hamargarren xedapen gehigarria. Paradisu fiskal gisa sailkatutako herrialdeak edo lurraldeak.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Ceutan eta Melillan eskuratutako errentak.

Hamabigarren xedapen gehigarria. Estatuko araudiaren aplikazioa.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. Elbarritasuna duten pertsonen alde egindako gizarte aurreikuspeneko sistemetarako ekarpenen eta prestazioen zerga araubidea.

Hamalagarren xedapen gehigarria. Ezgaitasunak dituzten pertsonen ondare babestuari egindako ekarpenen zerga araubidea.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitatearen ekarpen eta prestazioen zerga araubidea.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. Aurrezki kutxen partaidetza-kuotak.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Zerbitzuak aske emateko araubideari loturik diharduten aseguru entitateek izendaturiko ordezkariaren zerga betebeharrak, bai eta araubide horri loturik diharduten inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten entitateek izendaturiko ordezkariaren zerga betebeharrak ere.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Egoitza Europar Batasuneko kide den beste estatu batean duten pentsio funtsen zerga arloko betebeharrak.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Konturako atxikipenak edo sarrerak jaulkipen primaren banaketan edo ekarpenen itzulketarekin egindako kapital murriztapenetan.

Hogeigarren xedapen gehigarria. Zerga konpentsazioak, banakako bizi-aseguruetatik edo baliaezintasun-aseguruetatik sortutako etekin batzuen kasuan.

Hogeita batgarren xedapen gehigarria. Hartzai-leak inbertsioaren arriskua hartzen duen bizi-aseguruaren kontratu jakin batzuen zerga ordainketa.

Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Zenbait bizi-aseguru aurrezki sistematikoko banakako plan bihurtzearen zerga ondorioak.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Gizarte aurreikuspeneko sistemen arteko eskubide ekonomikoen mobilizazioa.

Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Kapital murriztapenaren ostean negoziatziora onartu ez diren partaidetzak edo balioak eskualdatzea.

Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. Ondare pertsonala osatzen duten ondasunez baliatzea

zahartzaroak eta menpekotasunak eragindako premia ekonomikoei aurre egiteko.

Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Lanaren etekinen gaineko atxikipen portzentajeak.

Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Atxikipenak eta konturako sarrerak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra. Paradisu fiskal gisa sailkaturiko herrialde edo lurraldeetan eratutako inbertsio kolektiboko erakundeen zerga balioa.

Bigarren xedapen iragankorra. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateei aplikatu ahal zaien araubide iragankorra.

Hirugarren xedapen iragankorra. Konpentsatu zain dauden kontu-sailak.

Laugarren xedapen iragankorra. Pertsona fisiko-en errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea indarrean jarri aurretik ondare gehikuntzak edo murrizketak eragiten dituzten bizi-aseguruaren kontratuen araubide iragankorra.

Bosgarren xedapen iragankorra. Biziarteko eta aldi baterako errentei aplikatu ahal zaien araubide iragankorra.

Seigarren xedapen iragankorra. Landalur birkalifikatuen ondare gehikuntzak.

Zazpigarren xedapen iragankorra. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako elementuen ondoriozko ondare gehikuntzak.

Zortzigarren xedapen iragankorra. Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatiko kenkaria.

Bederatzigarren xedapen iragankorra. Kalera-tzeagatiko kalte-ordaina.

Hamargarren xedapen iragankorra. Zor publikoko balio batzuen zerga-ordainketa.

Hamaikagarren xedapen iragankorra Sozietate gardenak eta ondare sozietateak. Horiek desegin eta likidatzea.

Hamabigarren xedapen iragankorra. Zenbait finantza-eragiketen mozkinen buruzko araubide iragankorra.

I. TITULUA**Zergaren araubide juridikoa, izaera, xedea eta aplikazio eremua****1. artikulua.** Araubide juridikoa.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga Foru Komunitateak eskatuko du Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 45. artikulua aipatzen duen Hitzarmen Ekonomikoaren arauen, foru lege honetan xedatuta dagoenaren, lege hori garatzeko ematen diren arauzko arauen eta aplikatze-koak diren gainerako xedapenen arabera.

2. artikulua. Izaera.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga zuzeneko zerga da, izaera pertsonal eta subjektiboa du, eta pertsona fisikoen errenta kargatzen du foru lege honetan ezarrita dagoenaren arabera.

3. artikulua. Xedea.

Zerga honen xedea foru lege honetan ezarrita dagoenaren arabera zehaztutako pertsona fisikoen errenta da, errenta hori edozein lekutan sortu dela ere eta ordaintzailearen bizilekua edozein dela ere.

4. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru lege honetan arautzen den zerga Hitzarmen Ekonomikoaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera ohiko bizilekua Nafarroan duten subjektu pasiboak aplikatuko zaie.

Familia unitateko subjektu pasibo guztiek ohiko bizilekua Nafarroako lurraldean ez izanik baterako zerga-ordainketa aukeratzen badute, zerga hau aplikatuko zaie baldin eta likidazio oinarri handiena duen unitateko kideak ohiko bizilekua lurralde horretan badu.

II. TITULUA**Zergagaiaren esparru materiala eta pertsonala.****I. KAPITULUA****Esparru materiala****5. artikulua.** Zergaia.

1. Subjektu pasiboak errenta lortzea da zergaia.

Errenta erdietsizat emango da haren jatorri edo iturburuaren arabera, kasuan kasu, senar-emazteen araubide ekonomikoa edozein izanik ere.

2. Subjektu pasiboaren errenta honela dago osaturik:

- a) Lanaren etekinak.
- b) Kapitalaren etekinak.
- c) Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.
- d) Ondare gehikuntza eta murrizketak.
- e) Errenta-esleipen eta egozpenak.

6. artikulua. Zergari lotuta ez dauden errentak.

Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari lotuta dagoen errenta ez zaio zerga honi lotuko.

7. artikulua. Errenta salbuetsiak.

Errenta hauek salbuetsirik egongo dira:

a) Gizarte Segurantzak, edo horren ordeko entitateek, erabateko ezintasun iraunkorra edo baliaezintasun handia dela-eta subjektu pasiboari onartutako prestazioak.

Era berean, norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionalei aitorturiko prestazioak -aipatutako Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordeko lanak egiten dituzten gizarte aurreikuspenarako mutualitateen prestazioak badira-, betiere Gizarte Segurantzaren erabateko ezintasun iraunkorrerako edo baliaezintasun handirako ezarri diren egoera berberetarako prestazioak badira.

Hauxe izango da salbuetsitako kopuruaren muga: Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuarengatik onesten duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa. Mugatik gorakoa lanaren etekintzat zergapetuko da eta, Gizarte Segurantzaren prestazioak lehen aipatutako mutualitateenekin batera gertatuz gero, lanaren etekina azken horietan gertatu dela ulertuko da.

Halaber, salbuetsiak egongo dira Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko Entitate Kudeatzailerik emaniko langabeziagatiko prestazioak, lana sustatzearen Langabeziagatiko prestazioak beren zenbatekoaren unean uneko balioan ordainketa bakarrean ordaintzea arautzen duen ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuan araututako ordainsari bakarraren modalitatean eginak diren eta betiere, arau horretan ezarritako xedeetara zuzendu eta hango kasuetan badaude.

Aurreko lerrokadan ezartzen den salbuespenak ondoko baldintzak izango ditu: subjektu pasiboak, sozietate laboral batean edo lan elkartuko kooperatiba batean integratu bada, akzioari edo partizipazioari bost urtean eutsi beharko dio eta, langile autonomia bada, denbora berean eutsi jarduketari.

b) Administrazio publikoek onarturiko gaitasunik ez edo ezintasunagatiko pentsioak, urripen fisiko edo psikikoak lan orotarako erabateko ezintasun iraunkorra edota baliaezintasun handia sortzen dituenen.

c) Langilea kaleratu edo lana uzteagatik ematen diren kalte-ordainak, Langileen Estatutuan, hori garatzen duten arauetan, nahiz, hala badagokio, epaiak betearazteko arautegi araupetzailean derrigorrezko izaeraz ezarritako kopuruetan; hitzarmen, itun edo kontratuaren indarrez finkatutakoa ezin izango da, ordea, derrigorrezko izaeraz ezarritako kalte-ordaintzat hartu.

Aurreko lerrokadan jasotakoa gorabehera, kaleratzea edo lan uztea enplegua murrizteko espedienteen ondorioz gertatzen denean, eta horiek martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langileen Estatutuaren testu bateginaren 51. artikulua araberatramiturik, agintari eskudunak onetsi ondoren, edo lege beraren 52.c) artikulua ezarritako arrazoiengatik gertatzen denean, aipatutako Estatutuan bidegabeko kaleratzeagatik derrigorrezko izaeraz ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia salbuetsiko da.

Letra honetan aipatutako kalte-ordain salbuesia 180.000 eurokoa izango da gehienez ere.

Salbuespena ez da aplikatuko enpresa berak edo hari loturiko beste batek langilea berriz ere kontratatzen duenean, erregelamendu bidez ezarritako kasuak eta baldintzak errespetatuta.

d) Terrorismo ekintzengatik jasandako kalteak arintzeko aparteko prestazio publikoak eta, terrorismoaren kontrako borroka dela-eta, emandako domina eta kondekorazioen ondoriozko pentsioak.

e) Pertsonen eginiko kalteen ondoriozko erantzukizun zibilaren kalte-ordainak, legalki edo juridikoki onesten den zenbatekoan.

Halaber, salbuetsirik egongo dira mota horretako kalteetarako istripu-aseguruaren kontratuetatik datozen kalte-ordainak, salbu eta kontratu horien primek zerga oinarria murriztu badezakete edo gastu kengarrizat har badaitezke foru lege honen 35. artikulua 1. araua aplikatzearen ondorioz. Salbuespenaren muga izango da zirkulazioko istripuetan pertsonen eragindako kalteak baloratzeko sistema jasandako kalteari aplikatuz ateratzen den kopurua; sistema hori lbilgailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legearen testu bateginaren eranskinean ageri da. Testu bategin hori urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen.

f) Estatuko Loteria eta Apustuatarako enpresa-entitate publikoak, Nafarroako Foru Komunitateak edo autonomia erkidegoek antolatutako loteria, joko eta apustuari sariak, hala nola Espainiako Gurutze Gorriak antolatutako zozketetakoak eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalak baimendutako jokoetakoak.

g) Literatura, arte eta zientzietako sari garrantzitsuak, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta, baita "Vianako Printzea" eta "Asturiasko Printzea" sariak ere, modalitate guztietan.

h) Beka publikoak, baita Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen aplikazio esparruan sartzen diren entitateek emandako beka ere, hezkuntza sistemaren maila eta maila guztietako ikasketak arautuak Espainian nahiz atzerrian egiteko ematen direnak, are doktoregokoak ere, erregelamenduz ezartzen den bezala.

Salbuetsita izango dira, orobat, erregelamenduz ezarriko den bezala, Prestakuntzako ikerlarien estatutua onetsi zuen urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak finkatutako eremuan, lehen aipatutako irabazi asmorik gabeko entitateek emandako beka eta beka publikoak, eta orobat, Administrazio publikoen zerbitzuko funtzionario eta langileei eta unibertsitateko irakasle eta ikerlari, ikerketarako bakar-bakarrik, entitate haiek ematen dizkieten beka eta beka publikoak.

Salbuetsita egongo dira, halaber, teknologoak Teknologia Zentroetan, Unibertsitateetan edo enpresetan prestatzeko Foru Komunitateko Administrazioak emandako beka, kasu kasuko deialdian hautatzen diren ikerketa eta garapen proiektuetarako.

i) Gurasoengandik jasotako mantenurako urte-sariak, epaileen erabakiaren arabera.

j) Hirurogeita bost urteko edo hortik gorako pertsonak, elbarriak edo babesik gabe dauden adingabeak familiar hartzeko edo egoitza batera edo eguneko zentro batera eramatearen gastua finantzatzeko erakunde publikoek emandako dirua. Orobat, mendekotasun egoeran dauden pertsonen beren zainketa pertsonalerako behar duten arreta etxean bertan hartzeko erakunde publikoetatik jasotzen den dirua.

Era berean, Foru Komunitateko Administrazioak gizarte integratzearako etxebizitzak erosi edo esleipen-hartzaileei ematen dizkien diru-laguntzak.

k) Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzari

buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren II. tituluaren IX. kapituluaren araututa dauden familia prestazioak, bai eta Administrazio publikoetako langileentzat, hala jardunekoentzat nola pasiboentzat, seme edo alaba elbarri bakoitzarengatik ezarritako familia laguntza ere.

Era berean, umezurtzei dagozkien pentsio eta sarrera pasiboak eta hogeita bi urtetik beherakoak diren edo lan guztietarako ezinduak dauden biloben edo anai-arreben aldekoak, Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen araubide publikoetatik jasoak eta, halaber, zurtasunarengatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.

Era berean, salbuetsita egongo dira norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionalei aitorturiko prestazioak -aipatutako Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezkotako lanak egiten dituzten gizarte aurreikuspenetako mutualitateen prestazioak badira-, betiere, araubide berezi horren barruko profesionalentzat aurreko bi lerroketan Gizarte Segurantzak ezarritako gisa agertzen diren egoera berberetarako prestazioak badira. Salbuetsitako kopuruaren muga Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuarengatik onesten duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa izango da. Mugatik gorakoa lanaren etekintzat zergapetuko da eta, Gizarte Segurantzaren prestazioak lehen aipatutako mutualitateenekin batera gertatuz gero, lanaren etekina azken horietan gertatu dela ulertuko da.

Halaber, salbuetsita egongo dira Gizarte Zerbitzuen arloan banakoei eta familiei prestazioak eta laguntzak emateko ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan, Erditze berean bi haur edo gehiago izan dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen ekainaren 27ko 241/2000 Foru Dekretuan, eta Langileek laneko eta familiako eginbeharrak batera eramateko eta jaiotza-tasa sustatzeko neurri osagarri gisa onetsi diren zuzeneko diru-laguntzak arautzen dituen ekainaren 27ko 242/2000 Foru Dekretuan arauturiko prestazio ekonomikoak, baita jaiotza, adopzio, mendeko seme-alaba eta zurtasunagatiko gainerako prestazio publikoak nahiz erditze edo adopzio anitzeko kasuetan ere.

l) Goi-mailako kirolariei ematen zaizkien diru-laguntzak, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak edo Kirolen Kontseilu Nagusiak Espainiako Kirol Federazioekin edo Espainiako Batzorde Olimpikoekin batera ezarritako prestakuntza programetara egokitutakoak direnean, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta.

m) Nazioarteko bake-misioetan edo gizabidezko misioetan parte hartzeagatik Espainiako estatu-

ak emandako aparteko haborokinak, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta.

n) Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lanaren etekinak, ondoko baldintza hauek betezen baldin badira:

1. Lan horiek Espainian ez-egoiliarra den enpresa edo entitate baterako edo atzerrian finkatutako establezimendu iraunkor baterako egitea, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta. Bereziki, lanen hartzaile den entitateak loturarik badu langilea enplegatzen duen entitatearekin edo haren zerbitzuak jasotzen dituenarekin, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 29. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

2. Lanak egiten direneko lurraldean zerga honen berdina edo antzekoa den beste zerga bat aplikatzea eta paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde bat ez izatea. Baldintza hau betetzat emango da, lanak egiten direneko herrialde edo lurraldeak Espainiarekin hitzarmena badu nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko eta hitzarmen horrek informazioa trukatzeko klausularik badu.

Salbuespena atzerrian egon bitartean sortutako ordainsariei aplikatuko zaie, urtero 61.000 eurori gehienez. Erregelamenduz, egun bati dagokion diru-zenbateko salbuetsia kalkulatzeko prozedura ezarri ahalko da.

Lanpostua atzerrian duten subjektu pasiboen kasuan, salbuespen hau bateraezina da, zerga honen erregelamenduaren 8.A)3.b) artikulua arabera, zergapetzetik kanpo dauden soberakinen araubidearekin, edozein dela ere haien zenbatekoa. Subjektu pasiboak zilegi izango du, salbuespen horren orde, soberakinen araubidea aukeratzeko.

ñ) 1936-1939 bitarteko gerraren ondorioz zauriak edo mutilazioak jasan zituzten pertsonen alde onartutako pentsioak, dela Estatuko klase pasiboen araubidearen bitartez, dela horretarako egindako legedi bereziaren babesean.

o) Giza immunoeskasiaren birusak jota egoteagatik jasotzen diren edozein motatako laguntzak, osasun sistema publikoan egindako jardueren ondorioz Giza immunoeskasiaren birusak jota daudenei laguntzak emateko maiatzaren 28ko 9/1993 Legegintzako Errege Dekretuan araututakoak.

Era berean, hemofilia edo sortzetiko bestelako koagulopatia batzuk izanik osasun sistema publikoan koagulazio-faktore kontzentratuekin tratamendua jaso izanaren ondorioz C hepatitisaren duten

pertsonentzako laguntza sozialak ezartzen dituen ekainaren 5eko 14/2002 Legearen 2. artikuluan eta beste zerga arau batzuetan araututako laguntzak.

p) Administrazio publikoek pertsona bati zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondoriozko kalte pertsonalengatik ordaindu dizkioten kalte-ordainak, baldin eta Administrazio publikoek ondare erantzukizunaren gaitan dituzten prozeduren erregelamendua onesten duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan agintzen diren prozeduren arabera ezarriak badira.

Salbuetsirik egongo da, halaber, Terrorismoaren biktimekiko elkartasunari buruzko urriaren 8ko 32/1999 Legeak aipatzen dituen kalte-ordainen ondorioz jasotzen den dirua.

q) Lurperatze edo ehorzketagatik jasotako prestazioak. Egindako gastuen zenbateko osoa izango da muga.

r) Foru Komunitateko Administrazioak erabilera partikularreko motordun ibilgailuak erosi edo egokitzeko elbarriei ematen dizkien prestazio ekonomikoak.

s) Zerbitzuari atxikiriko prestazio ekonomiko publikoak, laguntza familian eta modu pertsonalizatuan jasotzekoak, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legetik datozenak.

t) Espetxeetan askatasuna kentzea konpentsatzeko, estatuko eta autonomia erkidegoetako legedietan ezarritako dauden kalte-ordainak, Amnistiari buruzko urriaren 15eko 46/1977 Legean ezarritako kasuetan.

u) Foru lege honen 30.1.g) artikuluan aipatzen diren aurrezki sistematikorako banakako planen ondorio diren biziarteko errenta aseguratuak erazten direnean aditzera ematen diren errentak.

v) Foru lege honen 28. artikuluan a) eta b) letretan aipatzen diren dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, urtero 1.500 euroko muga gainditu gabe.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako dibidendu eta mozkinnei, ezta ordaindu aurreko bi hilabeteetan erositako balio edo partaidetzei dagozkien mozkinnei ere, egun horren ondoren eta epe beraren barruan, antzeko balioen eskualdaketa egiten denean. Finantza baliabideen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu

ofizialeko batean negoziatzeko onartu ez diren balio edo partaidetzen kasuan, epea urtebetekoa izango da.

w) Erakunde publikoek genero-indarkeriaren biktimei emandako prestazio ekonomikoak.

x) Lan sozietateetan eta lan elkartuko kooperatibetan enpresa-ondorengotza sustatzeko laguntzetatik datozen prestazio ekonomiko publikoak.

8. artikulua. Errenten estimazioa.

1. Lanaren edo kapitalaren etekinak sor ditzaketen ondasun, eskubide edo zerbitzuen prestazioak merkatuan duten balioarekin ordaindutat hartuko dira, besterik egiaztatzen ez bada.

Ohiko merkatu baliotzat hartuko da prestazio horietarako subjektu independenteek elkarren artean onartuko luketen kontraprestazioa.

2. Hala ere, maileguak direnean eta, oro har, kapital berekiak hirugarrenei lagatzen zaizkienean, kontraprestazioa zergaldiaren azken egunean indarra duen diruaren legezko interes-tasa aplikatu ondoren aterako da.

9. artikulua. Eragiketa lotetsiak.

Eragiketa lotetsiak Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 28. artikuluan definitzen dira eta horien baloria aipatutako artikuluan arabera egingo da.

II. KAPITULUA **Esparru pertsonala**

10. artikulua. Subjektu pasiboak.

4. artikuluan ezarritakoaren arabera, zergak Nafarroako Foru Komunitatean ordaindu behar dituztenak dira zerga honen subjektu pasiboak.

Halaber, lehenago Nafarroako foru araudiaren mendean egonik zerga egoitza berria paradisu fiskaltzat hartutako herri edo lurralde batean dutela egiaztatzen duten Espainiako nazionalitateko pertsona fisikoak subjektu pasiboak izango dira. Lerrokada honen araua egoitza aldatzen deneko zergaldian eta hurrengo lau zergaldietan aplikatuko da.

11. artikulua. Errenta-esleipena.

1. Sozietate zibilei dagozkien errentak, nortasun juridikoa izan ala ez, bai eta jaso gabeko jaraunspenei, ondasunen komunitateei eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatutako gainerako entitateei dagozkienak ere, ondokoei egotziko zaizkie hurrenez hurren: bazkide, oinordeko, komunero edo partaidei, foru lege honen III. titu-

luaren II. kapituluaren 5. atalaren 1. azpiatalean ezarritakoari jarraituz.

2. Errenta-esleipeneko araubidea duten entitateek ez dute Sozietateen gaineko zergarik ordainduko.

3. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, zerga horretako subjektu pasiboak izan eta aurreko 1. idatz-zatian aipatutako entitateei ez zaie errenta-esleipeneko araubidea aplikatuko.

III. TITULUA Errentaren zehaztapena

I. KAPITULUA Zerga oinarria

12. artikulua. Zerga oinarria. Arau orokorra.

1. Zergaldiko errentaren zenbatekoak osatuko du zerga oinarria, foru lege honetan xedatutakoari jarraituz.

2. Zerga oinarria, behar baldin bada, bi zatitan bereiziko da: zati orokorra eta aurrezkiaren zati berezia, 53. eta 54. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

3. Errentaren osagarri desberdinen zenbatekoa, oro har, zuzeneko estimazioko araubidearen bidez zehaztuko da.

4. Zeharkako estimazioko araubidea berori arautzen duten arauak jarraituz aplikatuko da.

II. KAPITULUA Zergapeko errentaren definizioa

1. atala. Lanaren etekinak

13. artikulua. Lanaren etekin osoak.

Lanaren etekin osotzat joko dira kontraprestazio eta onura guztiak, edozein dela ere beren izena edo izaera, eta dirutan zein gauzatan izan, betiere subjektu pasiboak egindako norberaren lanetik edo lan edo estatutu harremanetik zuzenean edo zeharka etorritakoak badira eta enpresa edo lanbide jardueren etekin izaerarik ez badute.

14. artikulua. Kontraprestazioak edo onurak.

1. Bereziki, hauek izango dira lanaren etekinak:

a) Soldata eta horien osagarriak, jornalak eta lansariak, haborokinak, pizgarriak, plusak eta aparteko pagak, mozkin, salmenta edo diru-sarretako partaidetzak eta familia laguntza edo sorospenak.

b) Lan harreman bereziek sortutako ordainsariak.

c) Ordezkaritza gastuengatik ordainketak.

d) Bidaia gastuetarako dieta eta esleipenak, lokomozio gastuetarako eta ostalaritzako establezimenduetako mantenu eta egonaldiko gastuetarako alde batera utzita, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak eta mugak errespetatuta.

e) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginean adierazitako pentsio planen sustatzaileek ordaindutako kontribuzio edo ekarpenak eta, orobat, Enpleguko pentsio funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EE Zuzentarauan adierazitako enpresa sustatzaileek ordaindutakoak.

f) Enpresek pentsioengatik bere gain hartutako konpromisoei aurre egiteko, enpresaburuek ordaindutako ekarpen edo kontribuzioak, 1988ko ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan ezarrita dagoen moduan, enpresaren gizarte aurreikuspeneko planak barne direla.

g) Langabeziagatik prestazioak.

2. Nolanahi ere, hauek hartuko dira lanaren etekintzat:

a) Ondoko prestazio hauek:

1. Ezintasunagatik, erretiroagatik, istripuagatik, eritasunagatik, alarguntzagatik, zurtasunagatik edo antzeko egoera batengatik, Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik jasotako pentsio eta sarrera pasiboak eta gainerako prestazio publikoak, deusetan galarazi gabe foru lege honen 7. artikuluan xedatutakoa.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, lanbide edo enpresa jardueretan aritzen direnek jasotzen dituzten aldi baterako ezintasunarengatik prestazioak jarduera haietako etekin gisa konputatuko dira.

2. Funtzionarioen nahitaezko mutualitate orokorren, umezurtzen etxeen eta antzeko erakundeen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak.

3. Pentsio planen onuradunek hartutako prestazioak eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Enpleguko pentsio funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruz 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EE Zuzentarauan araututako pentsio planetatik hartutakoak.

4. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin hitzartutako aseguru kontratuen onuradunek jasotako prestazioak, betiere horiek egindako ekarpenak, hein batean behintzat, enpresa edo lanbide jardueren etekin garbia finkatzeko garaian gastu kengarriztat jo ahal izan badira, edo zerga honen zerga oinarrian murriztu baldin badira. Prestazio horiek zerga oinarrian sartuko dira, foru lege honen 55.1 artikulua 2. puntuaren a) letran ezarritako baldintza subjektiboak betetzen ez dituztela-eta hartutako zenbatekoak zergaren zerga oinarrian murriztu edo gutxiagotu ezin izan diren ekarpenak gainditzen dituen neurrian.

5. Enpresek pentsioengatik hartutako konpromisoak gauzatu dituzten aseguru kolektiboetako kontratuen onuradunek jasotako prestazioak, 1988ko ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan xedaturikoaren arabera, enpresen gizarte aurreikuspeneko planak barne.

Foru lege honen ondoreetarako, enpresaren gizarte aurreikuspeneko planak Espainiako araudian araututakoak izango dira.

6. Aseguratutako aurreikuspen planen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak.

Foru lege honen ondoreetarako, aseguratutako aurreikuspen planak Espainiako araudian araututakoak izango dira.

7. Menpekotasun aseguru onuradunek jasotzen dituzten prestazioak, estatuko araudian xedatutakoari jarraikiz.

b) Nafarroako Parlamentuko, Europako Parlamentuko, Gorte Nagusietako, Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarretako eta Toki Korporazioetako kideei duten karguagatik ordaintzen zaizkien zenbatekoak, aipatutako erakundeek gastuetarako horietatik erabiltzen dituzten zenbatekoak kendurik.

c) Administrazio kontseiluetako, horien ordezharduten batzetako eta beste ordezkari-organobatzuetako kideek jasotzen dituzten ordainsariak.

d) Ezkontidearen edo bikotekide egonkoraren aldeko osabidezko pentsioak eta mantenerako urtesariak.

e) Sozietate bateko fundatzaile edo sustatzaileek beraientzat gordetzen dituzten izaera ekonomikoko eskubide bereziak, norberaren zerbitzuak ordaintzeko balio dutenean.

f) Bekak, 13. artikuluan deskribatu diren harremanetakoren batetik datozenen.

g) Irabazi asmorik gabeko erakundeek sustatutako jarduera humanitarioetan edo asistentzia sozialekoetan laguntzeagatik jasotako ordainsariak.

15. artikulua. Diruzkoak ez diren ordainsariak edo gauzazkoak.

1. Diruzkoak ez diren ordainsari edo gauzazkotzat hartuko dira, norberaren helburuetako, doan edo merkatuko prezioa baino txikiagoan erdietsi diren ondasun, eskubide edo zerbitzuak erabili, kontsumitu edo lortzea, nahiz eta emaileari zinezko gasturik sortu ez dioten.

Errenta-ordaintzaileak subjektu pasiboari esku-dirutan ordaintzen badio, azken horrek ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak eskura ditzan, errenta hori diruzko errentatzat hartuko da.

Hauek hartuko dira lanaren diruzkoak ez diren ordainsari edo gauzazko ordainsari gisa, besteak beste:

a) Etxebizitza erabiltzea.

b) Ibilgailuak erabili edo beste baten esku uztea.

c) Diruaren legezko interes-tasarekin baino txikiagoarekin egindako maileguak.

d) Mantenu, ostatu, turismo bidaia edo antze-koengatik izandako prestazioak.

e) Aseguru kontratuaren edo antzeko besteren baten arabera enpresak ordaindutako primak edo kuotak, lan-istripuaren aseguruaren edo erantzukizun zibilarenak alde batera utzita.

Era berean, ez dira lanaren gauzazko etekintzat hartuko aseguru entitateei eritasunerako ordaindutako primak edo kuotak, muga hauen barnean baldintza hauek betetzen badira:

a') Eritasunerako aseguruak langilea bera hartzea, ezkontidea eta ondorengoak ere har ditzakeela.

b') Aurreko a') letran aipatutako pertsona bakoitzeko urtean ordaindutako prima edo kuoten kopurua 500 eurotik gorakoa ez izatea. Kopuru horren soberakinak gauzazko ordainsaritzat hartuko dira.

f) Pentsio planen sustatzaileek ordaindutako kontribuzio edo ekarpenak eta, maiatzaren 12ko 3/1998 Foru Legearen 77. artikuluan ezarritakoari jarraituz, pentsioei buruzko konpromisoei aurre egiteko, enpresaburuek ordaindutakoak, enpresaren gizarte aurreikuspeneko planak barne direla.

Enpleguko pentsio funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruz Europako Parlamentuak eta

Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EE Zuzentarauan arauturiko enpresa sustatzaileen kontribuzioak ere sartuko dira letra honetan, bai eta enpresaburuek menpekotasun aseguruen kontratuen ondorioz ordaintzen dituzten diru-kopuruak ere.

g) Subjektu pasiboaren edo horri laugarren mailara arteko –hori barne– ahaidetasunagatik lotutako beste pertsonen ikasketa eta mantenu gastuak ordaintzeko zenbatekoak.

Ez dira kontuan hartuko langileen gaurkotze, gaitze edo birziklatzeari buruzko ikasketak, lanpostuen ezaugarriek edo lanak hala galdatzen dituztenean.

2. Ondokoak ez dira inola ere gauzako ordainsaritzat hartuko:

a) Enpresetako kantina eta jantokietan edo ekonomato sozialetan ematen diren prezio merkaturko entregak. Enpresetako jantokietan eginiko prezio merkaturko entregatzat hartuko dira zeharkako zerbitzu emateak, betiere erregelamendu bidez xedatuko den zenbatekoa gainditzen ez badute.

b) Langile enplegatuen zerbitzu sozial eta kulturaletara zuzendutako ondasunen erabilera. Hala-kotzat hartuko dira, besteak beste, Administrazio publiko eskudunak behar bezala homologatutako tokiak eta lokalak, enpresek edo enplegu-emaileek jarritakoak beren langileen seme-alabek haur hezkuntzako lehen zikloa bertan egin dezaten, bai eta zerbitzu horiek kontratatzea behar bezala baimendutako gainerakoekin ere.

c) Sozietateek beren akzio edo partaidetzak, edo Merkataritza Kodearen 42. artikulua ildotik taldea osatzen duen edozein sozietateren akzio edo partaidetzak, jarduneko langile bakoitzari doan edo merkatu prezio normalaren azpitik ematea, gauzako ordainsariak urtean 12.000 eurotik beherakoak badira. Eta betiere baldintza hauek bete beharko dira:

1. Eskaintza baldintza berdinetan egitea enpresako langile guztientzat.

2. Langile horiek, beren ezkontideek edo bigarren mailara arteko ahaideek, denen artean enpresaren partaidetzen %5 baino gehiago ez izatea. Partaidetza horien erosketa dela-eta %5 hori gainditzen bada, salbuespenak %5 osatu arte emandako partaidetzak hartuko ditu.

3. Balioak, gutxienez, hiru urtean beren horretan mantentzea.

Aurreko 3. betekizunean aipatutako epea ez betetzeak aitortzen eta likidazio osagarria aurkez-

teko betebeharra sortuko du, dagozkion berandutze interesekin, eta aurkeztu beharko da ez-betetze egunetik kontaktzen hasi eta zerga honengatik egin beharreko lehen aitortpena egiteko epearen azken egunera arte.

Akzioen edo partaidetzen eskualdaketatik datozen ondare gehikuntza eta murrizketak zehazteko, erosketa balioa kalkulatzekoan, gauzako ordainsaritzat hartu ez den zenbatekoa hartuko da kontuan.

16. artikulua. Lanaren ordainsarien balorazioa, diruzkoak ez direnena zein gauzakoena.

1. Aurreko artikulua 1. idatz-zatiak aipatzen dituen prestazioak honela baloratuko dira:

a) a) letrakoak:

Subjektu pasiboaren esku jarritako errentapeko etxebizitza bada, ordaindutako alokairuaren zenbatekoaren arabera.

Gainerako kasuetan, Lurralde kontribuzioaren edo Ondasun higiezinaren gainerako zergaren ondoretarako aipatutako etxebizitzak duen katastro balioari %2 aplikatu ondoren ateratako zenbatekoaren arabera. Etxebizitzak katastro baliorik ez badu, aurreko portzentajea erosketa balioari aplikatuko zaio.

Bietan balorazioa gehienez ere subjektu pasiboak duen kargu edo lanpostuagatik jasotzen dituen gainerako lan kontraprestazioen %10 izango da.

b) b) letrakoak:

Ibilgailu bat beste baten esku uzten bada, erabiltzaileak erosi duenean ordaindu duena, eragiketari hori zergapetzen duten zergak barne.

Ibilgailua erabiltzen bada, aurreko lerroak aipatzen duen kostuaren %20 urtean, ibilgailu bera izan eta erabiltzailearena bada, gehienez ere bost urteko epean.

Ibilgailua erabiltzailearena ez bada, enpresak erabiltzeko ordaindu duen zenbatekoaren arabera.

Erabili eta ondoren beste baten esku uzten bada, idatz-zatiaren f) letran xedatutakoari jarraituz baloratuko da entrega.

c) c) letrakoen kasuan, sortutako zenbatekoaren eta zergaldian indarrean dagoen diruaren legeko interesa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoaren arteko aldea.

d) d), e) eta g) letren kasuan, erabiltzaileak ordaindutako kostuaren arabera, eragiketari hori zergapetzen duten zergak barne.

e) f) letrakoen kasuan, bere zenbatekoaren arabera.

f) Gainerako kasuetan, merkatuan duen ohiko balioaren arabera.

2. Gauzazko ordainsarien gainean ezar daitekeen konturako sarrerarik badago, aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen balioen gainean kalkulatu da, foru lege honen 80. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. Gauzazko ordainsariak daudenean lanaren etekintzat hartuko dira artikuluan honen 1. idatz-zatiaren arauen emaitzazko balorazioa eta, behar bada, ordainsari mota honi dagokion konturako sarrera, haren kopurua errenta-hartzaileari jasana-razi zaionean izan ezik.

17. artikulua. Lanaren etekin garbia.

1. Etekin osoei ondoko artikuluan aipatzen diren gastu kengarrien zenbatekoa kendu ondoren aterako da lanaren etekin garbia:

2. Irabazi osoak osorik kontatuko dira, honako murriztapen hauetako bat aplikatu behar zaienean izan ezik:

a) %40, bi urte baino gehiagoko sortze aldia duten etekinetarako, (aldian-aldian edo behin eta berriz jasotzen direnak ez badira), eta erregelamendu bidez denboran modu irregular nabarmenean jasotakotzat jotzen direnetarako. Etekin horiek zatika kobratzen badira, sortze aldia kalkulatzeko kontuan hartuko da zenbat urtez izan den zatikatze hori, erregelamenduak agintzen duen moduan betiere.

b) Ehuneko 40, foru lege honen 14.2.a) artikulua aipatzen dituen prestazioetarako, baldin eta kapital gisa jasotzen badira eta lehen jasoalditik bi urte iragan badira.

c) Ehuneko 50, baliaezintasunarengatiko prestazioetatik datozen etekinetarako, erregelamenduak agindu bezalako moduan eta graduetan, kapital gisa jaso badira, foru lege honen 14.2.a) artikulua aipatzen dituen kasuetan.

d) Ehuneko 70, bizi-aseguruaren kontratuen heriotzagatiko prestazioen etekinetarako, baldin eta aseguraturako arrisku bakarra hiltzea edo baliaezintasuna bazen, 14.2.a).5. artikulua aipatzen dituen kasuetan.

3. Aurreko idatz-zatian aipatu diren murriztapenak ez zaizkie aplikatuko foru lege honen 14.2.a) artikulua aipatzen dituen prestazioei, baldin eta errenta gisa jasotzen badira, ezta zerga oinarria gutxitzen duten enpresa kontribuzio inputatuei ere, foru lege honen 55.1 artikulua agintzen duenez.

18. artikulua. Gastu kengarriak.

Honako hauek soil-soilik izango dira gastu kengarriak:

a) Gizarte Segurantzari eta funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorre egingako kotizazioak, eta eskubide pasiboen kenkariak eta umezurtz etxe edo antzeko erakundeei egingako kotizazioak.

b) Subjektu pasiboak lanbide elkargoei ordaindutako kuotak, entitate horien funtsezko xedeei dagozkien heinean, etekinak sortzen direneko jardueran aritu ahal izateko horietako kidea izatea nahitaezkoa denean eta erregelamendu bidez ezarriko den muga errespetatuta.

c) Sindikatuei ordaindutako kuotak.

d) Zergadunaren eta lanaren etekinak jasotzen dituen edo jasoko dituen pertsona edo erakundearen arteko harremanean sortutako auzietatik zuzenean datozen defentsa juridikoko gastuak.

19. artikulua. Lanaren etekinen indibidualizazioa.

Lanaren etekinak horiek jasotzeko eskubidea duenari esleituko zaizkie soilik. Hala ere, foru lege honen 14.2.a) artikuluan aipatutako prestazioak horiek jasotzeko baimena duten pertsona fisikoei esleituko zaizkie.

2. atala. Kapitalaren etekinak

1. azpiatala. Arau orokorrak

20. artikulua. Kapitalaren etekin osoak.

1. Kapitalaren etekin osotzat joko dira zuzenean edo zeharka ondare elementu, ondasun edo eskubideetatik datozen kontraprestazio eta onura guztiak, edozein dela ere beren izena edo izaera, eta dirutan zein gauzatan izan, betiere horien titularra subjektu pasiboa bada, eta enpresa edo lanbide jardueren etekin izaerarik ez badute.

2. Hala eta guztiz ere, ondare elementuen titulartasuna eskualdatzetik datozen errentek, jabariaren erreserbarako ituna egon arren, ondare gehikuntza edo murrizketak balira bezala ordainduko dituzte zergak, foru lege honek kapitalaren etekin-tzat kalifikatzen dituzenean izan ezik.

3. Nolanahi ere, hauek hartuko dira kapitalaren etekintzat:

a) Landako zein hiriko ondasun higiezinetatik datozenak, subjektu pasiboak egingako enpresa edo lanbide jardueri atxikirik ez badaude.

b) Higigarrien kapitaletik eta, oro har, subjektu pasiboaren titulartasunekoak diren bestelako ondasun edo eskubideetatik datozenak, subjektu pasiboak berak egindako enpresa edo lanbide jardueri atxikirik ez badaude.

21. artikulua. Diruzkoak ez diren ordainsarien balorazioa edo gauzazkoena.

1. Zuzenean edo zeharka jasotako ondasun edo zerbitzuek merkatuan duten prezioaren arabera baloratuko dira diruzkoak ez diren ordainsariak edo gauzazkoak.

Aipatutako merkatu prezio hori zehazteko aplikagarri diren irizpideak erregelamenduz ezarri ahalko dira.

2. Diruzkoak ez diren ordainsarien edo gauzazko ordainsarien gainean ezar daitekeen konturako sarrerarik badago, aurreko idatz-zatiak aipatzen duen balioaren gainean kalkulatu da, foru lege honen 80. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. Gauzazko ordainsariak daudenean kapitalaren etekintzat hartuko dira artikuluan honen 1. idatz-zatian xedatutakoaren emaitzazko balorazioa eta, behar bada, aurreko 2. idatz-zatian aipatzen den konturako sarrera, haren kopurua errenta-hartzaileari jasanarazi zaionean izan ezik.

22. artikulua. Kapitalaren etekin garbia.

Etekin osoei gastu kengarrien zenbatekoa kendu ondoren aterako da kapitalaren etekin garbia.

23. artikulua. Kapitalaren etekinen indibidualizazioa.

Kapitalaren etekinak, Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, sorburu dituzten ondare elementu, ondasun edo eskubideen titularrak diren subjektu pasiboek eskuratu dituztela ulertuko da.

2. azpiatala. Higiezinaren kapitalaren etekinak

24. artikulua. Higiezinaren kapitalaren etekin osoak.

Hirilurreko edo landalurreko ondasun higiezinaren titulartasunetik edo horien gaineko eskubideetatik datozen etekin osotzat ondoko hauek hartuko dira: ondasun edo eskubide erreal horiek errentan ematearen ondorioz edo erabili edo gozatzeko ahalmen edo eskubideak eratu edo lagatzearen ondorioz sortzen direnak, etekin horien izena edo izaera zeinahi dela.

Errentariak edo azpierreentariak, lagapen-hartzaileak edo erosleak kontzeptu guztiengatik

ordaindu beharreko kopurua hartuko da etekin osotzat, baita higiezinarekin batera erabiltzeko lagatzen diren ondasun guztiei dagokiena ere, baina Balio erantsiaren gaineko zerga kenduta.

25. artikulua. Higiezinaren kapitalaren etekin garbia.

1. Etekin osoei ondoko gastu hauen zenbatekoa kendu ondoren aterako da higiezinaren kapitalaren etekin garbia:

a) Horiek erdiesteko egindako gastuak. Aipatutako ondasun edo eskubideak erosi edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesen zenbatekoa eta gainerako finantzaketa gastuak ez dira, ondasun edo eskubide bakoitzean, ondasun higiezina edo eskubidea lagatzeagatik lortutako etekin osoak baino handiagoak izango.

b) Higiezina eta berekin batera lagatutako gainerako ondasunen amortizaziorako zenbatekoak, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta.

Erabili edo gozatzeko eskubide edo ahalmen baten titulartasunetik datozen etekinen kasuan, kengarria izango da, balio-galeraren kontzeptuarengatik eta etekin osoen mugaren barnean, ordaindutako erosketa kostuaren zati proportzionala, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta.

2. Etxebizitzarako diren ondasun higiezinaren errentamenduetan, aurreko idatz-zatian adierazitakoari jarraituz kalkulatu da etekin garbi positiboa %55 murriztuko da.

Subjektu pasiboak aitortutako etekinetan soil-soilik aplikatuko da murriztapena.

3. Aurreko idatz-zatian adierazitako murriztapena aplikatu ondoren, bidezkoa bada, denboran batera erregulartasunik gabe edo bi urtetik gorako epe batean sortu diren etekin garbi positiboak %40 murriztuko dira. Etekin horiek zatika kobratu badira, sortze aldia kalkulatzeko orduan, etekinak zenbat urtetan banatu diren hartuko da kontuan, erregelamenduz ezartzen den bezala.

26. artikulua. Ahaidetasuna dagoenean izandako etekina.

Higiezinak errentan edo azpierreentan eman edo horiek erabili edo gozatzeko eskubidea ezkontidearen alde edo hirugarren mailara arteko ahaide baten alde eman bada, ezkontza-ahaideak barne, etekin garbia gutxienez higiezinak Lurralde kontribuzioaren edo Ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondoreetarako duen katastro balioaren %2 izango da. Higiezinak katastro baliorik ez

badu, etekin garbia gutxienez erosketa balioaren %2 izango da.

Aurreko lerrokadan aipatutako pertsonen aldeko gozamen eskubidea eratzten denean, etekin garbia ez da Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren ondoretarako higiezinak duen balioa baino txikiagoa izango eta, hala behar izanez gero, aurreko artikulua 2. idatz-zatian ezarritako murriztapena aplikatuko zaio etekin horri.

3. azpiatala. Higigarrien kapitalaren etekinak

27. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekin osoak.

Hauek hartuko dira higigarrien kapitalaren etekin osotzat:

- a) Edozein motatako entitateen funts berekietan parte hartzeagatik lortutako etekinak.
- b) Norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako etekinak.
- c) Subjektu pasiboaren titulartasunekoak diren gainerako ondasun higigarri edo eskubideetatik datozen etekinak.

28. artikulua. Edozein motatako entitateen funts berekietan parte hartzeagatik lortutako etekinak.

Edozein motatako entitateen funtsetako partaidetzan lortutako etekin osoak honakoak izango dira:

- a) Dibidenduak, batzordeetara joateagatik primak eta edozein motatako entitateen mozkinetako partaidetzak.
- b) Mota guztietako aktiboetatik datozen etekinak, liberatutako akzioen entrega izan ezik, Estatutuetan ezarrita dagoenez edo gizarte organoen erabakiz, baldin eta ahalmena ematen badute lan pertsonalaren ordainsariaz bestelako arrazoiengatik entitate baten mozkinetan, salmentetan, eragiketetan, sarreretan edo antzeko kontzeptuetan parte hartzeko.
- c) Bazkide, akziodun, elkartekide edo partaide izateagatik entitate batetik jasotako aurrekoetz bestelako beste edozein onura.
- c) Akzio edo partaidetzen jaulkipen primaren banaketa. Lortutako zenbatekoak gutxitu egingo du, deuseztatu arte, eragindako akzio edo partaidetzen erosketa balioa, eta gera litekeen soberakina zergapean egongo da, higigarrien kapitalaren etekin gisa.

29. artikulua. Norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako etekinak.

1. Horrelakotzat joko dira mota guztietako kontraprestazioak, beren izena edo izaera edozein dela ere, diruz zein gauzaz egin direla ere, hala nola interesak eta norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzeagatik ordain gisa itundutako beste edozein ordainsari, baita besteren kapitalak hartu eta erabili izana adierazten duten mota guztietako aktiboen eskualdaketatik, itzulketatik, amortizaziotik, truketik edo bihurtetatik datozen kontraprestazioak ere.

Horrelakotzat joko dira honako hauek, bereziki:

- a) Edozein igorpen tresnatakit datozen etekinak, merkataritza eragiketek sortutakoak barne, endosatu edo eskualdatzen den unetik aurrera, endosua edo lagapena zuzkitzaile edo hornitzaileen kreditu baten ordainketa gisa egin ezean.
- b) Mota guztietako finantza erakundeetako kontuetatik datorren kontraprestazioa, bere izena edo izaera edozein dela ere, finantza aktiboen gaineko eragiketetan oinarritutakoak barne.
- c) Berrerosteko ituna daukan finantza aktiboen aldi baterako lagapeneko eragiketetatik datozen errentak.
- d) Finantza erakundearen titulartasuneko den kreditu baten erabateko edo zati bateko eskualdaketa, lagapenaren edo transferentziaren ondorioz finantza erakunde horrek ordaindutako errentak.

2. Balioen eskualdaketa, itzulketa, amortizazioa, trukea edo bihurteta egotekotan, etekin gisa zenbatuko da balioen eskualdaketa, itzulketa, amortizazio, truke edo bihurteta balioaren eta erostean edo harpidetzean zeukaten balioaren arteko aldea.

Truke edo bihurteta baliotzat hartuko da jasotzen diren balioei dagokiena.

Erosi eta besterentzearen gastu osagarriak etekinaren kuantifikaziorako zenbatuko dira, behar bezala frogatzen badira.

Finantza aktiboen eskualdaketatik datozen etekin negatiboak integratu egingo dira subjektu pasiboaren ondarean dauden finantza aktiboak eskualdatu ahala, subjektu pasiboak finantza aktibo homogeneoak eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo bi hilabeteen barruan eskuratu dituenean.

30. artikulua. Bestelako ondasun higigarrietik edo eskubideetatik datozen etekinak.

1. Kapitalizazio eragiketetatik edo bizi-aseguru edo baliaezintasun-aseguruaren kontratuetatik datozen diruzko edo gauzazko etekinak, foru lege honen 14.2.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, lanaren etekin gisa zergak ordaindu behar direnean izan ezik.

Higigarrien kapitalaren etekin horiei hurrengo arauak aplikatuko zaizkie bereziki:

a) Kapital geroratuak jasotzen denean, higigarrien kapitalaren etekina jasotako kapitalaren eta ordaindutako primen zenbatekoaren arteko aldeak zehaztuko du.

b) Berehalako biziarteko errenten kasuan, jaraunspen, legatu, edo antzeko titulu baten bidez "mortis causa" eskuratuak ez direnean, ondoko portzentajeak urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza hartuko da higigarrien kapitalaren etekintzat:

– %40, hartzailea berrogei urtetik beherakoa denean.

– %35, hartzailea berrogei eta berrogeita bederatzirte bitartekoa denean.

– %28, hartzailea berrogeita hamar eta berrogeita hemeretzi urte bitartekoa denean.

– %24, hartzailea hirurogei eta hirurogeita bost urte bitartekoa denean.

– %20, hartzailea hirurogeita sei eta hirurogeita bederatzirte bitartekoa denean.

– %8, hartzailea hirurogeita hamar urtekoa edo hortik gorakoa denean.

Urteko errenta jasotzen duen unean errentadunak duen adinari aplikatuko zaizkio portzentaje horiek.

c) Aldi baterako errenta berehalakoak direnean, jaraunspen, legatu edo antzeko titulu baten bidez "mortis causa" eskuratuak ez direnean, ondoko portzentajeak urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza hartuko da higigarrien kapitalaren etekintzat:

– %12, errentaren iraupena bost urtekoa edo txikiagoa denean.

– %16, errentaren iraupena bost urtetik gorakoa eta hamar urtekoa edo txikiagoa denean.

– %20, errentaren iraupena hamar urtetik gorakoa eta hamabost urtekoa edo txikiagoa denean.

– %25, errentaren iraupena hamabost urtetik gorakoa denean.

d) Errenta geroratuak -biziartekoak edo aldi baterakoak- jasotzen direnean eta "mortis causa" eskuratuak ez direnean jaraunspen, legatu edo beste oinordetza-tituluren baten bidez, aurreko b) eta c) letretan ezarritako portzentajeak urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen dena hartuko da higigarrien kapitalaren etekintzat, errenta sortu arte lortutako errentagarritasunaz areagoturik, hau ere erregelamendu bidez zehazten den moduan kalkulatu. Errentak dohaintzaz edo bizien arteko eta dohainezko beste edozein negozio juridikoren bitartez jasotzen direnean, hauex baina ez da joko higigarrien kapitalaren etekintzat: aurreko b) eta c) letretan ezarritako portzentajeetatik egokitzen dena urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen dena.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa horrela izan arren, foru lege honen 14.2.a) artikuluan bildutako ez bestelako bizi- edo baliaezintasun-aseguruaren kontratuen onuradunek errenta moduan jasotzen dituzten erretiro eta baliaezintasunagatiko prestazioak zergaren zerga oinarrian integratuko dira, higigarrien kapitalaren etekin gisa eta erregelamendu bidez finkatzen den moduan, kontratuaren indarrez ordaindutako primetatik gora egiten duen unetik, eta aseguru kontratuaren probisioetan inolako mobilizaziorik izan ez bada; halaber, errentak dohaintzaz edo bizien arteko eta dohainezko beste edozein negozio juridikoren bitartez jasotzen direnean, errentak eratu zireneko egungo balio aktuarioletik gora egiten dutenean integratuko dira zerga oinarrian. Kasu horietan ezin dira aplikatu aurreko b) eta c) letretan ezarritako portzentajeak. Araubide hori aplikatzeko, behar-beharrezkoa izango da aseguru kontratua gutxienez erretiro data baino bi urte lehenago hitzartu izana.

e) Aldi baterako edo biziarteko errentak iraungitzen direnean errentak "mortis causa" jaraunspen edo beste oinordetza-tituluren baten bidez eskuratuak ez badira, errentaren iraungipenaren arrazoia erreskate eskubidea erabiltzea izan delarik, honelaxe aterako da higigarrien kapitalaren etekina: erreskatearen zenbatekoari ordura arte ordaindutako errentak gehitu, eta ordaindutako primak eta idatz-zati honetako aurreko letren arabera higigarrien kapitalaren etekin gisa zergak ordaindu dituzten kopuruak kendu. Errentak dohaintzaz edo bizien arteko eta dohainezko beste edozein negozio juridikoren bitartez jasotzen direnean, hauex ere kenduko da: errentak eratu bitartean pilatu den errentagarritasuna.

Errentadunarentzat ez da etekinik egongo aldi baterako edo biziarteko errentaren iraungipena bere heriotzagatik gertatu denean.

f) Kapital prestazioak ezartzen dituzten bizi- eta baliaezintasun-aseguruak aurreko d) letraren lehe-

nengo lerrokadan xedatutakoaren arabera ordainduko dituzte zergak, kapital hori biziarteko edo aldi baterako errentak osatzera bideratzen denean, eta bihurtzeko aukera hori aseguru kontratuan jasotzen bada betiere. Letra honetan xedatutakoa ez da inondik inora aplikatuko kapital hori, edozein bitarteko erabiliz, subjektu pasiboaren esku jartzen denean.

g) Aurrezki sistematikoaren banakako planen betekizun, baldintza eta ezaugarriei dagokienez, estatuko araudia beteko da.

Jasotzen den biziarteko errenta dela-eta, baldin eta jarri diren baliabideekin eratuta badago eta estatuko araudiko betekizunak betetzen baditu, idatz-zati honen b) letran ezarritakoaren arabera ordainduko dira zergak.

Subjektu pasiboak, biziarteko errenta eratu baino lehen, eskubide ekonomiko metatuak osorik edo hein batean bere eskura badauzka, horren arabera ordainduko ditu zergak, foru lege honetan ezarritakoarekin bat. Horretarako, berreskuratutako kopurua lehenbizi ordaindutako primei dagokiena izango da, kasu bakoitzeko errentagarritasuna barne.

Biziarteko errentaren ondoriozko eskubide ekonomikoak osorik edo hein batean aurreratuz gero, foru lege honen 7. artikuluan u) letran xedatutakoa aplikatzearen ondorioz salbuetsita egon zen errenta aipatutako aurreratzea gertatzen den zergaldian sartu beharko du subjektu pasiboak.

2. Kapital ezarpenen ondoriozko errentak.

Biziarteko edo aldi baterako errentak idatz-zati honetan sartzten dira, kapital ezarpenak izan dituztenean arrazoi, jaraunspen, legatu edo antzeko tituluren baten bidez "mortis causa" eskuratuak direnean izan ezik. Higigarrien kapitalaren etekintzat joko da artikulua honen aurreko idatz-zatiaren b) eta c) letrak bizi-aseguruaren kontratuen berehalako ondorio diren errentetarako -biziartekoak nahiz aldi baterakoak- ezartzen dituzten portzenta-jeak urteko bakoitzari aplikatzearen emaitza.

3. Higigarrien kapitalaren beste etekin batzuk.

Idatz-zati honetan, besteak beste, etekin hauek sartzten dira, diruzkoak zein gauzazkoak:

a) Jabetza intelektualaren ondoriozkoak, subjektu pasiboa egilea ez denean, eta subjektu pasiboak eginiko lanbide edo enpresa jarduerarekin lotzen ez diren jabetza industrialekoak.

b) Laguntza teknikoa ematearen ondoriozkoak, laguntza hori lanbide edo enpresa jardueren eremuan eman ezean.

c) Ondasun higigarrien, negozioen edo meategien errentamendutik datozenak, bai eta azpiekintzaileak azpiekintzaren errentamendutik jasotakoetatik datozenak ere, betiere errentamendu edo azpiekintzaren ondoriozkoak lanbide edo enpresa jarduerak ez direnean.

d) Irudia ustiatzeko eskubidearen edo hura erabiltzeko baimenaren lagapenak sortutakoak, lagapen hori lanbide edo enpresa jardueraren eremuan gertatu ezean.

e) Lege honen 28. eta 29. artikuluetan eta artikulua honen 1. eta 2. idatz-zatietan aipatzen diren ondasun higigarrien kapitalaren etekinak sorraraz ditzaketen ondasun higigarriak edo eskubideak erabili edo gozatzeko eskubide edo ahalmenak eratzearen edo lagatzearen ondoriozkoak, beren izena edo izaera edozein dela ere.

Aurreko lerrokadan aipatzen diren eratzeko edo lagatzeak ezkontidearen alde edo hirugarren mailara bitarteko ahaide baten alde egiten badira, ezkontza-ahaideak barne, etekin garbia ezin izango da Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren araudia aplikatuz aterako litzatekeena baino txikiagoa izan.

f) Aurreko e) letran aipatutakoez bestelako ondasun higigarriak edo eskubideak erabili edo gozatzeko eskubide edo ahalmenak eratzearen edo lagatzearen ondoriozkoak, beren izena edo izaera edozein dela ere.

Aurreko lerrokadan aipatzen diren eratzeko edo lagatzeak ezkontidearen alde edo hirugarren mailara bitarteko ahaide baten alde egiten badira, ezkontza-ahaideak barne, etekin garbia ezin izango da Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren araudia aplikatuz aterako litzatekeena baino txikiagoa izan.

31. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekintzat jotzen ez diren kasuak.

Ez da higigarrien kapitalaren etekintzat joko subjektu pasiboak bere ohiko enpresa edo lanbide jarduerak garatzean egindako eragiketen prezioa zatikatu edo luzatzeagatik lortzen duen kontraprestazioa, bidezkoa den kontzeptuagatik zergak ordaintzearen kalterik gabe.

Subjektu pasiboa hil dela-eta irabazteko asmoz eskualdatzen badira foru lege honen 29. artikuluan aipatutako besteren kapitalak atzitu eta erabiltzea adierazten duten aktiboak, higigarrien kapitalaren etekinik ez dagoela iritziko da.

32. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekin garbia.

1. Higigarrien kapitalaren etekin garbia zehazteko, etekin osoetatik gastu hauek besterik ez dira kenduko:

a) Balio negoziagarrien administrazioari eta gordailuari dagozkien gastuak, baina muga hau gainditu gabe: salbuetsita dauden diru-sarrerak kendu ondoren, balio haietatik lortutako diru-sarrera osoetatik %3.

Horretarako, administrazio eta gordailu gastuztat hartuko dira inbertsio zerbitzuetako enpresek, kreditu entitateek edo bestelako finantza entitateek jasanarazten dizkieten zenbatekoak, Baloreen merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen arabera, titularren izenean titulu bidezko balioen gordailu zerbitzua emateagatik edo kontuko idazpenen bidez adierazitako balioak administrazioagatik ordainduak.

Inbertsio-zorroak titularrak eskatu ahala eta modu pertsonalean kudeatzeko kontraprestazioak ez dira kenkarietan sartuko, titularren kontura eta haiek beraiek emandako aginduen ondorioz inbertsioen erabilera gertatzen bada.

b) Laguntza teknikoa ematearen ondoriozko etekinen kasuan edo ondasun higigarrien, negozioen edo meategien errentamenduetatik edo azpierrementamenduetatik datozen etekinen kasuan, etekin osoetatik haiek eskuratzeko beharrezkoak izan diren gastuak kenduko dira eta, orobat, diru-iturri diren ondasun edo eskubideek izandako hondatzearen gastua, bidezkoa bada.

2. Foru lege honen 30. artikulua 3. idatz-zatian ezarritako etekin garbiak, bi urtetik gorako sortze aldia dutenak edo denboran modu irregular nabarmen batez lortutakoak %40 murriztuko dira.

Irabazi horiek zatika kobratzen badira, sortze aldia kalkulatzeko kontuan hartuko da zenbat urtez izan den zatikatze hori, erregelamenduak agintzen duen moduan betiere.

3. atala. Enpresa edo lanbide jardueren etekinak

33. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueren etekin osoak.

1. Enpresa edo lanbide jardueren etekin osotzat joko dira, norberaren lanaren eta kapitalaren multzotik edo horietako bakarretik etorrira, subjektu pasiboak bere kontura ekoizpen eta giza baliabideen bitartekoak edo horietako bakarrarenak antolatzea dakartenak, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan esku hartzeko asmoz.

Horrelakotzat jotzen dira bereziki fabrikazio, merkataritza, zerbitzuak emate edo erauzketa jardueren etekinak, artisautza, nekazaritza, basozaintza, abeltzaintza, arrantza, eraikuntza eta meatzaritzari lotutakoak barne, baita lanbide libelak, artistikoak eta kirol arlokoak gauzatzea ere.

Enpresaburu, profesional, artista edo kirolaritzat hartuko dira, besteak beste, gisa horretan agertzen direnak Jarduera ekonomikoen gaineko zerga edo Lizentzia fiskalaren tarifetan.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, ondasun higiezin errentamendua enpresa jarduera dela ulertuko da, baldin eta ondorengo inguruabarrak batera gertatzen badira eta orduan bakarrik:

a) Jarduera aurrera eramateko gutxienez lokal bat izatea horretarako propio.

b) Jarduera horretan pertsona bat behintzat izatea, lan kontratupean eta lanaldi osoan.

34. artikulua. Etekin garbia.

1. Enpresa edo lanbide jardueren etekin garbia Sozietateen gaineko zergaren arauen arabera zehaztuko da, atal honetan bildutako arau bereziren kalterik gabe, eta hurrengo araubideen bidez gauzatuko da:

a) Zuzeneko estimazioa, araubide orokor gisa aplikatuko dena eta bi modalitate barne hartuko dituena:

- Arrunta.
- Sinplifikatua.

b) Estimazio objektiboa.

2. Enpresa edo lanbide jardueren etekin garbiaren ez dira sartuko horiei lotutako ondare elementuetatik datozen ondare gehikuntzak eta murrizketak, foru lege honetan ondare gehikuntza eta murrizketetarako ezarritako arauen arabera zenbatu, eta zergak ordainduko dituztenak.

3. Zergadunak ondare elementuak lotzeak edo aktibo finkoak deslotzeak ez du ekarriko ondarea aldatzea, betiere ondasunek edo eskubideek haren ondarearen zati izaten jarraitzen badute.

Afektazioa egon ez dela ulertuko da, afektazioa egon eta hiru urteko epean ondasunak edo eskubideak besterentzen badira.

4. Jardueraren xede diren eta subjektu pasiboak hirugarrenei doan laga edo ematen dizkien edo bere erabilera edo kontsumorako erabiltzen dituen ondasun edo zerbitzuen merkatu balio arrunta hartuko da aintzat.

Halaber, kontraprestazioa dagoenean eta hori ondasun edo zerbitzuen merkatu balio arrunta baino askoz txikiagoa denean, balio hori hartuko da aintzat.

5. Enpresa eta lanbide jardueri lotutako aktibo finkoen balorazioa Sozietateen gaineko zergaren arauen eta erregelamenduz ezartzen diren zehaztapenen arabera egingo da.

6. Bi urtetik gorako sortze aldia duten jardueratekin garbiak eta erregelamendu bidez denboran modu irregular nabarmen batez lortutakotzat jotzen direnak %40 murriztuko dira.

Etekin horiek zatika kobratzen badira, sortze aldia kalkulatzeko kontuan hartuko da zenbat urtez izan den zatikatze hori, erregelamenduak agintzen duen moduan betiere.

Murriztapen hori ez zaie aplikatuko lanbide edo enpresa jarduera batetik datozeinei, nahiz eta banan-banan aurretik aipatutako baldintzak betezen dituen denboraldi batean burututako jarduketan ondoriozkoak izan, modu erregularrean edo ohikoan era horretako etekinak ateratzen badituzte.

35. artikulua. Etekin garbia zuzeneko estimazioan zehazteko arauak.

Enpresa edo lanbide jardueren etekin garbia zuzeneko estimazioan zehazteko, Sozietateen gaineko zergaren arauak aplikatuko dira eta hurrengo arau bereziak ere kontuan hartuko dira:

1. Ez dira gastu kengarritzat joko Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 24.2 artikuluan aipatutako kontzeptuak, ez eta enpresaburu edo profesional beraren gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ere, foru lege honen 55. artikulua 1. idatz-zatian ezarritakoaren kalterik gabe.

Hala ere, gastu kengarritzat joko dira norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionalek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin sinatutako aseguru kontratuengatik prima edo kotizazio gisa ordaindutako kopuruak, baldin eta, Aseguru pribatuen antolamendu eta ikuskapenari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betebeharrak betetzeko, aipatutako Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezkotzat gisa erabiltzen badira, Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen gertakizunak estaltzen dituen zatian, urteko 4.500 euroko mugaz.

2. Subjektu pasiboaren ezkontidea edo seme-alaba adingabeak berarekin bizi direla eta normalean eta jarraian subjektu horrek garatutako enpresa edo lanbide jardueretan lan egiten dutela behar bezala egiaztatzen denean, bidezko lan kontratua eta Gizarte Segurantzako bidezko erregimeneko afiliazioa egonda, horietako bakoitzarekin hitzartutako ordainsariak kenduko dira etekina zehazteko, betiere horiek haien lanbide prestakuntzari eta lanari dagozkien merkatu balioak baino handiagoak ez badira.

Kopuru horiek ezkontideak edo seme-alaba adingabeek lanaren etekin gisa eskuratu dituztela ulertuko da.

3. Subjektu pasiboarekin bizi diren ezkontideak edo seme-alaba adingabeek jarduera zehatzerako balio duten ondasunak edo eskubideak lagatzen dituztenean, hitzartutako kontraprestazioa kenduko da jardueraren titularraren etekina zehazteko, betiere merkatu balioa baino handiagoa ez bada; kontraprestaziorik gabe, merkatu balioa kendu ahal izango da. Kontraprestazioa edo merkatu balioa ezkontidearen edo seme-alaba adingabeen kapitalaren etekintzat joko da.

Arau honetan xedatutakoa ez da aplikatuko, ondasunak eta eskubideak bi ezkontideenak direnean.

4. Zuzeneko estimazio sinplifikatua jarduera zehatz batzuei aplikatuko zaie, subjektu pasiboak garatutako jarduera guztietarako negozioen zifra zenbateko garbia aurreko urtean erregelamenduz zehazten den zifra baino handiagoa ez bada, hori aplikatzeari uko egin ezearan. Era berean, zenbait gastu kengarri zenbatzeko arau bereziak ezarri ahal izango dira.

5. Subjektu pasiboak berarentzat, ezkontidearentzat eta gutxiengo familiarra dela-eta murrizketarako eskubidea ematen dioten ondorengoentzat egin duen gaixotasun-asegurua primak gastu kengarritzat joko dira, etekin garbia zuzeneko estimazioko araubidearen arabera zehazterakoan. Aipatutako pertsona horietako bakoitzeko gehiengo kenkaria 500 eurokoa izango da.

36. artikulua. Etekin garbia estimazio objektiboan zehazteko arauak.

1. Etekin garbiaren estimazio objektiboko kalkulua artikulua honetan eta hori garatzen duten xedapenetan ezarritakoak arautuko du.

Arauzko xedapenak hurrengo arauari lotuko zaizkie:

1. Araubide hau arautzen duten arauetan ezarritako baldintzak biltzen dituzten subjektu pasibo-

ek araubide horren arabera zehaztuko dituzte beren etekinak, erregelamenduz ezartzen den bezala, aplikatzeari uko egin ezean.

2. Estimazio objektiboko araubidea Balio erantsiaren gaineko zergan ezarritako araubide bereziki ekin batera aplikatuko da, erregelamenduz horrela zehazten denean.

3. Estimazio objektiboko araubidearen aplikazio eremua, besteak beste, jardueren eta laboreen izaeraren arabera finkatuko da edo modulu objektiboak kontuan hartuta, hala nola eragiketen bolumena, langileen kopurua, erosketen zenbatekoa, ustategien azalera edo erabilitako aktibo finkoak, zergadunak egindako jarduera guztietarako erregelamenduz ezarritako mugei helduta.

Sarreren bolumenaren tamaina zenbatzeko, kontuan hartuko dira, subjektu pasiboak eginiko enpresa jardueri dagozkien eragiketak ez ezik, ezkontideak, ondorengo ahaideek eta aurreko ahaideek egindakoei, eta orobat, aurreko horietako edozein partaide den errenta-esleipeneko araubideko entitateek egindakoei dagozkienak ere, inguruabar hauek batera gertatzen badira:

– Enpresa jarduera berdinak edo berdintsuak egitea. Horretarako, berdintzat edo berdintsutzat joko dira Jarduera ekonomikoen gaineko zergan multzo berean sailkaturik daudenak.

– Jarduera horiek guztiek helbide komuna izatea eta giza baliabideak edo baliabide materialak partekatzea.

4. Estimazio objektiboko araubidea aplikatu ahal izango zaie errenta-esleipeneko araubidean dauden entitateei.

Estimazio objektiboko araubidea ezin izango zaie aplikatu enpresa edo lanbide jardueri, hein batean edo bere osotasunean, Espainiatik kanpo egiten badira.

5. Enpresa edo lanbide jardueren etekin garbia estimazio objektiboan kalkulatzeko, ikur, indize edo modulu orokorrak edo Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehaztutako zenbait jarduera sektoreri dagozkienak erabiliko dira.

6. Jarduera edo sektore zehatzetarako estimazio objektiboko sistemak aplikatzea arautu ahal izango da erregelamenduz, sistema horien arabera hainbat zergalditarako etekin garbien banakako zifrak ezarriko direla, subjektu pasiboek horiek onetsi ondoren.

7. Estimazio objektiboko araubideen aplikazioak ez du inoiz ekarriko, hala denean, jardueraren benetako etekinen eta araubide horiek zuzen aplikatetik datozen etekinen arteko aldeengatik sor

litezkeen ondare gehikuntza eta murrizketei kargarik ezartzea.

2. Subjektu pasiboak estimazio objektiboko araubidea aplikatzeari uko egin, eta zeharkako estimaziokoa aplikatu behar zaionean, enpresa edo lanbide jardueraren etekina zehazteko, ahal dela estimazio objektiborako ezarritako ikurrak, indizeak eta moduluak hartuko dira kontuan.

37. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueri lotutako ondare elementuak.

1. Enpresa edo lanbide jarduera bati lotutako ondare elementutzat joko dira honako hauek:

a) Subjektu pasiboaren jarduera garatzeko erabiltzen diren ondasun higiezinak.

b) Jardueraren zerbitzura dauden langileen ekonomia eta gizarte eta kultur zerbitzuetarako diren ondasunak, enpresa edo lanbide jardueraren titularraren aisialdi eta jolas ondasunak edo, oro har, bere erabilera pribatukoak lotu gabe daudela ulertuta.

c) Etekinak lortzeko beharrezkoak diren beste edozein ondare elementu. Entitate baten funts berekietan parte hartzea eta norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzea adierazten duten aktiboak ez dira inoiz ondare elementutzat joko.

Enpresa edo lanbide jardueraren xedeari hein batean bakarrik laguntzen dioten ondare elementuak direnean, afektazioa jarduera zehatzetarako benetan erabiltzen den zatira mugatuko da. Ondare elementuen afektazioa aintzat hartzeko irizpideak ezarri ahal izango dira erregelamenduz.

2. Lotutako ondare elementutzat joko dira, nahiz eta, senar-emazteak izatekotan, titulartasuna biena izan.

38. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueren etekinen indibidualizazioa.

Enpresa edo lanbide jardueren etekinak jardueri lotutako ekoizpen eta giza baliabideen norberaren konturako antolaketa ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean burutzen dutenek lortu dituztela ulertuko da. Enpresa edo lanbide jardueren titular gisa agertzen direnek baldintza horiek betetzen dituztela ulertuko da, bestelakoa adierazten duen frogarik egon ezean.

4. atala. Ondare gehikuntzak eta murrizketak.

39. artikulua. Kontzeptua.

1. Ondare gehikuntzak edo murrizketak dira subjektu pasiboaren ondarearen balioan egondako aldaketak, ondarearen osaeran egondako edozein

aldaketaren ondorioz agertzen direnak, foru lege honek etekintzat jo ezean.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren ondoretarako, subjektu pasiboaren ondarearen osaeran egondako aldaketatzat joko dira hurrengoak, besteak beste:

a) Edozein ondare elementuren kostubidezko edo irabazizko eskualdaketa.

b) Subjektu pasiboaren ondareari ondare elementuak gehitzea.

c) Subjektu pasiboaren ondarea osatzen duen elementu baten ordez, horrek zehaztu edo jardutearen ondorioz ondareari gehitzen zaizkion beste ondasun edo eskubide batzuk jartzea.

d) Betebehar ekonomikoak deuseztatzea.

3. Ondarearen osaeran aldaketarik ez dagoela esango da:

a) Komuna dena banatzen bada.

b) Konkisten edo irabazpidezko ondasunen ezkontza-sozietatea desegiten bada edo partaidetzako ezkontza-araubide ekonomikoa suntsitzen bada.

c) Ondasun erkidegoak desegiten badira edo komuneroak banantzen badira.

Idatz-zati honek agertutako kasuek ez dute inoiz ekarriko jasotako ondasun edo eskubideen balioak eguneratzea.

4. Ondare gehikuntza edo murrizketarik ez dagoela esango da:

a) Kapital murrizketetan. Kapital murrizketak, xedea duena duelarik, balio edo partaidetzak amortizatzea eragiten duenean, amortizatutzat joko dira eskuratutako lehenak, eta horien erosketa balioa proportzionalki banatuko da subjektu pasiboaren ondarekoak izaten segitzen duten gainerako balio homogeneoen artean. Kapital murrizketak subjektu pasiboaren balio edo partaidetza guztiei maila berean eragiten ez dienean, eskuratutako lehenei dagokiela joko da.

Kapital murrizketaren xedea ekarpenak itzultzea denean, murrizketaren zenbatekoak edo jasotako ondasun edo eskubideen ohiko merkatu balioak gutxitu egingo du lotutako balio edo partaidetzen erosketa balioa, aurreko lerrokadaren arauekin bat, deuseztatu arte. Sor litekeen gehiegizko kopurua higigarrien kapitalaren etekin gisa gehituko da, foru lege honen 28. artikuluan jaulkipen primaren banaketarako ezarritako modu berean, murrizketa hori banatu gabeko mozkinetatik etorri ezean; izan ere, kasu horretan kontzeptu horren-

gatik jasotako zenbateko guztiek zergak ordainduko dituzte, aipatutako artikulua a) letran ezarritakoaren arabera.

Ondore horietarako, ulertuko da kapitalaren murrizketek, beren helburua edozein dela ere, lehenik eta behin eragiten diotela banatu gabeko mozkinetatik sortu ez den kapital sozialaren zatia-ri, deuseztatu arte.

b) Subjektu pasiboaren heriotza dela-eta, irabazizko eskualdaketat.

c) Enpresa edo lanbide ondare osoaren "inter vivos" irabazizko eskualdaketa egiten bada edo Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33.1.b) artikuluan araututako kenkaria aplikatzen zaien entitateetako partaidetzena egiten bada, baldintza hauek betez gero:

a') Eskualdaketa lerro zuzeneko ondorengo ahaide baten edo gehiagoren alde egitea, edo hirugarren mailara arteko -maila horretakoak barne- odol bidezko zehar ahaide baten edo gehiagoren alde.

b') Eskualdatzailea enpresa edo lanbide jardueran aritua izatea eskualdaketa egiten den egunaren aurreko bost urteetan, gutxienez, edo, letra honetan aipatzen diren entitateetako partaidetzak baldin badira, eskualdatzaileak eskualdaketa egin baino bost urte lehenago eskuratuak izatea eta eskuratzailleak edo eskuratzailleek jarraitzea eskualdatzaileak egiten duen jarduera berean, edo partaidetza horiei gutxienez bost urtez eustea, epe horretan hiltzen badira izan ezik. Halaber, eskuratzailleak edo eskuratzailleek ez dute zilegi erabilera-egintzarik edo sozietate-eragiketarik egitea, baldin eta zuzenean nahiz zeharka erosketa balioaren gutxitze nabarmena ekar badezakete.

c') Eskualdatzaileak hirurogei urte edo gehiago izatea edo, erabateko baliaezintasun edo baliaezintasun handiko egoeran egotea.

d') Eskualdaketa egin zen ekitaldiari dagokion zergaren aitortzean eskualdatzaileak Administrazioari gorabehera hori azaltzea.

d) Ezgaitasunak dituzten pertsonentzat eraturako ondare babestuei egindako ekarpenak direla-eta.

5. Zergatik salbuetsita egongo dira hurrengo egoeretan agertzen diren ondare gehikuntzak:

a) Foru lege honen 62. artikulua 4. idatz-zatian aipatutako dohaintzen ondorioz agertuak.

b) Hirurogeita bost urtetik gorakoek edo menpekotasun larriko egoeran nahiz menpekotasun

handikoan dauden pertsonen ohiko etxebizitza eskualdatzen dutenean agertuak, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatzen denaren arabera.

c) Zerga zorren ordainketaz agertuak, foru lege honen 83. artikulua 3. idatz-zatian ezarritako kasuetan.

d) Hurrengo baldintzak biltzen dituzten kostubidezko eskualdaketen ondorioz agertuak:

1. Aipatutako eskualdaketen zenbateko osoa 3.000 eurotik gorakoa ez izatea, urte naturalaren barnean.

2. Ondare gehikuntzaren barnean karga jaso dezakeen zenbatekoa eskualdaketa zenbateko osoaren %50etik gorakoa ez izatea. Ondare gehikuntzaren barnean karga jaso dezakeen zenbatekoa portzentaje hori baino handiagoa denean, gehiegizko zenbatekoari baino ez zaio kargarik ezarriko.

6. Ez dira ondare murrizketatzat joko hurrengoak:

a) Justifikatu gabeak.

b) Kontsumoaren ondorioz sortutakoak.

c) "Inter vivos" egintzak edo liberalitateak direla-eta, irabazizko eskualdaketen ondorioz sortutakoak.

d) Jokoan izandako galeren ondorioz sortutakoak.

e) Ondare elementuen eskualdaketen ondorioz sortutakoak, eskualdatzaileak eskualdaketa egin duen egunetik urtebeteko epearen barnean berriro eskuratzen baditu. Murrizketa hori integratu egingo da, ondare elementuaren ondorengo eskualdaketa egiten denean.

f) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onarturiko balio edo partaidetzak eskualdatzetik sortutakoak, eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo bi hilabeteen barnean subjektu pasiboak balio homogeneoak eskuratu dituztenean.

g) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartu ez diren balio edo partaidetzak eskualdatzetik sortutakoak, eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo urtearen barnean subjektu pasiboak balio homogeneoak eskuratu dituztenean.

Aurreko f) eta g) letretan ezarritako kasuetan, ondare murrizketak integratu egingo dira, subjektu pasiboaren ondarean egoten jarraitzen duten balioak eskualdatu ahala.

40. artikulua. Gehikuntza edo murrizketen zenbatekoa. Irizpide orokorra.

1. Ondare gehikuntza edo murrizketen zenbatekoa honako hau izango da:

a) Kostubidezko edo irabazpidezko eskualdaketen kasuan, ondare elementuen erosketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldea.

b) Gainerako kasuetan, ondare elementuen merkatu balioa edo zati proportzionalena, hala denean.

2. Eskualdatutako ondare elementuetan inbertsioak edo hobekuntzak egin badira, osagai bakoitzari dagokion besterentze balioaren zatia bereziko da.

41. artikulua. Erosketa eta eskualdaketa balioak.

1. Erosketa balioa honako hauen batura izango da:

a) Erosketa egin deneko zenbateko erreala, edo hala balitz, ondorengo artikulua aipatzen duen balioa.

b) Erositako ondasunetan eginiko inbertsio eta hobekuntzen kostua, eta erosleak erosketa egiteagatik ordaindu dituen gastuak eta zergak, interesak izan ezik.

Balio hori gutxituko da, bidezkoa denean, erregelamenduz zehazten diren amortizazioen zenbatekoan.

2. Besterentzea egin deneko zenbateko errealaren balioa eskualdaketa izango da, edo, hala balitz, ondoko artikulua aipatzen duena. Balio horri kenduko zaizkio aurreko idatz-zatiaren b) letrak aipatzen dituen gastuak eta zergak, eskualdaketa egiten duenak horiek ordaindu bezain laster.

3. Besterentze balioaren zenbateko erreala jasotakoa izango da, betiere merkatuan dagoen ohiko baliotik beherakoa ez bada; hala ere, horrela balitz, merkatukoa aintzat hartuko da.

42. artikulua. Irabazizko erosketa edo eskualdaketa.

Erosketa edo eskualdaketa irabazizko helburuarekin egiten denean, balioak Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren arauak aplikatuz horiei dagozkienak izango dira, merkatu balioa gainditu gabe.

Aipatutako balioei aurreko artikulua 1. idatz-zatiaren b) letran eta 2. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie, hala denean.

Foru lege honen 39. artikulua 4. idatz-zatiaren c) letrak aipatzen dituen irabazizko erosketetan, dohaintza-hartzailea agertuko da dohaintza-emailearen ordez, ondasun horien erosketa balioei eta egunei dagokienez.

43. artikulua. Berariazko arauak.

1. Hurrengoek sortutako kostubidezko ondare aldaketak daudenean:

a) Sozietate nahiz entitateen funts propioetako partaidetzaren erakusgarri diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan, finantza baliabideen merkatuari buruzkoan, definitutako balore-merkatu batean negoziatzeko onartutako balioena denean, gehikuntza edo murrizketa zenbatuko da erosketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldearen arabera. Azken balio hori eskualdaketa burutzen den egunean merkatu horietan duten kotizazioak finkatuko du edo, kotizazioa baino handiagoa denean, hitzartutako prezioak.

Hein batean liberatutako akzioen kasuan, horien erosketa balioa subjektu pasiboak benetan ordaindutako zenbatekoarena izango da.

Erabat liberatutako akzioen kasuan, horien erosketa balioa eta orobat horien sorburu direnekoena, kostu osoa zati titulu kopurua, hala zaharrena nola liberatuena, eginez kalkulatu da.

b) Aurreko letrak aipatzen dituen merkatuetan negoziatzeko onartu ez diren eta sozietate edo entitateetan funts berekietako partaidetzaren erakusgarri diren balioei dagokienez, gehikuntza edo murrizketa erosketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldearen arabera zenbatuko da.

Eskualdaketa baliozat joko da hurrengo bieta-tik handiena, benetan ordaindu dena merkatuko ohiko egoeran zati independenteek hitzartutako zuketarekin bat datorrela adierazten duen frogarik egon ezean:

a') Zergaren sorrarazpen egunaren aurretik amaitutako azken balantzearen ondoriozko balio teorikoa.

b') Zerga sortzen den egunaren aurretik amaitutako hiru ekitaldi sozialen emaitzen batezbestekoa %20an kapitalizatetik datorrena. Azken ondore horretarako, mozkin gisa zenbatuko dira banatutako dibidenduak eta erreserbetarako esleipenak, balantzeak erregularizatu edo eguneratzeko direnak izan ezik.

Horrela kalkulatuak eskualdaketa balioa kon-tuan hartuko da, erosleari dagokion balioen edo partaidetzen erosketa balioa zehazteko.

Hein batean liberaturiko akzio edo partaidetza sozialak direnean, beren erosketa balioa izango da subjektu pasiboak benetan ordainduriko zenbatekoa. Erabat liberaturiko akzio edo partaidetza sozialak direnean, erosketa balioa, bai horienak, bai horien jatorri direnenak, honela aterako da: kostu osoa zati titulu kopurua, tituluak zaharrak nahiz liberatuak izan.

c) Foru lege honen 52. artikuluan aipatzen diren inbertsio kolektiboko erakundearen kapitalaren edo ondarearen erakusgarri diren akzioen edo bestelako partaidetzen eskualdaketa edo diru-itzulketaren kasuan, gehikuntza edo murrizketa zenbatuko da erosketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldearen arabera; azken hori eskualdaketa edo diru-itzulketa egiten den egunean duen likidazio balio aplikagarriak zehaztuko du edo, horrelakorik ez izatera, argitaratutako azken likidazio balioak. Likidazio baliorik ez izatera, zergaren sorrarazpen egunaren aurretik amaitutako azken ekitaldiari dagokion balantzearen ondoriozko balio teorikoa hartuko da.

Partaidetzen diru-itzulketa desberdinen kasuetan, horrela kalkulatuak eskualdaketa balioa ez da ondorengo bi hauetako handiena baino txikiagoa izango:

a') Eskualdaketa benetan itundutako prezioa.

b') Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan, finantza baliabideen merkatuari buruzkoan, definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialeko kotizazio balioa, eta, bereziki, Baloreen merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean ezarritakoaren arabera baimendutako balioen negoziazio sistema antolatutako kotizazio balioa.

Erosketa balioa zehazteko, 1. idatz-zati honen a) letran xedatutakoa aplikatuko da, bidezkoa denean.

Aurreko lerroketan xedatutakoa gorabehera, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduaren 49. artikuluan aipatzen diren inbertsio funts kotizatutako partaidetzen eskualdaketa, balore burtsan egiten diren horietan, eskualdaketa balioa idatz-zati honen a) letran ezarri bezala zehaztuko da.

d) Sozietate eta bestelako entitateei egin, eta diruzkoak ez diren ekarpenei dagokienez, gehikuntza edo murrizketa ekarritako ondasun edo

eskubideen erosketa balioaren eta hurrengo zenbatekoetako handienaren artean dagoen aldeak zehaztuko du:

Lehenbizikoa: Ekarpeneren bidez jasotako akzio edo partaidetza sozialen balio nominala edo, hala denean, horri dagokion zatia. Balio horri jaulkipen primen zenbatekoa gehituko zaio.

Bigarrena: Jasotako tituluek ekarpena egiten den egunean edo aurreko egunean duten kotizazio balioa.

Hirugarrena: Ekarrirako ondasun edo eskubidearen merkatu balioa.

Horrela kalkulaturako eskualdaketa balioa kontuan hartuko da, diruzkoa ez den ekarpeneren ondorioz jaso diren tituluen erosketa balioa zehazteko.

e) Bazkideak banandu edo sozietateak desegiteari dagokionez, ondare gehikuntza edo murrizketatzat joko da likidazio sozialaren kuotaren balioaren edo jasotako ondasunen merkatu balioaren eta bidezko kapital titulu edo partaidetzaren erosketa balioaren arteko aldea, sozietateari dagozkien kalterik gabe.

Sozietateak zatitu, bat egin edo xurgatzeari dagokionez, subjektu pasiboaren ondarearen gehikuntza edo murrizketa zenbatuko da, bazkidearen partaidetzaren erakusgarri diren titulu, eskubide edo balioen erosketa balioaren eta hurrengo bietatik handiena denaren arteko aldearen arabera.

a') Jasotako tituluen edo eskubideen merkatu balioa, esku-dirutan.

b') Emandakoen merkatu balioa.

f) Eskualdaketaari dagokionez, lagatzaileak ondare gehikuntza edo murrizketa zenbatuko du, jabeari edo gozamedunari dagokion partaidetza kenduta, eskualdaketaari dagokion zenbatekoaren arabera.

Eskualdatzeko eskubidea prezioaren bidez eskuratu denean, hori erosketa baliotzat joko da.

g) Aseguratutako ondare elementuen galera edo ezbeharretarako kalte-ordain edo kapitalei dagokienez, ondare gehikuntza edo murrizketatzat joko da jasotako kopuruaren eta kalteari dagokion erosketa balioaren zati proportzionalaren arteko aldea. Kalte-ordaina esku-dirutan egiten ez denean, jasotako ondasun, eskubide edo zerbitzuen merkatu balioaren eta kalteari dagokion erosketa balioaren zati proportzionalaren arteko aldea zenbatuko da. Ondare gehikuntza zergadunaren

ondarearen balioan gehikuntza dakarrenean baino ez da zenbatuko.

Ezbeharra jasan duen elementua subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza bada, foru lege honen 45. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

h) Ondasunak edo eskubideak trukatzeari dagokionez, balioen trukea barne, ondare gehikuntza edo murrizketa zehaztuko da, lagatzen den ondasunaren edo eskubidearen erosketa balioaren eta hurrengo bietatik handiena denaren arteko aldearen arabera:

a') Emandako ondasun edo eskubidearen merkatu balioa.

b') Trukean jasotako ondasun edo eskubidearen merkatu balioa.

i) Biziarteko edo aldi baterako errentak deuseztatzeari dagokionez, ondare gehikuntza edo murrizketa jasotako kapitalaren erosketa balioaren eta benetan ordaindutako errenten baturaren arteko aldearen arabera zenbatuko da, errentak ordaindu behar dituenarentzat.

j) Aldi baterako edo biziarteko errenta baten truke ondare elementuak eskualdatzeari dagokionez, ondare gehikuntza edo murrizketa errentaren finantza arloko gaur eguneko aktuario-balioaren eta eskualdatutako ondare elementuen erosketa balioaren arteko aldearen arabera zehaztuko da.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan, finantza baliabideen merkatuei buruzkoan, definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialeko batean negoziatzeko onartu ez diren balioetatik datozen harpidetza-eskubideen eskualdaketaari dagokionez, lortutako zenbatekoa ondare gehikuntzatzat hartuko da eskualdaketa gertatzen den zergaldian.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan, finantza baliabideen merkatuei buruzkoan, definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialeko batean negoziatzeko onartu ez diren balioetatik datozen harpidetza-eskubideak izanda, beren zenbatekoak balio horien erosketa balioa gutxituko du.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa aplikatuko da sozietate baten akzioen hedatze maila bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatzeko onartu aurretik areagotzeko xedearekin egiten diren kapital handitzei dagozkien harpidetza-eskubideen eskualdaketen kasuan. Onartzeko eskabidea kapital handitzea egiten denetik bi hilabeteko epean ez aurkezteak, onartzeko eskabide

hori erretiratzeak edo hasten denetik bi urte iragan aurretik negoziatuz baztertzeko ekarriko du letra honen lehenbiziko lerrokadan aurreikusirik tratamenduaren aplikazioa.

l) Higiezinaren gaineko erabilera edo gozamen eskubide erreal baten titularrak bere eskualdaketa egiten duenean edo hori suntsitzen denean, ondare gehikuntza edo murrizketa kalkulatzeko, erosketak balioa titularrak higiezinaren kapitalaren etekinik jaso ez duen aldiaren arabera gutxituko da.

m) Eskualdaketa batetik ez datozen ondasun edo eskubideak gehitzeari dagokionez, ondare gehikuntza gisa zenbatuko da ondasun edo eskubide horien merkatu balioa.

n) Gerokoen eta aukeren merkatu ofizialak arautzen dituen abenduaren 20ko 1814/1991 Errege Dekretuak araututako gerokoen eta aukeren merkatuetan egindako eragiketei dagokienez, ondare gehikuntza edo murrizketatzat joko da lortutako zenbatekoa, eragiketak subjektu pasiboak egindako enpresa jarduerak garatzeko itundu den beste nagusi bat estaltzea ez dakarrenean; izan ere, kasu horretan, kapitulu honen 3. atalean ezarritakoaren arabera ordainduko dituzte zergak.

2. Balio homogeneoei buruzko ondare aldaketan kasuan, honako irizpide hau hartuko da: subjektu pasiboak eskualdatutakoak lehenbizi eskuratutakoak dira. Halaber, harpidetza-eskubideak osorik eskualdatzen ez badira, ulertuko da eskualdatutakoak lehenbizi eskuratutakoak direla.

Erabat liberatutako akzioak baldin badira, haien antzinatasuna erabakitzeke, haien sorburu diren akzioena bera dela ulertuko da.

Balio homogeneoen kontzeptua erregelamenduz zehaztuko da.

3. Artikulu honen 1. idatz-zatiaren d) eta e) letretan xedatutakoak Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen X. tituluaren IX. kapituluaren araututako bat egin, zatitu, aktiboak ekarri, balioak trukatu eta Europar Batasuneko estatu kide bateko Europako Sozietate edo Europako Kooperatiba baten helbide soziala beste estatu kide batean jartzeko araubide berezian ezarritakoari kalterik egiten ez diola ulertzen da.

44. artikulua. Justifikatu gabeko gehikuntzak.

Justifikatu gabeko ondare gehikuntzatzat joko dira zenbait ondasun edo eskubide, horiek eduki, aitortu edo erostea zergadunak aitortutako errenta edo ondarearekin bat ez datorrenean, baita ez dauden zorrak zerga horren edo Ondarearen gai-

neko zergaren edozein aitortpenetan sartzea eta liburu edo erregistro ofizialetan agertzea ere.

Justifikatu gabeko ondare gehikuntzak azaltzen diren zergaldiko likidazio-oinarri orokorrean gehituko dira, subjektu pasiboak preskripzio aldiaren aurretik ondasun edo eskubide horien titularrak izan dela behar bezala frogatu ezean.

45. artikulua. Berrinbertsioagatik salbuespena.

1. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortutako ondare gehikuntzak kargatu gabe utzi ahal izango dira, betiere eskualdaketa bidez lortutako zenbateko osoa ohiko beste etxebizitza bat erosteko edo zaharberritzeko berrinbertituz gero, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta.

Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketa jasotako guztia baino txikiagoa bada, berrinbertitutako kopuruari dagokion lortutako ondare gehikuntzaren zati proportzionala baino ez da zergapetu gabe utziko.

Ohiko etxebizitza izango da foru lege honen 62. artikuluan 1. idatz-zatian zehaztutakoa.

2. Enpresa edo lanbide jardueri lotuta dauden ibilgetu material edo ez-materialeko elementuak eskualdatzean agerian geratzen diren ondare gehikuntzei ez zaie kargarik ezarriko, betiere besterentzearen zenbateko osoa arestian aipatutako elementuetatik edozeinetan berriz inbertitzen bada Sozietateen gaineko zergaren ondoretarako ezarritako baldintza berberak errespetatuta.

Egindako berrinbertsioaren zenbatekoa besterentzearen zenbateko osoa baino txikiagoa izanez gero, kargatik kanpo geratuko da inbertitutako kopuruari dagokion ondare gehikuntzaren zati proportzionala.

46. artikulua. Ondare gehikuntza eta murrizketen indibidualizazioa.

Ondare gehikuntzak eta murrizketak, Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, sorburu dituzten ondasun, eskubide eta gainerako ondare elementuen titularrak diren subjektu pasiboek lortu dituztela ulertuko da.

Justifikatu gabeko ondare gehikuntzak horiek agertzen dituzten ondasun edo eskubideen titulatasunaren arabera esleituko dira.

Aurreko eskualdaketa batetik ez datozen ondasun eta eskubideen erosketak (adibidez, jokoaren irabaziak) horiek lortzeko eskubidea daukan edo

horiek zuzenean irabazi dituen pertsonaren ondare gehikuntzatat joko dira.

5. atala. Errenta-esleipena, nazioarteko zerga gardentasuna eta inbertsio kolektiboko erakundeak.

1. azpiatala. Errenta-esleipena

47. artikulua. Errenta-esleipeneko araubideko entitateak.

Errenta-esleipeneko araubideko entitateak izango dira foru lege honen 11. artikuluan aipatutakoak eta, bereziki, atzerrian eratutakoak, baldin eta beren izaera juridikoa Espainiako legeen arabera eraturiko errenta-esleipeneko araubideko entitateenaren bera edo haren antzekoa bada.

Errenta-esleipeneko araubideko entitateei dagozkien errentak bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei esleituko zaizkie, hurrenez hurren, 1. azpiatal honetan ezarritakoari jarraikiz.

48. artikulua. Esleitutako errentaren kalifikazioa.

Errenta-esleipeneko araubideko entitateen bazkide, oinordeko, komunero edo partaide bakoitzari esleitzen zaion errentaren izaera izango da errenta sortzen duen jarduera edo iturriaren arabera.

49. artikulua. Errenta esleigarriaren kalkulua.

1. Bazkide, oinordeko, komunero edo partaide bakoitzari esleitu beharreko errentak kalkulatzeko, honako arau hauek aplikatuko dira:

1. Errentak zerga honen arauari jarraikiz zehaztuko dira, eta 25.2, 32.2 eta 34.6 artikuluetan ezarritako murriztapenak ez dira aplikagarriak izango. Hona hemen zehaztapenak:

a) Sozietateen gaineko zergari buruzko araudiari jarraikiz ezarriko da errenta esleigarria, errenta-esleipeneko araubideko entitateko kide guztiak zerga horren subjektu pasibo badira, edo establezimendu iraunkor baten bitartez jarduten duten Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergapekoak badira.

b) Establezimendu iraunkorrik gabeko Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaindu behar dutenei esleitu ahal zaien errenta kalkulatzeko, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Legearen testu bateginaren IV. kapituluaren ezarritakoari jarraituko zaio.

c) Foru lege honen zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa ez da aplikatuko errenta-esleipeneko araubideko entitateko subjektu pasiboari esleitu ahal zaien errenta, ondareko osagaiak eskualdatzearen ondorioz sortutako ondare gehikuntzatik datorrena, alegia, kalkulatzeko, baldin eta Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak badira edo establezimendu iraunkor baten bidez jarduten duten Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergapekoak, edo establezimendu iraunkorrik ez badute eta pertsona fisikoak ez badira.

2. Atzerrian eratutako errenta-esleipeneko araubideko entitateko bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei, hau da, zerga honen edo Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboari esleitu ahal zaien errentaren zatia aurreko lehen arauan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

3. Herrialde berean eta iturri beretik lortutako errenta positiboak gaintitzen dituzten errenta negatiboak ez dira kontuan hartuko, errenta horiek baldin badatoz Espainia ez den herrialde batetik eta Espainiak herrialde horrekin ezarpen bikoitza saihesteko Hitzarmenik (informazio trukerako klausularekin) ez badu. Gehiegizko zenbatekoa hurrengo lau urteetan zenbatuko da, arau honetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Errentak bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei esleituko zaizkie, kasu bakoitzean aplikagarri diren arau edo itunen arabera, eta horiek Zerga administrazioari modu fede-emailean agertzen ez bazaizkio, zati berdinetan esleituko dira.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa galarazi gabe, errenta-esleipeneko araubideko entitate horiek enpresa edo lanbide jarduerak burutzen badituzte, jarduera horiei lotutako ekoizpen eta giza baliabideen norberaren konturako antolaketa ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean burutzen dutenei esleituko zaizkie errenta horiek.

3. Zerga honen subjektu pasiboak diren errenta-esleipeneko araubideko entitateko kideek, aitorpenean, foru lege honen 25.2, 32.2 eta 34.6 artikuluetan ezarritako murriztapenak izan ahalko dituzte.

4. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek eta establezimendu iraunkor baten bidez jarduten duten Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergapekoak, inbertsio kolektiboko erakunde bateko akzioak edo partaidetzak eskuratzen dituen errenta-esleipeneko araubideko entitate bateko kideak badira, zerga oinarrian sartuko dute akzio edo partaidetza horietatik sortutako errenta kontabilizatu en edo kontabilizatu beharreko errenten zenbatekoa. Halaber, zerga oinarri horretan sartuko dute hirugarrenei errenta-esleipeneko araubideko enti-

tatearen alde sortutako norberaren kapitalak laga-
tzeagatik lortutako higigarrien kapitalaren etekinen
zenbatekoa.

50. artikulua. Konturako ordainketak.

1. Martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Erre-
ge Dekretuaren bidez onetsitako Ez-egoiliarren
errentaren gaineko zergari buruzko Legearen testu
bateginaren IV. kapituluaren ezarritakoa galarazi
gabe, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga-
ren arauari jarraikiz, atxikipenari edo konturako
sarrerei lotuta egongo dira errenta-esleipeneko
araubideko entitateei ordaintzen zaizkien errentak,
aintzat hartu gabe haietako kide guztiak edo
batzuk zerga horren edo Sozietateen gaineko zerga-
ren subjektu pasiboak edo Ez-egoiliarren erren-
taren gaineko zergaren ordaintzaile diren ala ez.

2. Kenkariak aplikatzeko, bazkide, oinordeko,
komunero edo partaideei zerga atxikipen edo kon-
turako sarrera horiek esleituko zaizkie, errentak
esleitzen zaizkien proportzio berean. Aipaturikoen
ezarpen pertsonala egitean burutuko dira kenkari-
ak.

2. azpiatala. Nazioarteko zerga gardentasuna

51. artikulua. Nazioarteko zerga gardentasu-
neko araubideko errenta-egozpena.

1. Subjektu pasiboek Espainiako egoiliarra ez
den entitate batek lortutako errenta positiboa ego-
tziko dute, aipatutako errenta artikuluko honen 2. ata-
lean ezarritako motetako bati egokitu eta hurrengo
inguruabarrak bete bezain laster:

a) Beraiek bakarrik, edo Sozietateen gaineko
zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru
Legearen 28. artikuluko xedatutakoaren arabera
lotetsitako entitateekin batean edo beste subjektu
pasibo batzuekin batean, linea zuzen edo alboko,
odolkideko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren
mailara arte -hori barne- ahaidetasunagatik loturi-
koak, Espainiako lurraldean egoiliarra ez den enti-
tatearen kapitalaren, funts berekien, emaitzen edo
boto eskubideen %50eko edo hortik gorako partai-
detza izatea, haren ekitaldi soziala amaitzen den
egunean.

Lotutako entitate ez egoiliarrek duten partaide-
tza Espainiako lurraldean egoiliarren diren pertso-
nengan edo entitate lotuetan duen zeharkako partai-
detzaren zenbatekoaren arabera zenbatuko da.

Sartu beharreko errenta positiboaren zenbate-
koa emaitzetako partaidetzaren proportzioan eza-
rriko da eta, halakorik ezean, entitatearen kapital,
funts bereki edo boto eskubideetako partaidetza-
ren proportzioan.

b) Espainiako lurraldean egoiliarra ez den enti-
tateak ordaindutako zenbatekoa, Sozietateen gai-
neko zergaren izaera bera edo antzekoa duen zer-
gagatik 2. idatz-zatian ezarritako errenta motetako
bati egotz dakioketena, aipatutako zergaren arauen
arabera egokia zen %75etik beherakoa izatea.

2. Hurrengo iturrietako bakoitzetik datorren
errenta positiboa baino ez da egotziko:

a) Hiri- zein landa-ondasun higiezinaren edota
horiei dagozkien eskubide errealeen titulartasuna,
baldin eta foru lege honen 37. artikuluan xedatuta-
koarekin bat enpresa jardueraren bati lotuta ez
badaude, edota horien erabilera egoiliar ez diren
entitateei lagata ez badago, titularra den sozietate-
multzo berekoak izanik Merkataritza Kodearen 42.
artikuluaren ildotik.

b) Edozein entitate motaren funts berekietako
partaidetza eta foru lege honen 28. eta 29. artiku-
luek aipatzen dituzten kapital propioak hirugarre-
nei lagatzea.

Ez da letra honetan sartuko ondorengo finan-
tza-aktiboetatik datorren errenta positiboa:

a') Enpresa jardueretan aritzearen ondorioz
sorrarazten diren legezko eta araudizko betebehar-
rak betetzeko direnak.

b') Enpresa jarduerak garatzean ezarritako
kontratu-harremanen ondorioz sortzen diren kreditu
eskubideak biltzen dituztenak.

c') Balore-merkatu ofizialetan bitartekaritza jar-
dueretan aritzearen ondorioz sortu direnak.

d') Kreditu eta aseguru entitateek beraien
enpresa jardueretan aritzearen ondorioz dauzkate-
nak, c) letran ezarri dena galarazi gabe.

Norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzen
datorren errenta positiboa c) letran aipatutako diren
kreditu- eta finantza-jarduerak burutzetik datorrela
ulertuko da, lagatzailea eta lagapen-hartzailea
sozietate-talde batekoak direnean Merkataritzako
Kodearen 42. artikuluko ildotik eta lagapen-har-
tzailearen diru-sarrerak, %85ean gutxienez,
enpresa jardueren egikaritzatik datorrenean.

c) Kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzuak
(esportazio jarduerari zuzenean lotutakoak izan
ezik) emateko jarduerak, Espainiako lurraldean
egoiliarren diren eta, Sozietateen gaineko zergari
buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea-
ren 28. artikuluko ildotik, lotuta dauden pertso-
nek edo entitateek zuzenean edo zeharka eginda-
koak, egoiliar horiengan zergen aldetik ken
daitezkeen gastuak zehaztu bezain laster.

Ez da errenta positiboa sartuko, egoiliarra ez den entitateak egindako kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzuak (esportazio jardueri zuzenean lotutakoak izan ezik) emateko jardueretatik datozen diru-sarreraren %50 baino gehiago, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 28. artikulua ildotik, lotuta ez dauden pertsona edo entitateekin egindako eragiketetatik datozenean.

d) a) eta b) letretan aipatzen diren eta ondare gehikuntzak edo murrizketak sortzen dituzten ondasun eta eskubideen eskualdaketak.

Ez dira sartuko aurreko a), b) eta d) letretan ezarritako errentak, egoiliarra ez den entitateak lortutakoak, zuzenean edo zeharka %5eko partaidetza baino handiagoa daukaten entitateetatik datozen neurrian, hurrengo bi baldintzak betetzen direnean:

a') Egoiliarra ez den entitateak partaidetzak zuzendu eta kudeatzea, baliabide materialak eta giza baliabideak behar bezala antolatuz.

b') Errentak ematen dituzten entitateen diru-sarrerak enpresa jardueren ekitalditik etortzea, %85ean, gutxienez.

Ondore horietarako, a), b) eta d) letretan ezarri diren, eta aurreko b') letraren baldintza betetzen duten eta egoiliarra ez den entitateak zuzenean edo zeharka %5eko partaidetza baino handiagoa duten entitateetan sortzen diren errentak enpresa jardueretan ariztetik datozela ulertuko da.

3. Ez dira egotziko aurreko idatz-zatiaren a), b) eta d) letretan ezarritako errentak, beren zenbatekoen batura errenta osoaren %15etik edo egoiliarra ez den entitatearen guztizko diru-sarreraren %4tik beherakoa denean.

Aurreko idatz-zatian ezarritako mugak Espainiako lurraldean egoiliarrak ez diren eta, Merkataritza Kodearen 42. artikulua ildotik, sozietate-talde bateko kideak diren entitate guztiek lortutako errentari edo diru-sarrerari buruzkoa izan daitezke.

Ez da inoiz egotziko egoiliarra ez den entitatearen errenta osoa baino handiagoa den kopururik.

Pertsona fisiko egoiliarraren zerga oinarrian ez da egotziko egoiliarra ez den sozietateak sartu beharreko errentaren zatiagatik benetan ordaindu duen Sozietateen gaineko zergaren izaera bera edo antzekoa duen zergarik.

2. idatz-zatian aipatutako iturrietako bakoitzaren errenta positiboak zerga oinarriaren zati orokorrean egotziko dira, foru lege honen 53. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. Espainiako lurraldean egoiliarrak diren eta 1. idatz-zatiaren a) letran bilduta dauden pertsona fisikoak egoztera behartuta daude, egoiliarra ez den entitatean zuzenean edo egoiliarra ez den beste entitate baten bitartez zeharka parte hartzen badute. Azken kasu horretan, errenta positiboaren zenbatekoa zeharkako partaidetzari dagokiona izango da.

5. Egozpena Espainiako lurraldean egoiliarra ez den entitateak bere ekitaldi soziala amaitzen duen eguna barne hartzen duen zergaldian egingo da; ondore horietarako, zergaldia ezin izango da hamabi hilabetekoa baino luzeagoa izan, subjektu pasiboak ekitaldi horri dagozkion kontuak onesten diren eguna barne hartzen duen zergaldian sartzea aukeratu ezean, betiere ekitaldia amaitu denetik sei hilabete baino gehiago igaro ez badira.

Egiten den aukera adierazi beharko da ondorioak eragingo dituen zergaren lehenbiziko aitorpe-nean, eta hiru urtez mantendu beharko da.

6. Zerga oinarrian egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legean eta zerga oinarria zehazteko gainerako xedapenetan ezarritako printzipio eta irizpideen arabera kalkulatu da. Errenta osotzat joko da irizpide eta printzipio horiek aplikatetik datorren zerga oinarriaren zenbatekoa.

Ondore horietarako, Espainiako lurraldean egoiliarra ez den entitatearen ekitaldi sozialaren amaieran indarrean dagoen truke tasa erabiliko da.

7. Ez dira egotziko dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, egotzi den errenta positiboari dagokion zatian. Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei.

Erreserbak banatzerakoan, itun sozialean bildutako izendapena aintzat hartuko da eta erreserba horiei abonatutako azken kopuruak aplikatuzat joko dira.

Errenta positiboa behin baino ezin izango da egotzi, bere forma eta hori agertzen duen entitatea edozein direla ere.

8. Kuota osotik kendu ahal izango da dibidendu edo mozkinetako partaidetzen banaketagatik atzerrian benetan ordaindu den zerga edo karga, ezarpen bikoitza eragozteko hitzarmen baten edo herrialde edo lurralde zehatzeko barne legediaren arabera gauzatutakoa, zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatian.

Kenkari hori egingo da, nahiz eta zergak sartu den zergaldia ez denei dagozkien.

Erregelamenduz paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurraldeetan ordaindutako zergak ez dira inoiz kenduko.

Kenkari hori ezin izango da zerga oinarrian egotzitako errenta positiboagatik ordaindu beharko litzatekeen kuota osoa baino handiagoa.

9. Partaidetzen eskualdaketaren ondoriozko errenta, zuzeneko zein zeharkakoa, kalkulatzeko, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hogeita seigarren xedapen iragankorraren 7. idatz-zatiaren a) letran bildutako arauak erabiliko dira, zerga oinarrian egotzitako errenta positiboari dagokionez. Agindu horrek aipatzen dituen onura sozialak egotzitako errenta positiboari dagozkionak izango dira.

10. Artikulu honetan ezarritakoa aplika dakiekeen subjektu pasiboek, Pertsona fisikoen gaineko errentari buruzko zergaren aitortpenarekin batera, Espainiako lurraldean egoiliarra ez den entitateari buruz datu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Sozietatearen izena eta helbide sozialaren lekua.
- b) Administratzaileen zerrenda.
- c) Balantzea eta irabazien eta galeren kontua.
- d) Egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa.
- e) Egotzi beharreko errenta positiboari dagokionez, ordaindutako zergen justifikazioa.

11. Partaidetzako entitatea paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliarra denean, zera iritziko da:

- a) 1. idatz-zatiaren b) letran ezarritako inguruarra betetzen da.
- b) Partaidetzako entitateak eskuratutako errenta 2. idatz-zatian aipatzen diren errenta iturrietatik heldu da.
- c) Partaidetzako entitateak eskuratutako errenta partaidetzaren erosketa balioaren %15 da.

Aurreko letretan bildutako presuntzioek kontra-proba onartuko dute.

Aurreko letretan bildutako presuntzioak ez dira aplikatuko partaidetzako entitateak, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, sartu beharreko entitateetako batekin edo batzuekin bere kontuak finkatzen dituenean.

12. Artikulu honetan ezarritakoa ez da aplikagarria izango, Espainiako lurraldean egoiliarrak ez diren entitateak Europar Batasuneko beste estatu-

ren batean egoiliarrak direnean, salbu eta errege-lamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatua bada.

3. azpiatala. Inbertsio kolektiboko erakundeak

52. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideen zerga-ordainketa.

1. Inbertsio kolektiboko erakundeetako buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak araututako inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaide diren subjektu pasiboek, foru lege honen arauetan xedatutakoaren arabera, ondorengo errentak azalduko dituzte:

a) Akzio edo partaidetzen eskualdaketatik edo partaidetzen itzulketatik ateratako ondare gehikuntzak edo murrizketak. Balio homogeenak egonez gero, subjektu pasiboak eskualdatutakoak edo itzulitakoak lehenbizi eskuratutakoak direla ulertuko da.

Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza edo akzioen itzulketatik edo eskualdaketatik ateratako zenbatekoa, erregelamendu bidez ezarritako prozedurari jarraikiz, inbertsio kolektiboko erakundeetako beste akzio edo partaidetza batzuk eskuratu edo izenpetzeko erabiltzen bada, ez da bidezkoa izango ondare gehikuntza edo murrizketa zenbatzea. Era berean, izenpetutako edo eskuratutako akzio edo partaidetza berriek mantenduko dute itzuli edo eskualdatutako akzio edo partaidetzen balioa eta erosketa edo harpidetza data honako kasuetan:

a') Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen itzulketetan, baldin eta haiek inbertsio funtzat jotzen badira.

b') Sozietate gisa eraturiko inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eskualdaketetan, baldin eta honako bi baldintza hauek betetzen badira:

– Eskualdatzen diren akzioen titularra den inbertsio kolektiboko erakundeak 500 bazkide baino gehiago izatea.

– Eskualdaketa egunaren aurreko hamabi hilabeteetako uneren batean subjektu pasiboak parte hartu ez izana inbertsio kolektiboko erakundearen kapitalaren %5ean baino gehiagotan.

Letra honetan, a) letran, alegia, bigarren lerrokadan ezarritako gerorapen araubidea ez da aplikatuko, baldin eta, edozein bitarteko erabiliz, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzen itzulketa edo eskualdaketaren ondoriozko zenbatekoa subjektu pasiboaren eskueran ipintzen bada.

Aipatutako gerorapen araubidea ez da aplikagarria izango, baldin eta eskualdaketaren edo

erosketaren xedea, hots, inbertsio kolektiboko erakundeen ondarearen erakusgarri diren partaide-tzak, hain zuzen ere artikulua honetan aipatzen direnak, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduaren 49. artikuluan aipatzen diren inbertsio funts kotizatutzat hartzen direnean.

b) Inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako emaitzak.

2. Artikulu honen aurreko idatz-zatian ezarritako araubidea, Kontseiluaren 1985eko abenduaren 20ko 85/611/EEE Zuzentarauan arautu arren, artikulua honen 4. idatz-zatian ezarritakoak ez diren, Europar Batasuneko kidea den herrialderen batean eratu eta bertan helbidea daukaten eta Balore Merkatuko Komisio Nazionalaren erregistro berezian sartuta dauden Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideei aplikatuko zaie, Espainian egoiliarrik diren entitateek merkaturatu ahal izateko.

Aurreko idatz-zatiaren a) letraren bigarren lerrokadan xedatutakoa aplikatzeko, honako betekizun hauek betetzeko eskatuko da:

a) Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio eta partaidetzak eskuratu, izenpetu, eskualdatu eta itzuliko dira Balore Merkatuko Komisio Nazionalan izena emana daukaten merkaturatze-entitateen bitartez.

b) Baldin eta Inbertsio kolektiboko erakundea partitze edo azpi-funtsetan egituraturik badago, ulertuko da aurreko idatz-zatiaren a) letraren b) letran ezarritako bazkide kopurua eta gehieneko partaidetza-portzentajea merkaturaturiko partitze edo azpi-funts bakoitzari buruzkoak direla.

3. Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide kopuruaren eta haien kapitalean parte hartzeko gehieneko portzentajearen zehaztapena egingo da, erregelamendu bidez ezarriko den prozedurari jarraikiz.

4. Paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurraldeetan eratutako inbertsio kolektiboko erakundeetan parte hartzen duten subjektu pasiboek, beren partaidetza horrek zergaldiaren amaiera-egunean duen likidazio balioaren eta erosketa balioaren arteko diferentzia positiboa egotziko diote zerga oinarriaren zati orokorrari, foru lege honen 53. artikulua ezarritakoaren arabera.

Egotzitako kopurua erosketa balio handiena dela iritziko da.

Inbertsio kolektiboko erakundeak banaturiko mozkinak ez dira egotziko eta gutxitu egingo dute partaidetzaren erosketa balioa.

Idatz-zati honen lehen lerrokadan jasotzen den diferentzia, kontrako frogarik ez den bitartean, akzioaren edo partaidetzaren erosketa balioaren %15 dela iritziko da.

Akzioen nahiz partaidetzen eskualdaketa edo itzulketaren ondoriozko errenta foru lege honen 43. artikulua 1. idatz-zatiaren c) letran ezarritakoaren arabera zehaztuko da, eta horretarako aurreko idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuz ateratzen dena erosketa baliotzat hartuko da.

III. KAPITULUA

Errenten integrazioa eta konpentsazioa

53. artikulua. Zati orokorra.

Zerga oinarriaren zati orokorra aurrezkiaren zati berezian sartzeko ez diren etekinek eta ondare gehikuntzek eta murrizketek osatuko dute, hauek hain zuzen:

a) Errenta-egozpenak eta etekinak, zergaldi bakoitzean beraien artean eta inolako mugarik gabe, elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldoa. Etekin eta egozpen horiek ondoko arauetan aipatzen dira: foru lege honen 51. eta 52.4 artikulua eta Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen X. tituluaren IV. kapitulua.

b) Ondare gehikuntzak eta murrizketak elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren, zergaldi bakoitzean ateratzen den saldo positiboa, hurrengo artikuluan ezarritakoak izan ezik. Integrazioaren eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa badauka, horren zenbatekoa letra honek aipatzen dituen eta hurrengo lau urteetan gerta daitezkeen ondare gehikuntza horien saldo positiboarekin konpentsatu ahal izango da.

Kompentsazioa hurrengo urteetako bakoitzean egin ahal den gehieneko kopuruan egingo da eta, bide batez, aurreko lerrokadan aipatzen den lau urteko epearen barnean egin behar da, ondorengo urteetako ondare murrizketei erantsiz.

54. artikulua. Aurrezkiaren zati berezia.

1. Zerga oinarriaren aurrezkiaren zati berezia foru lege honen 28. eta 29. artikuluetan eta 30. artikulua 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritako higigarrien kapitalaren etekinek osatuko dute, bai eta ondare elementuen eskualdaketa gerta daitezkeen ondare gehikuntzek eta murrizketek ere, eta halaber ondare elementuen eskualdaketa egitean agerian geratzen diren ondare gehikuntzek eta

murrizketek ere. Hala ere, foru lege honen 29. artikuluan ezarritako ondasun higigarrien kapitalaren etekinetatik, subjektu pasiboarekin lotura duten entitateetatik heldu direnak zerga oinarriaren zati orokorrean sartuko dira. Dena dela, aurrezkiaren zati berezian sartuko dira ohiko etxebizitza erostegatik edo ohiko etxebizitza zaharberritzeagatik kapital moduan eskuratutako diru-laguntzeko eragindako ondare gehikuntzak.

Aurrezkiaren zati berezia ondoren aipatzen diren saldoak batzetik ateratzen den saldo positiboak osatuko du:

a) Zergaldi bakoitzean, aurreko lerrokadan aipatzen den higigarrien kapitalaren etekinak, aurrezkiaren zati berezian sartzen direnak, elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboa.

Integrazioaren eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa badauka, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan gerta daitezkeen ondare gehikuntza horien saldo positiboarekin bakarrik konpentsatu ahal izango da.

b) Zergaldi bakoitzean, idatz-zati honen lehengo lerrokadan aipatzen den ondare gehikuntzak eta murrizketak elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboa.

Integrazioaren eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa badauka, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan gerta daitezkeen ondare gehikuntza horien saldo positiboarekin bakarrik konpentsatu ahal izango da.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako konpentsazioak hurrengo ekitaldietako bakoitzean egin ahal den gehieneko kopuruan egingo dira eta ezin izango da aurreko lerrokadan aipatzen den epetik kanpo egin, ondorengo urteetako etekin negatiboak edo ondare murrizketak erantsiz.

IV. KAPITULUA. Likidazio oinarria

55. artikulua. Likidazio oinarri orokorra.

Likidazio oinarri orokorra kalkulatzeko, zerga oinarriaren zati orokorrari, eta ez besteri, ondoren azaltzen diren murriztapenak aplikatuko zaizkio:

1. Gizarte aurreikuspeneko sistemetan egindako ekarpen eta kontribuzioengatik:

1. Pentsio planetako partaideek egindako ekarpenak, sustatzaileak plan horiei egindako kontribuzioak barne.

Halaber, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta gainbegiratzeari buruz 2003ko ekainaren 3an eman

zuten 2003/41/EE Zuzentarauan arauturiko pentsioetan parte hartzen dutenen diru-ekarpenak, enpresa sustatzaileenak barne, betekizun hauek betetzen badira:

a) Kontribuzioak zergei dagokienez prestazioa loturik dagoeneko partaideari egozte.

b) Partaideari etorkizunean prestazioa hartzeko eskubidea atzera egiterik gabe eskualdatzea.

c) Kontribuzio hori osatzen duten baliabideen titulartasuna partaideari eskualdatzea.

d) Estalitako gertakizunak azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 8.6 artikuluan ezarritakoak izatea.

Zuzentarau horren arabera egiten diren diru-ekarpen edo kontribuzioen kasuan, pentsio planetarako ezarritakoak ez beste kasuetan osorik edo hein batean erabiliz gero, subjektu pasiboak zergaldiko aitortenean lanaren etekin gisa xedapen harengatik harturiko dirua adierazi beharko du, zergarengatik sartu ez ziren kopuruei dagozkien berandutze interesak barne, zerga oinarria gutxitzen zuten diru-ekarpen edo kontribuzioen ondorioz, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta.

2. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan egiten diren ekarpenak eta kontribuzioak, honako betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Betekizun subjektiboak:

a') Gizarte Segurantzako araubideren batean integraturik ez dauden profesionalek, haien ezkontideek eta lehen mailako odolkidetasunezko ahai-deek, hala nola mutualitate horietako langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru kontratuetan ordaindutako kopuruak badira, betiere Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen 8.6 artikuluan ezarritako gertakizunen ondorioak estaltzeko izan diren heinean, eta, foru lege honen 35. artikularen 1. arauan jasotzen den eran, enpresa edo lanbide jardueren etekin garbia zehazteko gastu kengarri gisa erabili ez badira.

b') Gizarte Segurantzako edozein araubidetan integraturik dauden profesionalek edo enpresaburu indibidualek, haien ezkontideek eta lehen mailako odolkidetasunezko ahaideek, hala nola mutualitate horietako langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru kontratuetan ordaindutako kopuruak badira, betiere azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen

Legearen 8.6 artikuluan ezarritako gertakizunen ondorioak estaltzeko diren heinean.

c') Besteren konturako langileek edo bazkide langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru kontratuetan ordaindutako kopuruak, sustatzaileek haien alde lanaren etekin kontzeptupean ordaindu eta egotzitakoak barne, betiere 1988ko ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan xedaturikoaren arabera egin badira, aipatutako bazkide langileentzako lan-gabezia-prestazioa sartuz.

d') Besteren kontura lan egiten duten mutualista elkargokideek, haien ezkontideek eta lehen mailako odolkidetasunezko ahaideek eta mutualitate horietako langileek emandako kopuruak, lanbide elkargoa eraturik duten gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin itundutako aseguru kontratuengatik emandakoak, betiere azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 8.6 artikuluan ezarritako gertakizun berberak gertatzen direnean soilik kobratzen uzteko erabakia hartu baldin badute mutualitateko kasuan kasuko organoek.

b) Mutualisten eskubide kontsolidatuak azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 8.8 artikuluan pentsio planetarako ezarritako kasuetan baino ezin izango dira bihurtu.

Aipatutako eskubide kontsolidatuak, beren osotasunean edo hein batean, bestelakoetan erabiliz gero, subjektu pasiboak bere aitorpenean sartu beharko ditu lanaren etekin gisa jasotako kopuruak, eta halaber, zerga oinarrian murrizketa jaso zuten ekarpenen ondorioz, zerga zela-eta sartu ez ziren zenbatekoei zegozkien berandutze interesak ere, erregelamenduaren arabera ezarritako moduan.

Subjektu pasiboak 1. idatz-zati honen 3., 4. eta 5. puntuetan ezarritako gizarte aurreikuspeneko sistemetatik datozen eskubide kontsolidatuak edo eskubide ekonomikoak osorik edo hein batean baldin baditu, aurreko lerrokadan ezarritakoa aplikatuko da, Pentsio plan eta funtsen Araudian ezarritakoak ez bezalako kasuetan.

3. Aseguratutako aurreikuspen planei ordaindutako primak.

Alderantzizko hipoteka bat eratzearen ondorioz onuradunak eskura ditzakeen aldizkako diru-kopuru erabilgarriak osorik edo hein batean erabili ahal izango dira aseguratutako aurreikuspen plan bat

kontratatzeko. Ondore horietarako, erretiro gertakizunari gehituko zaio hartzailearen biziraupen egoera, aseguratutako aurreikuspen plan horren lehengo prima ordaindu zenetik hamar urte igaro ondoren.

4. Mendekotasun larria edo mendekotasun handia baizik estaltzen ez duten aseguru pribatuei ordaindutako primak, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatzen denaren arabera.

Halaber, subjektu pasiboaren zuzeneko ahaideek edo hirugarren mailara arteko alboko ahaideek, edo haren ezkontideak edo bikote egonkorreko kideak, edo tutoretza edo abegi araubidean beren kargura subjektu pasiboa daukaten pertsonak zilegi dute beren zerga oinarrian aseguru pribatu horiei ordaindutako primen murrizketa egitea.

Subjektu pasibo beraren alde primak ordaindu dituzten pertsona guztiek egindako murriztapenak guztira, subjektu pasiboak berak egindakoak barne, gehienez ere 10.000 eurokoak izango dira urtean. Subjektu pasiboak berrogeita hamar urte baino gehiago baditu, gehieneko zenbatekoa 12.500 eurokoa izango da.

5. Enpresek pentsioengatik hartutako konpromisoak gauzaten dituzten aseguru kolektiboko kontratuetan langileek egindako ekarpenak eta hartzailearen kontribuzioak, 1988ko ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan xedaturikoaren arabera, enpresen gizarte aurreikuspeneko planak barne.

6. Lehenengo idatz-zati honetan jasotako gizarte aurreikuspeneko sistemetan urtean egindako gehieneko ekarpenen multzoak, hala denean, sustatzaileek egotzitakoak barne hartzen dituenak, hurrengo 7. eta 8. puntuetan ezarritakoaren arabera, zerga oinarria murrizteko eskubidea ematen badu, ezin izango ditu gaintu azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 5.3 artikuluan ezarritako zenbatekoak.

Aurreko lerrokadan ezarritako mugaren gainetik egindako ekarpen edo kontribuzioen gehiegizko kopuruek ez dute eskubiderik emango zerga oinarria murrizteko, ez eta jasotako prestazioak gutxiagotzeko ere, zergak beren osotasunean ordainduko baitituzte.

7. Aurreko puntuetan jasotzen diren murriztapenen multzoaren gehieneko muga ondoren finkatzen diren kopuruetatik txikiena izango da.

a) Norberak ekitaldian jasotako lanaren etekin garbier eta enpresa eta lanbide jardueren baturaren %30.

Nolanahi ere, berrogeita hamar urtetik gorako partaide edo mutualisten kasuan, aurreko portzentajea %50 izango da.

b) 8.000 euro urtean.

Berrogeita hamar urtetik gorako partaide edo mutualisten kasuan, aurreko zenbatekoa 12.500 eurokoa izango da.

c) Aurreko a) eta b) letretan ezarritako mugak banan-banan eta bereizita aplikatuko zaizkio familia unitateko subjektu pasibo bakoitzari.

8. Zerga oinarria murrizteko eskubidea eman ahal duten ekarpenak aurreko puntuan ezarritako mugatik gorakoak badira, lehenengo idatz-zati honetan aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemetan ekarpenak egin dituzten partaideek, mutualistek edo aseguratuek aukera izango dute hurrengo bost zergaldietan soberakin horri dagozkion kopuruak murrizteko.

9. Aurreko mugen arabera egindako murriztapenak alde batera utzita, subjektu pasiboek, beren ezkontideak lanaren etekin garbirik edo lanbide edo enpresa jardueren ondoriozko etekinik jasotzen ez badu, edo urtean 8.500 euro baino gutxiago irabazten badu, zerga oinarri orokorretik murriztu ahalko dituzte artikulua honetan ezarritako gizarte aurreikuspeneko sistemetan egindako ekarpenak, betiere ezkontidea partaide, mutualista edo titularra izanik eta urteko 2.000 euroko gehieneko mugarekin. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga ez zaie ekarpen horiei aplikatuko.

2. Pentsio konpentsagarriengatik.

Kontzeptu horrengatik ezkontidearentzat ordaindutako kopuruak eta mantenuko urteko kopuruak, subjektu pasiboaren seme-alaben alde ezarritakoak salbu, epailearen erabakiz ezarri beharko dira, baita bikotekide egonkorrentzat ordaindu diren eta legez eska daitezkeen kopuruak ere.

3. Gutxienerako pertsonalarengatik.

Oro har, gutxienerako pertsonala subjektu pasibo bakoitzeko 3.700 eurokoa izango da urtean.

Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a) 900 euro hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten subjektu pasiboentzat. Zenbatekoa 2.000 eurokoa izango da, subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baldin baditu.

b) 2.500 euro ezgaitasuna duten subjektu pasiboentzat, baldin eta frogatzen badute elbarritasuna %33koa edo handiagoa eta %65koa baino txikiagoa dutela. Zenbateko hori 9.000 eurokoa izango da, subjektu pasiboak egiaztatzen badu elbarritasuna %65koa edo handiagoa dela.

4. Gutxienerako familiarrengatik:

1. Gutxienerako familiarra ondoko hau izango da:

a) Subjektu pasiboarekin bizi eta urteko errenta, salbuetsiak kenduta, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino handiagorik jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, zenbateko hauetako bat:

– 900 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honen c) letran ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen baditu.

– 2.000 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, letra honetan ezarritako errenten muga ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa halako bi izango da, familia unitate osorako.

b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik goragoko urteko errentarik jasotzen ez badu, salbuetsiak bazter utzirik:

– 1.650 euro urtean lehenbizikoagatik.

– 1.750 euro urtean bigarrenagatik.

– 2.500 euro urtean hirugarrenagatik.

– 3.350 euro urtean laugarrenagatik.

– 3.800 euro urtean bosgarrenagatik.

– 4.400 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea badu ondoko c) letran ezarritako kenkariak baliatzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 2.200 euro urtean. Adopzio kasuetan, Erregistro Zibilean izena ematen den zergaldian eta hurrengo bietan aplikatuko da murriztapen hori.

c) Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko,

haren adina zein ere den, 2.200 euro urtean, ares-tiko letretan xedatutakoari jarraikiz bidezkoak diren zenbatekoez gain, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte: horien urteko errentak, salbuet-siak izan ezik, kasuan kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino handi-agoak ez izatea, ezgaitasunen bat izatea eta duten elbarritasun maila %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa dela egiaztatzea. Zenbateko hori 7.700 eurokoa izango da urtean, egiaztatutako elbarritasun maila %65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, aurreko lerrokadan ezarritako erren-ten muga ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren halako bi izango da gehienez, familia unitate osorako.

Aurreko b) eta c) letretan xedatutakoa betetze-ko, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikagarri den legedian ezarritako terminoe-tan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotutako pertso-nak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak.

d) Subjektu pasiboak urtean 2.200 euro murriz-tu ahalko ditu pertsona lagundutzat jotzen den ahaide bakoitzeko, Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuak horretarako ezarri dituen irizpide eta baremoen arabera, eta aipatutako subjektu pasiboarekin bizi bada.

Murriztapena pertsona lagunduaren ezkontide-ak edo bikote iraunkorrak egingo du, edo, horrela-korik ez badu, mailaren arabera hurbilen duen ahaideak.

Murriztapen hori ezin izango da aplikatu, lagundutako pertsonaren ahaideren batek pertso-na horrengatik idatz-zati honen c) letran ezarritako gutxieneko familiarra aplikatzen duenean.

Lagundutako pertsona dela frogatu beharko da, Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuak ekitaldi bakoitzean emandako ziurtagiriaren bidez.

2. Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxieneko familiarrak aplikatzeko eskubi-dea, zenbatekoa haien artean zati berdinetan banatuko da.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun maila desberdina baldin badute aurreko ahaide-a-rekin, ondorengoarekin edo pertsona lagundu-a-rekin, gutxieneko familiarra mailarik hurbilenekoei aplikatuko zaie, horiek ondorio askotarako errenta-adierazletik gorako errentarik (salbuet-siak alde batera utzita) ez badute izan ezik, kasu horretan hurrengo mailakoei aplikatuko baitzaie.

Subjektu pasibo bakoitzaren gutxieneko per-sonal eta familiarra idatz-zati honen eta aurreko-a-ren arabera aplikatu beharreko zenbatekoen batu-ra izango da.

5. Ondorengo eta aurreko ahaideak eta ezgai-tasuna daukaten pertsonak zaintzeagatik.

Familiaren etxean hamasei urtetik beherako seme-alabak edo subjektu pasiboari artikuluko honen 4. idatz- zatiaren a), c) eta d) letretan eza-rritako gutxieneko familiarra aplikatzeko eskubidea ematen dioten pertsonak zaintzeko kontratatutako pertsonengatik, subjektu pasiboak Gizarte Segu-rantzari zergaldian ordaindutako zenbatekoak.

Murriztapen hori aplikatu ahalko da, orobat, subjektu pasiboa bera zaintzeko sinatutako kontra-tuen kasuan, baldin eta hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo egiaztatzen badu bere elbarri-tasun maila %65ekoa edo handiagoa dela.

6. Alderdi politikoetarako kuotengatiko eta ekar-penengatiko murriztapena.

Alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautes-le-elkarteetako afiliazio-kuotak eta ekarpenak, urteko 600 euro bitarte, betiere kuota eta ekarpen horiek Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 8.1 arti-kuluan ezarritakoaren arabera kreditatuta egonez gero.

7. Artikulu honetan aipatutako murriztapenak ondoko arau hauei jarraikiz egingo dira:

1. Lehenbizi aplikatuko dira 1. eta 2. idatz-zati-etan ezarritakoak, bai eta hamahirugarren, hama-laugarren eta hamabosgarren xedapen gehigarri-etan ezarritakoak ere.

2. Emaidza positiboa bada, 3., 4., 5. eta 6. idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuko da, haren mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga oinarriaren aurrezkiaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe.

Emaidza negatiboa bada, 3., 4. eta 5. idatz-zati-etan ezarritakoak zerga oinarriaren aurrezkiaren zati berezia gutxitzeko aplikatuko dira, eta kasu honetan ere ezin izango da negatiboa izan.

56. artikulua. Likidazio oinarri negatiboaren zati orokorraren konpentsazioa.

1. Likidazio oinarri negatiboaren zati orokorra kalkulatzeko aplika daitezkeen arauen arabera zati hori negatiboa bada, bere zenbatekoa hurrengo lau urteetan lortzen diren likidazio oinarri positibo-en zati orokorrarekin konpentsatuko da.

2. Konpentsazioa hurrengo urteetako bakoitze-an egin ahal den gehienezko kopuruan egingo da

eta, bide batez, aurreko idatz-zatian aipatzen den lau urteko epearen barnean egin beharko da, ondorengo urteetako likidazio oinarri negatiboan zati orokorrari erantsiz.

57. artikulua. Aurrezkiaren likidazio oinarri berezia.

Aurrezkiaren likidazio oinarri berezia kalkulatzeko, zerga oinarriaren aurrezkiaren zati bereziari 55. artikulua 7. idatz-zatiaren 2. arauan aipatutako murriztapena aplikatuko zaio, hala egokitzen bada.

IV. TITULUA Zerga kuota

I. KAPITULUA Kuota osoa

58. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren kuota osoa foru lege honen 59. eta 60. artikuluetan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko kuoten batura izango da.

59. artikulua. Likidazio oinarri orokorraren karga.

1. Likidazio oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

GINARRI LIKIDAGARRIA GEHIENEZ (EURO)	KUOTA OSOA (EURO)	GAINERAKO GINARRIA GEHIENEZ (EURO)	TASA APLIKAGARRIA PORTZENTAJEA
-	-	3.672	13
3.672	477,36	4.488	22
8.160	1.464,72	8.670	25
16.830	3.632,22	12.750	28
29.580	7.202,22	14.790	36
44.370	12.526,62	Gainerakoa	42

2. Batez besteko karga-tasatzat joko da honako eragiketa honen emaitza: eskalaren aplikazioaren ondoriozko kuota zati likidazio oinarri orokorra eta zatidura 100ez biderkatzea. Batez besteko karga-tasa bi hamarrenekin emango da.

3. Epailearen erabakiarengatik beren seme-alaben mantenurako urtesariak ordaintzen dituzten subjektu pasiboek, elikagaietarako urtesarien zenbateko osoaz eta likidazio oinarri orokorraren gainerako zatiez gain, 1. idatz-zatian ezarritako eskala aplikatuko dute, urtesarien zenbatekoa likidazio oinarri orokorra baino txikiagoa denean.

60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio oinarri bereziaren karga.

Aurrezkiaren likidazio oinarri bereziaren karga-tasa %15 izango da.

II. KAPITULUA Kuota likidoa

61. artikulua. Kuota likidoa.

Zergaren kuota likidoa kuota osoan hurrengo artikuluan ezarritako kenkarietatik datozenak eginez kalkulatu da, negatiboa izan ezin dela.

62. artikulua. Kuota-kenkariak.

1. Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatik kenkaria.

a) %15, Espainiako lurraldean subjektu pasiboaren ohiko egoitza den edo izango den etxebizitza erosi edo zaharbertzeagatik ekitaldian ordaindutako diru-kopuruena. Kenkari horren gehieneko oinarria urteko 9.015 eurokoa izango da.

Kenkaria aplikatzeko, ondokoa eskatuko da:

1. Etxebizitza subjektu pasiboaren ohiko bizilekua izatea hiru urteko epean. Hala ere, etxebizitza izaera hori izan zuela ulertuko da, nahiz eta epe hori ez iragan, subjektu pasiboa hiltzen bada edo etxebizitza aldatzera nahitaez behartzen duten inguruabarrak gertatzen badira.

2. Subjektu pasiboa etxebizitzan benetan bizitzea eta etengabe hamabi hilabetez, etxebizitza erosi edo obrak bukatzen diren egunetik kontatzen hasita. Hala ere, subjektu pasiboak ohiko etxebizitza badu, daukan kargu edo enpleguarengatik, epe hori kargu utzi zuen egunetik hasiko da kontatzen.

Kreditu entitateetan, erregelamendu bidez ezartzen diren formalizazio eta disposizio baldintzak betetzen dituzten kontuetan, sartzen diren kopuruak izango dira ohiko bizilekua den edo izango den etxebizitza erosi edo zaharbertzen erabilitzat jotzen direnak, baldin eta ohiko etxebizitza erosi edo zaharbertzeko erabiltzen badira.

Ezkontza-deuseztasuneko, dibortzioko edo banantze judizialeko kasuetan, zergadunak kenkari hori baliatzen jarraitu ahal du, erregelamendu bidez ezartzen denari jarraikiz, ezkontzak indarra izan zuen bitartean ohiko etxebizitza izan zena eroste aldera zergaldian ordaindutako kopuruena, hain zuzen ere, baldin eta ohiko etxebizitza izaten jarraitzen badu elkarrekin izaniko seme-alabentzat eta haiekin geratzen den gurasoarentzat.

Ondore horietarako, zaharberrikuntzat joko da:

a') Egoitza- eta hiri-ondarearen zaharberitzearen babespenari dagokionez legez eska daitezkeen baldintzak betetzen dituen, baldin eta organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez bermatzen bada hori.

b') Etxebizitzaren egitura, aurreko aldea, estaldura edo antzekoak sendotuz eta tratatuz berreraikitzekeo xedea duen obra, baldin eta lanen kostu osoak %25ean gainditzen badu erosketaren prezioa, betiere erosketa hori lanak hasi aurreko bi urteetan egin bada, edo, bestela, lanen kostu osoak etxebizitzak zaharberitu baino lehen zeukan egiazko balioa gainditzen badu.

b) Kenkari honen oinarria etxebizitza erosi edo zaharberitzeko ordaindutako diru-kopuruek osatuko dute, eroslearen kargu izan diren gastuak barne. Inoren finantzaketarekin egin bada, horren ondoriozko amortizazioa, interesak eta gainerako gastuak ere gehituko zaizkio oinarriari.

Hauxe kenduko zaio aurreko lerrokadan aipatzen den kenkariaren oinarriari: aurreko ohiko etxebizitzarengatik kuotari kendu zaizkion kenkari-egokien oinarriaren zenbatekoa, eta baita ohiko etxebizitza berriari inbertitzeagatik salbuetsitako ondare gehikuntzaren zenbatekoa ere. Aipatutako kenketa hori egiteko, subjektu pasiboak ezin izango du ohiko etxebizitza berria erosteagatik kuota-kenkaria aplikatu, baldin eta berri horretan inbertitzen diren zenbatekoek ez badituzte gainditzen arestian esandako kopuruak.

c) Ohiko etxebizitza edo etxebizitzak erosi edo zaharberitzeagatik egindako kenketei dagozkien oinarrien zenbateko osoak ezin izango du 90.150 euroko zenbatekoa gainditu, subjektu pasiboaren zergaldiak batera hartuz gero.

d) Idatz-zati honetan xedatutakoari begira, aitorten bateratua eginez zergak ordaindu diren zergaldietan ohiko etxebizitza erosi edo zaharberitzeagatik egindako kenketei dagozkien oinarriak, kenkarirako eskubidea sortu zuten subjektu pasiboek egindakotzat hartuko dira.

e) Kenkari horri dagokionez, ezkontzaren araubide ekonomikoa irabazpidezkoa baldin bada, ezkontuta egon diren bitartean ordaindutako zenbatekoak, idatz-zati honen b) letran aipatzen direnak, konkisten edo irabazpidezko ondasunen sozietatearen funtsekin ordaindutzat hartuko dira, eta ezkontide bakoitzaren kenkaria aipatutako sozietatean zuen partaidetzaren arabera izango da.

f) Ohiko etxebizitza egokitzeko lan eta instalazioak egiten dituzten subjektu pasiboek ere zilegi izango dute ohiko etxebizitzarengatik ezarritako kenkaria aplikatzea, baita lan horiek eraikinaren

elementu komunak eta finkatik bide publikora pasatzeko beharrezkoak direnak badira ere, ondoko zehaztapen hauekin:

a') Egokitze lan edo instalazioek Administrazio eskudunaren ziurtagiria izango dute, haien erabilgarritasuna eta zentzumen-komunikazioa bermatzeko beharrezkoak direla frogatzeko, bide emanago baitute horrela elbarritasuna duten pertsonak haietan duintasunez moldatzeko, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

b') Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzan egokitze lan edo instalazioak egin behar baldin badira subjektu pasiboa bera, haren ezkontidea edo bikote iraunkorra, edo harekin bizi den ahaideren bat, zuzenekoa nahiz albokoa, odolkidetasunezkoa nahiz ezkontza bidezkoa, hirugarren mailara artekoa -hori barne-, elbarria delako, zilegi izango da horienegatik kenketa egitea.

c') Etxebizitzan b') letran aipaturiko pertsonetik edozeinek bizi beharko du, jabe, errentari, azpi-errentari nahiz usufruktudun izan.

Ulertuko da etxebizitza aldatzeak eskatzen duen egoera dela, elbarritasuna dela-eta, aurreko etxebizitza egokia ez izatea.

d') Egin beharreko obrak hiri-finkatik bide publikora pasatzeko beharrezkoak diren elementu komunak aldatzeko nahiz zentzumen-komunikaziorako oztupoak gainditzeko edo haien segurtasuna bultzatzeko balio duten dispositibo elektronikoen aplikatzeko behar direnak baldin badira, aurreko b') letran aipatutako subjektu pasiboak gain, etxebizitza dagoen ondasun higiezinaren jabeak diren subjektu pasiboek ere aplikatu ahalko dute kenkari hori.

g) Bi seme-alaba edo gehiago dituzten familia unitateen kasuan, a) letran adierazten den portzentajea %18 izango da. Portzentaje hori %30 izango da familia ugarien ohiko etxebizitza denean, betiere Familia ugari buruzko martxoaren 25ko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera, abenduaren 31n familia ugarien izaera duten familia unitateen kasuan.

2. Etxebizitzaren alokairuagatik kenkaria.

%15 eta gehienez ere 900 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko helbidea den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru-kopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira:

– Subjektu pasiboaren errentak, salbuetsiak kenduta, ez izatea zergaldian 30.000 eurotik gorakoak.

– Zergaldian alokairu kontzeptuan ordainduta-ko diru-kopuruak, salbuetsiak kenduta, subjektu pasiboaren errenten %10 gainditzea.

3. Kenkariak enpresa edo lanbide jardueretan.

Zerga honen subjektu pasiboei, enpresa edo lanbide jardueretan aritzen badira, Sozietateen gaineko zergari buruzko arauetan enpresari inbertsiorako ezarriarik edo ezartzeko dauden bultzagarri eta pizgarriak aplikatu ahalko zaizkie, kuotan egin beharreko kenketa gisa, kenketen portzentajea eta mugak berdinak direlarik eta Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 70.bis artikuluan ezarritako kenkaria izan ezik.

Hala ere, pizgarri horiek bakarrik aplikatuko zaizkie zerga oinarrien estimazio objektiboko araubideko subjektu pasiboei, erregelamendu bidez hala ezartzen denean eta araubide horren ezauzgarri eta betebeharrak formalak kontuan harturik.

4. Dohaintzengatiko kenkariak.

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritakoak.

5. Lanagatiko kenkaria.

1. Lanaren etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kendu ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako lanaren etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 850 euro.

b) 9.100,01 eta 10.600 euro bitarteko lanaren etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 850 euro ken ondoko hau: etekin garbi horien eta 9.100-en arteko diferentzia bider 0,1.

c) 10.600 eurotik gorako lanaren etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro.

2. Elbarritasun maila %33koa edo handiagoa eta %65 baino txikiagoa izanik, jarduneko langile gisa aritu eta lanaren etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboen kasuan, aurreko zenbakian aipatzen den kenkaria 1.500 eurokoa izango da. Elbarritasun maila %65ekoa edo handiagoa dutezentzat kenkaria 3.000 eurokoa izango da.

3. Bosgarren idatz-zati honetan ezarritako kenkariaren zenbatekoak ezin izango du gainditu foru lege honen 59.1 artikuluko eskala lanaren etekin garbiei aplikatuzetik sortzen den emaitza.

6. Interes kulturalako ondasunengatiko kenkaria.

a) %15, Interes Kulturalako Ondasunen Erregistro Orokorrean jasota dauden ondasunak eros-

ten egindako inbertsioena, betiere ondasuna titularraren ondarearen barnean baldin badago gutxienez hiru urtez eta eskualdaketa Interes Kulturalako Ondasunen Erregistro Orokor horri jakinarazten baldin bazaio, gai horri buruzko berariazko arauetan xedatutakoari jarraikiz.

b) %15, aurreko letran ezarritako betekizunak betetzen dituzten ondasunen kontserbazio, kontopente, zaharberritze, hedapen eta erakuste gastuen zenbatekoarena, zerga arloan kendu ahal diren gastuzat jo ezin diren aldetik, kasuan kasu bidezkoa den etekin garbia zehazteko ondoretarako.

7. Enpresak sustatzeko sozietateen funts berekietarako edo arrisku-kapitaleko entitateen diru-ekarpenen ondoriozko kenkaria.

Enpresak sustatzeko sozietateen funts berekietarako diru-ekarpenek edo arrisku-kapitaleko entitateen kapitalerako nahiz funts berekietarako diru-ekarpenek kuota osoan kenkari bat izateko eskubidea emango dute; hori Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 167. artikulua eta 110. artikulua eta 10. zenbakian, hurrenez hurren, ezarritako moduan eta baldintzetan gauzatuko da.

Arrisku-kapitaleko entitateen kapitalerako edo funts berekietarako diru-ekarpenen ondoriozko kenkaria aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da Ekonomia eta Ogasun Departamentuak beren beregi baimentzea, arrisku-kapitaleko entitateek eskatu ondoren.

8. Errenta berrikusteko eskubiderik ez duten etxebizitzaren errentamenduen kenkaria.

Errenta berrikusteko eskubiderik ez duten errentatzaileek eskubidea izango dute Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 14/1995 Foru Legearen 4. artikuluan ezarritako kuota murrizteko, indarraldiak iraun eta eskatutako betekizunak eta baldintzak betetzen diren bitartean.

9. Sasoikako langileei eta haien ahaideei aterpea emateko higiezinak erosi edo egokitzeagatiko kenkaria.

Zerga honen subjektu pasiboek eskubidea izango dute sasoikako langileei eta haien ahaideei aterpea emateko higiezinak erosi edo egokitzeko ordaindutako zenbatekoen %20ko kenkaria aplikatzeko. Kenkari hori aplikatuko da, Nekazaritza eta abeltzaintzako aldi baterako langileentzako aterpe sarea osatzen duen maiatzaren 22ko 192/2000 Foru Dekretuan araututako nekazaritza eta abeltzaintzako aldi baterako langileentzako etxebizitza

eta ostatu sarean subjektu pasiboaren izenean baldin badaude higiezinak.

Subjektu pasiboek kenkaria aplikatzeko eskubi-dea izango dute higiezina erosi edo zaharberritze-obra amaitzen diren zergaldian, hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, kenkari horren aplikazioarekin lau zati berdinean egin, eta sorrarazpena gertatu zen zergaldian eta ondoko hiruetan aplikatuko da. Kenkariaren aplikazioa, lau zati berdinetan egindakoa, bidezkoa izango da soilik aipatutako higiezinetan sasoikako langileei aterpea ematen zaien zergaldietan.

Ondore horietarako, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak urteko egiaztagiria egingo du, higiezina sarean subjektu pasiboaren izenean inskribatuta dagoela, higiezin horretan sasoikako langileei aterpea ematen zaiela eta, hala denean, bertan egindako obregatik eman den diru-laguntza zenbat eurotako izan den adierazten duena.

63. artikulua. Frogagiriak.

Aurreko artikulua aipatzen dituen kenkariak erregelamenduz zehazten diren baldintzei jarraiki justifikatu beharko dira.

64. artikulua. Kenkari zehatz batzuen muga.

1. 62. artikulua 4. idatz-zatian aipatzen diren dohaintzengatik kenkariaren oinarria, gehienez ere, subjektu pasiboaren likidazio oinarriaren %20 izango da.

2. 62. artikulua 3. eta 7. idatz-zatiek aipatzen dituzten kenketen mugak batera aplikatuko zaizkio 61. artikulua ezarritakoaren arabera finkatutako kuota likidoari.

3. 62. artikulua 6. idatz-zatiak aipatzen dituen interes kulturalako ondasunetako kenketen oinarria ezin izango da subjektu pasiboaren likidazio oinarriaren %20tik gorakoa izan.

65. artikulua. Ondare egoera frogatzea.

62. artikulua 1. eta 6.a) idatz-zatiek aipatzen dituzten kenkariak aplikatzeko, subjektu pasiboak zergaldiaren amaieran duen ondarearen balio frogatuak gutxienez hasieran frogatutakoa baino handiagoa izan beharko du, egindako inbertsioen zenbatekoari dagokionez. Ez dira zenbatuko interesak eta finantziazioaren gainerako gastuak.

Ondore horietarako, ez dira zenbatuko zergaldiaren amaieran subjektu pasiboaren ondarearen zati izaten jarraitzen duten ondare elementuek zergaldi horretan izan dituzten balio gehikuntzak edo murrizketak.

III. KAPITULUA **Kuota diferentziala**

66. artikulua. Kuota diferentziala.

Kuota diferentziala honako kopuru hauetan zergaren kuota likidoa gutxitzearen emaitza izango da:

a) Hurrengo artikuluan ezartzen den nazioarteko ezarpen bikoitzagatik kenkaria.

b) Foru lege honetan eta hori garatzeko arauzko arauetan ezarritako atxikipenak, konturako sarrerak eta zatikako ordainketak.

c) Foru lege honen 51. artikulua 8. idatz-zatiak aipatzen dituen kenkariak.

d) Subjektu pasiboa etxebizitza aldatzeagatik halakotu bada, foru lege honen 80. artikulua 8. idatz-zatian aipaturiko konturako atxikipen eta ordainketak, bai eta Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan ordaindu diren eta bizilekua aldatu den zergaldian sortu diren kuotak ere.

e) Foru lege honen 80. artikulua 10. idatz-zatiak aipatzen dituen kenkariak.

f) Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ondorioz ordaindutako udal kuotak, Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, ezarri bezala eta legearen indarraldiari eusten zaion bitartean.

67. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitzarengatik kenkaria.

1. Subjektu pasiboaren errenten artean atzerri- an erdietsi eta kargatutako etekinak edo ondare gehikuntzak daudenean, kuota likidoari ondoko zenbatekoetako txikiena kenduko zaio:

a) Zerga honen edo Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren izaera bera edo antzekoa duen beste zerga bat kitatzeko atzerrian ordaindutako zenbateko efektiboa, etekin edo ondare gehikuntza horien gainean.

b) Likidazio oinarriaren zati bati batez besteko karga-tasa efektiboa aplikatzearen emaitza. Aipatutako zati hori atzerrian kargatutako errentei dagokie eta bidezkoa zen barne araudia aplikatu zaio.

2. Ondore horietarako, batez besteko karga-tasa efektiboa kalkulatzeko honako eragiketa hau egin beharko da: kuota likidoa zati likidazio oinarria eta zatidura 100ez biderkatzea. Helburu hori dela-eta, zergaldiko likidazio oinarriaren zati orokorrean eta aurrezkiaren zati berezian sartu beharre-

ko errentei dagokien kasuan kasuko karga-tasa bereizi beharko da. Karga-tasa bi hamarrenekin emango da.

3. Atzerrian establezimendu iraunkor baten bidez errentak eskuratzen diren kasuetan, artikulua honetan ezarritako nazioarteko ezarpen bikoitzaren araberako kargak aplikatuko da, eta ez da inola ere aplikatuko ezarpen bikoitza baztertzeko prozedura, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 60.bis artikuluan ezarritakoa, alegia.

68. artikulua. Alargun pentsioengatikoa kenkaria.

1. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alargun pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 50. artikulua aipatutako osagarriak jasotzeko eskubidea badute, kenkari gehigarria egin ahalko dute, kasuan kasuko pentsio motarako finkatutako gutxieneko zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Aurreko lerrokadan ezarritako kenkaria kalkulatzeko, alargun pentsioa ez baldin bada jaso zergaldi osoan, zenbateko hori urtera eramango da. Kasu horretan, zergaldian alargun pentsioa jasotzeko eskubidea ematen duten egunen kopuruaren arabera kalkulatu da kenkaria.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari eskatu ahalko zaio kenkari hori alde zurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergaren kuota diferentzialaren gaineko kenketarik egingo.

Kenkariaren baliatzeko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta alde zurretiko ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

2. Gizarte Segurantzatik kasuan kasuko pentsio motarako finkatutako gutxieneko baina gehiagoko alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata baina gutxiagokoak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenketa gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izango da subjektu pasiboek, alargun pentsioaz gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baina gehiagoko beste errentarik jaso ez izana zergaldian, salbuetsiak alde batera utzita.

Idatz-zati honetan araututako kenkaria ezin izango da alde zurretik abonatu.

Alargun pentsioa ez bada zergaldi osoan jaso, aurreko 1. idatz-zatiaren bigarren lerrokadan ezarritakoari jarraituko zaio.

Kenketa hori egiteko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.

3. Zahartzaroko eta baliaezintasunerako nahi-taezko aseguruaren (SOVi) pentsioak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenketa gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Kenketa hori egin ahal izateko, beharrezkoa izango da subjektu pasiboek, alargun pentsioaz gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baina gehiagoko beste errentarik jaso ez izana zergaldian, salbuetsiak alde batera utzita.

Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuari eskatu ahalko zaio kenkari hori alde zurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergaren kuota diferentzialaren gaineko kenketarik egingo. Kenketa egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta alde zurretiko ordainketa eskatzeko eta eskuratzeko prozedura ere.

Alargun pentsioa ez bada zergaldi osoan jaso, aurreko 1. idatz-zatiaren bigarren lerrokadan ezarritakoari jarraituko zaio.

V. TITULUA Zerga-zorra

69. artikulua. Subjektu pasiboaren ondare erantzukizuna.

Zergaren zerga-zorra Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Bildumaren 34. legeak eta Kode Zibilarren 1.365. artikulua aipatzen dituzten beste zorrak bezala hausnartuko da eta, horren ondorioz, ezkontideetako batek hartu dituen zor horiei dagokienez, konkistako edo irabazpidezko ondasunak, hurrenez hurren, Nafarroako Ogasun Publikoan azaldu beharko dira.

VI. TITULUA Baterako zerga-ordainketa

70. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren aukera.

Familia unitatea osatzen duten pertsona fisikoek zergak batera ordaintzea aukeratu ahal izango dute edozein zergalditan, arau orokor eta titulu honen xedapenen arabera.

71. artikulua. Familia unitatearen kontzeptua.

1. Zerga honi dagokionez, ondokoak dira familia unitateak:

a) Legez banandurik ez dauden ezkontideek eta adingabeko seme-alabek osatutakoa (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, judizialki ezgaituta eta guraso-aginte luzatu edo birgaituaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.

b) Berariazko legeen arabera bikote egonkor bateko kideek eta adingabeko seme-alabek osatutakoa (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, judizialki ezgaituta eta guraso-aginte luzatu edo birgaituaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.

c) Legezko banantzearen kasuetan edo, ezkontzaren bidezko loturarik edo bikote egonkorrik ez dagoenean, aitak edo amak eta batarekin edo bestearekin bizi diren seme-alaba guztiak osatzen dutena, aurreko idatz-zatietan aipatzen diren betekizunak betetzen badituzte.

2. Ezin da aldi berean bi familia unitatetako kidea izan.

3. Familia unitateko kideak zehazteko, urte bakoitzeko abenduaren 31n dagoen egoera aintzat hartuko da, familia unitateko kideren bat urtean hil ezean; izan ere, kasu horretan familia unitateko gainerako kideek zergak, hildakoaren errentak barne, batera ordaintzea aukeratu ahal izango dute.

Aukera hori ez da bidezkoa izango, ezkontideetako bat hil, eta urtea amaitu baino lehen alarguna berriro ezkontzen denean.

72. artikulua. Aukera gauzatzea.

1. Zergak batera ordaintzeko aukerak familia unitateko kide guztiak barne hartu behar ditu. Beraz, horietako batek banakako aitortpena aurkezten badu, gainerakoek ere banan-banan ordaindu beharko dituzte zergak.

2. Zergaldi baterako hasieran gauzatutako aukera ezin izango da aldatu aitortpena aurkezteko arauzko epea amaitu ondoren, baina ez da loteslea izango hurrengo zergaldiei begira.

3. Aitorpenik ez badago, subjektu pasiboek banan-banan ordainduko dituzte zergak, Administrazioak errekerimendua egiten duenetik hamar eguneko epean bestelakoa beren-beregi adierazi ezean.

73. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren elementuak.

1. Baterako zerga-ordainketan, etekinak, ondare gehikuntzak eta murrizketak eta errenta-esleipenak eta egozpenak bereizirik zenbatuko dira, familia unitateko subjektu pasibo bakoitzarentzat.

Ondore horietarako, subjektu pasiboen errenta zehaztu eta indibidualizatzeari buruzko zergaren, zerga oinarri eta likidazio oinarriaren eta zergazorraren arau orokorrak aplikatuko dira, titulu honetan ezartzen diren zehaztapenak errespetatuta.

2. Familia unitateko kide baten edo gehiagoren likidazio oinarri negatiboak, 53. artikuluan b) letratik sor litekeen saldo negatiboa eta 54.1 artikuluan a) eta b) letren saldo negatiboak beste kide batzuen errenta positiboekin konpentsatuko dira, foru lege honen III. tituluaren ezarritako konpentsazio arauak aplikatuz. Konpentsazioa errenta-zati bakoitzaren kopuruaren hurrenkerari jarraituz egingo da, handienetik txikienera.

3. Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen konpentsazioak egin ondoren, 59. artikuluan ezarritako zergaren tarifa eta 60. artikuluan ezarritako kargatasa familia unitateko subjektu pasibo bakoitzaren likidazio oinarri orokorrari eta aurrezkiaren zati bereziari aplikatuko zaizkie bereizirik, kide bakoitzaren banakako kuota kalkulatzeko.

Banakako kuota horiek batuz, familia unitatearen kuota osoa kalkulatu da.

4. Familia unitatearen kuota osoa kalkulatu, horretan foru lege honen 62. eta 66. artikuluetan ezarri diren eta subjektu pasibo bakoitzaren banakako zerga-ordainketan bidezkoak diren kenketak egingo dira, familia unitatearen kuota likidoa eta kuota diferentziala, hurrenez hurren, zehazteko ondoretarako.

5. Familia unitatea osatzen duten eta titulu honetan araututako zerga-ordainketa modua aukeratu duten pertsona fisikoak zergaren mende geratuko dira elkarrekin eta solidarioki subjektu pasibo gisa, horietako bakoitzari dagokion errentaren zatien arabera zerga-zorra beren artean hainbanatzeko eskubidearen kalterik gabe.

74. artikulua. Kontu-sail negatiboen konpentsazioa.

1. Baterako zerga-ordainketan konpentsagarriak dira, aurreko artikuluan ezarritako arauen arabera, likidazio oinarri negatiboak, 53. artikuluan b) letratik sor litekeen saldo negatiboa eta 54.1 artikuluan a) eta b) letren saldo negatiboak, familia unitatea osatzen duten subjektu pasiboek

zergak banaka ordaindutako aurreko zergaldietan konpentsatu ez dituztenak.

2. Baterako zerga-ordainketan subjektu pasibo bakoitzarentzat bereizirik zehaztutako kontzeptuak, foru lege honetan errenten indibidualizazioari buruz bildutako arauen arabera, horietaz arduratu behar direnek bakarrik konpentsatu ahal izango dituzte, geroko banakako zerga-ordainketa egitekotan.

75. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren arau bereziak.

Baterako zerga-ordainketaren kasuetan, ondo ko arau bereziak aplikatuko dira:

1. 62. artikulua 1. idatz-zatiaren a) letran ezarritako gehieneko oinarria urteko 21.035 eurokoa izango da familia unitate osorako.

2. 62. artikulua 1. idatz-zatiaren c) letran ezartzen den oinarrien zenbateko osoa 210.350 eurokoa izango da familia unitate osorako.

3. 62. artikulua 2. idatz-zatian aipatzen den errenten muga 60.000 eurokoa izango da familia unitate osorako.

4. 64. artikulua 1. eta 3. idatz-zatietan ezarritako mugak familia unitateko kide guztien likidazio oinarrien baturari aplikatuko zaizkio.

5. 64. artikulua 2. idatz-zatian ezarritako muga familia unitateko kide guztien kuoten baturari aplikatuko zaio.

6. 71. artikulua 1. idatz-zatiaren a) eta b) letrak aipatzen dituzten familia unitateen kasuan, 55. artikulua 7. idatz-zatiaren 2. araua aplikatzearen ondorioz ezkontideetako edo bikote iraunkorreko kideetako batek ezin izan duenean osorik aplikatu 3., 4., 5. eta 6. idatz-zatietan aipatzen diren murriztapenak, gerakina beste ezkontidearen edo bikote iraunkorreko kidearen gutxieneko pertsonalari eta familiarrari erantsiko zaie.

7. 71. artikulua 1. idatz-zatiaren c) letran aipatzen diren familia unitateen kasuan, aitari edo amari dagokion gutxieneko pertsonala (55. artikulua 3. idatz-zatia) 2.400 euro handituko da. Igoera hori ez da gertatuko, aita eta ama elkarrekin bizi badira.

VII. TITULUA

Zergaldia eta zergaren sorrarazpena

76. artikulua. Zergaldia eta zergaren sorrarazpena.

Zergaldia urte naturala izango da eta zerga urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko da,

hurrengo artikuluan ezarritako kasua gertatu ezean.

77. artikulua. Urte naturala baino laburragoa den zergaldia.

1. Zergaldia ez da urte naturalera iritsiko, subjektu pasiboa abenduaren 31 ez den egun batean hiltzen bada.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako kasuan, zergaldia familia unitate bateko kidea den zein ez den subjektu pasiboarentzat amaituko da eta, horren ondorioz, subjektu pasibo horrentzat zerga sortuko da, foru lege honen 71. artikuluan ezarritako baterako zerga-ordainketaren aukeraren kalterik gabe.

3. Hildako subjektu pasiboaren egotzi gabeko errenta guztiak bere azken zergaldiko zerga oinarrian sartuko dira.

Kausatzailearen ondorengoak aurreko lerroak dak aipatutako errenten zerga-zorraren zatia zatika ordaintzeko eskatu ahal izango du, berandutze interesik sortu gabe. Zati hori kalkulatzeko, 59. artikulua 2. idatz-zatian ezarritako tasa aplikatuko zaio zerga oinarri orokorrean sartutako errentari eta 60. artikuluan ezarritako tasa aplikatuko zaio aurrezkiaren oinarri berezian sartutakoari. Eskabi-dea heriotza gertatu den zergaldiari buruzko aitortpena egiteko arauzko epearen barnean aurkeztuko da eta errenta horiek egotzi beharreko zergaldien arabera emango da, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta.

4. Kausatzailearen ondorengoak zerga horrenatik burutu gabeko zerga betebeharrak zehapenak izan ezik- bete beharko ditu, legeria zibilak herentzia eskuratzeko ezartzen duenaren kalterik gabe.

5. Baterako zerga-ordainketaren kasuan, oinordekoak eta legatu-hartzaileak solidarioki behartuta daude, Nafarroako Ogasun Publikoaren aurrean, bizirik dauden familia unitateko subjektu pasiboekin eta, horiei dagokienez, kausatzailearen lekua beteko dute, foru lege honen 73. artikulua 5. idatz-zatian araututako hainbanaketaren ondoretarako.

6. 55. artikulua 4. idatz-zatian aipatzen den eta subjektu pasiboari dagokion gutxieneko familiarra gutxitu egingo da zergaldia osatzen duten egun naturalen arabera, proportzionalki, salbu baterako zerga-ordainketaren kasuan; izan ere, horretan osorik zenbatuko dira.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera atzeratzen diren murriztapenen zenbatekoak gutxitu egingo du kontzeptu berberengatik beste subjektu

pasibo batzuek egin ahal dituzten murriztapenen zenbatekoa, hala denean.

78. artikulua. Diru-sarrera eta gastuen denbora-egozpena.

1. Oro har, zergaren oinarria zehazten duten diru-sarrerak eta gastuak batzuk sortu direneko eta besteak gertatu direneko aldiari egotziko zaizkio, horiei dagozkien kobrantzak eta ordainketak noiz egiten diren alde batera utzita.

Ondore horietarako, diru-sarrerak sortu direla ulertuko da, hartzekodunak eska ditzakeenean; era berean, gastuak sortu direla ulertuko da, horiek jaso behar dituenak eska ditzakeenean.

2. Enpresa eta lanbide jardueren etekinak Sozietateen gaineko zerga arautzen duen araudian xedatutakoaren arabera egotziko dira, erregelamenduz ezar daitezkeen zehaztapenen kalterik gabe.

3. Ondare gehikuntzak eta murrizketak ondare aldaketa egon deneko zergaldiari egotziko zaizkio.

4. Epekako edo prezioa geroratua duten eragiketeki dagokienez, errentak proportzionaliki egotzi ahal izango dira, bidezko kobrantzak eskatu ahal diren neurrian.

Epekako edo prezioa geroratua duten eragiketatzat joko dira ondoz ondoko ordainketen bidez prezioa osorik edo zati batean ematen dutenak, betiere hori eman edo eskura jartzen denetik azken epea iraungi arte igarotzen den aldia urtebetetik gorakoa bada.

Epekako edo prezioa geroratua duen eragiketeta bat osorik edo zati batean kanbio-efektuak emanez ordaindu denean eta efektu horiek iraungi aurretik irmo eskualdatzen direnean, errenta eskualdaketari dagokion zergaldiari egotziko zaio.

Biziarreko edo aldi baterako errenten kontratuetatik datozen eragiketek ez dute inoiz tratamendu hori izango eskualdatzailearentzat. Biziarreko edo aldi baterako errenta baten truke, ondasunak eta eskubideak eskualdatzen direnean, errentadunarentzako ondare gehikuntza edo murrizketa errenta eratzen den zergaldiari egotziko zaio.

5. Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion inguruabar justifikatuak egonda, lanaren etekinak bidezko zergaldietan jaso ezin direnean, kobrantza egiten deneko zergaldiari egotziko zaizkio, hala denean, 17. artikulua 2. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuta, subjektu pasiboak aurretik aipatutako zergaldiei egozteko -aitorpen-likidazio osagarria eginez eta zehapenik eta errekarurik ezarri eta berandutze interesik sortu gabe- erabaki ezean.

Aurreko lerroakadak aipatzen duen aukera Administrazioari jakinarazi beharko zaio, kobrantza egiten den ekitaldiari dagokion aitorpenean.

6. Foru lege honen 8. artikulua aipatzen dituen errenta zenbatetsiak gertatu omen direneko zergaldiari egotziko zaizkio.

7. Kotizazioetan egondako aldaketaren ondorioz dibisa edo atzerriko monetako saldoen erakusgarri diren kontuetan agertzen diren alde positiboak edo negatiboak bidezko kobrantza edo ordainketa egiten den unean zenbatuko dira.

8. Subjektu pasiboak etxebizitza aldatzeagatik hori izateari uzten badio, egotzi gabeko errenta guztiak zerga horrengatik aitortu behar den azken zergaldiari dagokion zerga oinarrian sartu beharko dira, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta eta, hala denean, aitorten-likidazio osagarria eginda eta inolako zehapenik, berandutze interesik eta errekarurik ezarri gabe.

9. Zergaldi bakoitzeko higigarrien kapitalaren etekin gisa egotziko da (foru lege honen 30.1 artikuluan aipatutakoa), ondoko hau: zergaldiaren bukaeran eta hasieran polizari atxikitako aktiboen likidazio balioen arteko aldea, hartzaileak inbertsioaren arriskua hartzen duen bizi-asegurua kontratuetan.

Egotzitako errenten zenbatekoak kontratuen zenbatekoak jasotzetik sortu den etekina gutxituko du.

Ondoren azaltzen diren ezaugarrietakoren bat duten kontratuetan, ez da denbora-egozpenaren arau berezia aplikatuko:

A. Hartzaileari polizari atxikitako inbertsioak aldatzeko ahalmena ez ematea.

B. Hornidura matematikoak ondoko hauetan inbertiturik egotea:

a) Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak edo partaidetzak, kontratuetan aurrez ezarriak, baldin eta:

a') Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea egokitutako inbertsio kolektiboko erakundeak badira.

b') Kontseiluaren 1985eko abenduaren 20ko 85/611/EEE Zuzentarauaren babespeko inbertsio kolektiboko erakundeak badira.

b) Aseguru entitatearen balantzean banandurik jasotako aktiboen multzoak, ondoko baldintza hauek betetzen badira:

a') Banandutako aktibo multzo bakoitza osatzen duten aktiboak aseguru entitateak zehaztuko

ditu denbora osoan eta, horretarako, aktiboak aukeratzeko askatasun osoa izango du entitateak, baina aurrez ezarritako irizpide orokor batzuk bete beharko ditu, aktiboen multzoaren arrisku profilari edo bestelako gorabehera objektiboei buruzkoak.

b') Horniduren inbertsioa hornidura teknikoaren inbertsiorako gai diren aktiboetan egin beharko da, ondasun higiezinak eta higiezinen gaineko eskubide errealak izan ezik. Aktibo horiek azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Aseguru pribatuen antolamenduaren eta ikuskapenaren Erregelamenduaren 50. artikuluan aipatzen dira.

c') Aktiboen multzo bakoitzaren inbertsioek aseguru kontratueterako oro har ezarritako dibertsifikazio eta dispersio mugak bete beharko dituzte. Muga horiek urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Aseguru pribatuen antolamenduari eta ikuskapenari buruzko Legearen testu bateginean, haren Erregelamenduan (azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuaren bitartez onetsia) eta lege hori garatzeko ematen diren gainerako arauetan ezarrita daude.

Nolanahi ere, aktiboen multzoek baldintza horiek betetzen dituztela ulertuko da, baldin eta Europar Batasuneko bigarren mailako balore-merkatu ofizial batzuen erakusgarri den burtsa edo errenta finkoko indize jakin bat errepikatzen duen inbertsio politika bat garatzen saiatzen badira.

d') Hartzailleak zilegi izango du soilik banandutako aktibo multzoen artetik hautatzea, aseguru entitateak aseguruaren hornidura matematikoa inberti dezan, baina inoiz ez du zilegi izango esku hartzea, multzo banandu bakoitzaren barnean, hornidura horiek zein aktibo zehaztuta inbertitzen diren erabakitzeke.

Kontratu mota horietan, aseguru-hartzailleak edo aseguratuak, polizaren zehaztapenei jarraikiz, kontratuetan berariaz izendaturiko inbertsio kolektiboko erakundeetatik edo banandutako aktibo multzoetatik bat aukeratu ahalko dute, aseguru-hartzaille edo aseguratu bakoitzarentzat banakako zehaztapenik egin gabe.

Idatz-zati honek aipatzen dituen baldintzak kontratuak indarrean iraun arteko guztian bete beharko dira.

79. artikulua. Familia egoeraren zehaztapena.

Zerga honen ondoretarako kontuan hartu beharreko inguruabar pertsonalak eta familiarrak zehazteko, zergaren sorrarazpen egunean dagoen egoera aintzat hartuko da.

VIII. TITULUA Zergaren kudeaketa

I. KAPITULUA Atxikipenak eta konturako beste ordainketa batzuk

80. artikulua. Konturako ordainketak egitera behartuak.

1. Zergaren konturako ordainketak honako hauek izan daitezke:

- a) Atxikipenak.
- b) Konturako sarrerak.
- c) Ordainketa zatikatuak.

2. Zerga horri lotutako errentak ordaindu edo abonatzeko dituzten pertsona juridikoak eta entitateak, errenta-esleipeneko entitateak barne, behartuta daude erregelamenduz zehazten diren atxikipenak eta konturako sarrerak egitera. Enpresa eta lanbide jarduerak gauzatzean ordaindu edo abonatzeko dituzten errentei dagokienez, enpresaburu indibidualek eta profesionalek ere atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharko dituzte, baita Espainiako lurraldean egoiliarrek ez diren eta, hala ere, establezimendu iraunkorren bidez edo hori izan gabe bertan diharduten pertsona fisikoek, juridikoek eta gainerako entitateek ere, ordaintzen dituzten laneko errentei dagokienez.

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 28. artikuluan ezarri bezala, egoiliarra den zein ez den entitate batek berari lotutako entitate egoiliar baterako edo Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor baterako lan egiten duten subjektu pasiboak laneko errentak ordaindu edo abonatzeko dituzten pertsona fisikoek, juridikoek eta gainerako entitateek ere, ordaintzen dituzten laneko errentei dagokienez, ordaintzen dituzten laneko errentei dagokienez.

Atxikipenak eta konturako sarrerak Nafarroako Ogasun Publikoari ordaindu beharko zaizkio, erregelamenduz ezartzen diren epeak eta modua errespetatuta.

Aurreko lerroketan xedatutakoa gorabehera, ez dira atxiki beharko Altxorren Letretatik eta Zor Publikoko balioen eskualdaketak, truke edo amortizaziotik datozen errentak, Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea indarrean sartu baino lehen atxiki behar ez zirenak.

Ez da atxikipenik egingo, urte bateko iraupena baino laburragoa daukaten beka publikoetatik edo Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru

Legea aplika dakiekeen entitateek emandakoetatik sortutako errentetan, baldin eta, foru lege honen 7.h) artikulua arabera salbuetsiak ez izanik, lanaren etekintzat hartuak badira eta jasotako kopurua lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa bada.

3. Zerga honen kontura atxikipenak egin behar diren kopuruak jasotzen dituenak horiek zenbatuko ditu, sortutako kontraprestazio osoarengatik.

Atxikipena egin ez bada edo zenbatekoa behar zena baino txikiagoa izan baldin bada, jaso duenak kuotatik kenduko du atxiki behar zen kopurua.

Sortutako kontraprestazio osoa frogatzerik ez dagoenean, Zerga administrazioak zenbateko osoa bezala zenbatu ahalko du, bidezkoa den atxikipena egin ondoren benetan kobratutako kopurua izango den kopuru bat. Kasu horretan kuotari kenduko zaio, konturako atxikipen gisa, benetan jasotakoaren eta zenbateko osoaren arteko aldea.

Idatz-zati honetan xedatutakoa ez da aplikatu ondotik ematen diren kasuetan, horietan hartzaileak benetan atxikiriko kopuruak bakarrik kendu ahal izango dituela:

a) Legez ezarritako ordainsariak, sektore publikoak ordaindutakoak.

b) Lanbide edo arte jardueren etekinak.

c) Nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako jardueren etekinak.

d) Hiri ondasun higiezinaren errentamenduaren ondoriozko etekinak.

e) Erregelamendu bidez zehaztuko diren beste kasu batzuk.

4. Nolanahi ere, atxikipena edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden subjektuek sarrera Ogasun Publikoan egin beharra hartuko dute beren gain, lehenengo betebeharra ez bete-tzeak bigarren betebeharretik salbuesten ez dituela.

5. Konturako sarrera egin beharra dagoenean, uste izango da aipatutako sarrera egin dela. Subjektu pasiboak gauzako ordainsariaren balorazioa sartuko du zerga oinarrian, foru lege honetan ezarritako arauen arabera, baita konturako sarrera ere, aurretik itzuli ezean.

6. Enpresa edo lanbide jarduerak gauzatzen dituzten subjektu pasiboek Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura ordainketa zatikatuak egin beharko dituzte, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta autoliquidatuz eta haien zenbatekoa sartuz.

Beren diru-sarreretan ondore horretarako finkatzen den portzentajeko atxikipena edo konturako sarrera izan duten subjektu pasiboak betebeharrak horretatik salbuetsi ahal izango dira.

Enpresa edo lanbide jarduerak gauzatzen dituzten errenta-esleipeneko araubideko entitateei dagokien ordainketa zatikatu mota horretako errentak esleitu behar dituzten bazkide, oinordeko, komunero edo partaideetako bakoitzak egingo du, entitatearen mozkinen daukan partaidetzaren arabera.

7. Aurreko idatz-zatiek aipatutako atxikipenak eta konturako ordainketak zerga-zorra bezala hausnartuko dira, aitorpenik edo ordainketarik egiten ez denean edo betebeharrak horiek betetzean luzatzen denean, zehapen eta errekarguen aplikazioaren eta berandutze interesen likidazioaren ondoretarako.

8. Subjektu pasiboa etxebizitza aldatzeagatik halakotu bada, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipen eta konturako ordainketak, etxebizitza aldatu zen zergaldian eginak, zerga honen konturako ordainketatzat hartuko dira.

Zerga honen subjektu pasiboak ez diren inoren konturako langileek Espainiara iritsi eta izaera hori eskuratu behar badute eta Foru Komunitatean zergak ordaindu behar badituzte foru lege honen 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eman ahalko diote leku aldatze horren berri eta herrialde honetan sartu ziren eguna jakinarazi, lanaren etekinak ordaintzen dituenak zerga honen subjektu pasibotzat har ditzan. Erregelamenduz ezartzen den prozeduraren arabera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak inoren konturako langileei egiaztagiria eman go die, hori eskatuz gero; egiaztagiri horretan adieraziko da zein egunetatik aurrera egingo diren atxikipenak eta konturako sarrerak zerga horrengatik eta horren berri eman beharko diote beren lanaren etekinak ordaindu eta Espainian bizi den edo establezimendu iraunkorra daukanari.

9. Epai judizial edo administratiboaren ondorioz zerga honen atxikipen edo konturako sarrerari loturiko errenta bat ordaindu behar baldin bada, ordaindu beharreko zenbateko osoaren gainean egingo du ordaintzaileak atxikipen edo ordainketa hori, eta zenbateko hori sartu beharko du artikulua honetan ezarritakoari jarraikiz.

Lanaren etekinak direnean, erregelamenduz ezarri ahalko da atxikipena foru lege honen 17.2 artikuluan ezarritako murriztapenak egin ondoko zenbatekoari egitea.

10. Zerga honen konturako ordainketatzat hartuko dira Kontseiluaren ekainaren 3ko 2003/48/EE Zuzentarauaren 11. artikuluan xedatutakoaren ondorioz egiten diren konturako atxikipenak. Zuzentaru hori aurrezkiek interesen ordainketa gisa ematen dituzten etekinen fiskalitateari buruzkoa da.

81. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion atxikipen eta konturako sarrerak, lanaren etekinei, enpresa eta lanbide jardueri, higigarrien kapitalari, ondare gehikuntza jakin batzuei eta konturako beste ordainketa batzuei buruzkoak.

Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion iturriko atxikipenak eta konturako sarrerak Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako irizpideen arabera egingo dira.

II. KAPITULUA Prozeduraren hasiera

82. artikulua. Aitorpena egiteko betebeharra.

1. Zerga horrengatiko aitorpena aurkeztu eta sinatu behar dute zerga horren mendeko errentak eskuratzen dituzten subjektu pasiboek, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta.

Aitorpena aurkeztera beharturik egon gabe atxikipen edo konturako sarrerak izan, edo kuota likidua gainditzen duten ordainketa zatikatuak egin dituzten subjektu pasiboek zilegi izango dute gertzen den kopurua itzultzeko eskatzea, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta eta prozeduraren arabera.

2. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aitorpen mota sinplifikatuak edo bereziak erabiltzea onetsi ahal izango du.

Aitorpena egiteko, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezartzen dituen modua, epeak eta inprimakiak erabiliko dira.

Subjektu pasiboek aitorpenetan agertu eta eragiten dieten datu guztiak bete, ezarritako agiriak eta frogagiriak eman eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehazten dituen lekuetan aurkeztu beharko dituzte.

3. Baterako zerga-ordainketari buruzko aitorpena adinez nagusiak diren eta, hala denean, adingabeen izenean jarduten duten familia unitateko kideek sinatu eta aurkeztuko dute.

4. Banakako zerga-ordainketa aukeratzen duten familia unitateen kasuan, kide bakoitzak bere aitorpena sinatuko du, ordezkariaren bidez jardutearen kalterik gabe.

5. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aitorpenak eska ditzake eta horiek gehitzea ere bai, eta orobat antzeman diren okerrak zuzentzea ere, zerga egiaztatu eta likidatzeko beharrezkoa den neurrian.

6. Aitorpenak egiazkotzat jotzen dira eta subjektu pasiboak baino ezin ditu zuzendu, horiek egitean egitezko okerra egin dela frogatu ondoren.

83. artikulua. Autolikidazioa.

1. Zerga honen aitorpena aurkeztu behar duten subjektu pasiboek, aitorpena aurkezteaz gainera, euren zerga-zorra zehaztu behar dute eta errege-lamenduz zehazten diren lekuan, moduan eta epeetan sartu behar dute.

2. Autolikidazioaren ondoriozko zenbatekoaren sarrera erregelamenduz zehazten den moduan zatikatu ahal izango da, inolako interes eta errekargurik gabe.

3. Zilegi izango da zerga-zorra ordaintzeko Espainiako Ondare Historikoaren osagai diren ondasunak entregatzea, Ondasun Higigarrien Inbentario Orokorrean edo Interes Kulturalako Ondasunen Erregistro Orokorrean inskribaturik badaude, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta.

Halaber, zilegi izango da zerga-zorra ordaintzeko Nafarroako Gobernuak horretarako propio interes kulturalerikotzat deklaraturiko bestelako ondasunak entregatzea.

84. artikulua. Autolikidaziorako proposamena.

1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak autolikidaziorako proposamena bidal diezaike subjektu pasiboek, Departamentu horretako kontseilariak ezarri bezala.

Aipatutako proposamenaren ondorioz gerta daiteke diru-sarrerak itzuli beharra. Horiek baliokidetu edo erregularizatuko dira artikuluko honen hurrengo idatz-zatietan xedatutakoaren arabera.

2. Subjektu pasiboak uste badu autolikidaziorako proposamenaren zuzen izan dela zerga honen ondoretarako duen zerga egoera, berretsi ahal du, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ezarri bezala. Kasu horretan, proposamena aitorpena eta autolikidazioa ere izango da zerga horrengatik, foru legearen 82. eta 83. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

3. Autolikidaziorako proposamenak diru-kopuru bat itzuli beharra xedatzen badu, berretsiz joko da, betiere artikuluko honen 1. idatz-zatian ezarritako itzulketa jaso ondoren, subjektu pasiboak zerga

horrengatik aitorpena aurkezten ez badu horretarako ezarritako epe arruntean.

4. Autolikidaziorako proposamenak diru-kopuru bat sartu beharra xedatzen badu, berretsiztat joko da, zerga osorik edo haren zatiketaren lehen zatia erregelamenduz hori sartzeko adierazitako epearen barnean ordainduz. Autolikidaziorako proposamenak agintzen duen diru-kopurua Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ezartzen dituen lekuan, moduan eta epeetan sartuko da.

Zorrari dagokion kopurua, osorik edo haren zatiketaren lehen zatia erregelamenduz hori sartzeko adierazitako epearen barnean ordaintzen ez bada, artikuluan honen 7. idatz-zatian ezarritako ondorioak beteko dira.

5. Subjektu pasiboak autolikidaziorako proposamena berresteak ez du galaraziko, kasua bada eta araudi orokorrari jarraikiz, autolikidazioaren zuzenketak egiteko edo zuzenak ez ziren diru-sarrerak itzultzeko eskaera.

Zerga administrazioak ez ditu likidazioak parekatu beharko autolikidaziorako proposameneko datuekin, subjektu pasiboek proposamena berretsi badute ere.

6. Autolikidaziorako proposamena berretsiztat jotzeko unea edozein dela, eta haren gaineko kasu guztietan, zerga-zorra zehazteko ahalmena iraungitzezko preskripzio-aldia aitorpena aurkezteko dagoen arauzko epea bukatzen denetik aurrera hasiko da.

7. Subjektu pasiboak autolikidaziorako proposamena berresten ez badu, ondorerik gabe geratuko da, baina horrek ez du galaraziko inola ere subjektu pasiboa aitorpena aurkeztu beharretik salbuetsita egotea, foru lege honen 82. eta 83. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Erregelamenduz adierazitako epearen barnean autolikidazioa aurkezten bada, ulertuko da autolikidaziorako proposamena berretsi ez dela.

Berretsi gabeko autolikidaziorako proposamenari dagokion dirua itzuli edo sartu egiten bada, subjektu pasiboak bidezkoa den erregularizazioa egin beharko du, erregelamenduz aitorpena aurkezteko adierazitako epeetan. Erregularizazio horrek ez du sortuko, ez berandutze interesik, ez zehapen ezarpenik.

III. KAPITULUA Likidazioa

85. artikulua. Ofiziozko itzulketa.

1. Foru lege honen 66. artikuluan d) letran aipatutako Ez-egoiliarren errentaren gaineko zer-

garen atxikipenak, konturako sarrerak, ordainketa zatikatuak eta kuotak batuta, eta, hala denean, foru lege honen 68. bis artikuluan ezarritako kenkaria ere gehituta, ateratzen den kopurua ezarritako epean aurkeztutako autolikidazioaren kuota baino handiagoa izanez gero, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, beharrezkoa bada, behin-behineko likidazioa egingo du, aitorpena aurkezteko epea bukatu eta ondoko sei hilabeteetan.

Likidazio hori ez da beharrezkoa izango, itzultitako zenbatekoa bat datorrenean subjektu pasiboak aitorpen-likidazioan edo autolikidazioan eskatutakoarekin.

Aitorpena epez kanpo aurkeztu baldin bada, aurreko lerroak aipaturiko sei hilabeteak aurkezpen egunetik aurrera zenbatuko dira.

2. Baldin eta batzen badira foru lege honen 66. artikuluan d) letrak aipaturiko Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kontura egiazki atxikitako kopuruak, eginiko konturako ordainketak eta kuotak eta, hala denean, foru lege honen 68. artikuluan aipaturiko kenkaria, eta horien batura baino txikiagoa bada autolikidazioaren edo, hala balitz, behin-behineko likidazioaren ondoriozko kuota, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak bere kabuz itzuliko du aipatutako kuotaren gaineko soberakina, deusetan galarazi gabe egoki diren ondorengo behin-behineko nahiz behin betiko likidazioak.

3. Behin-behineko likidazioa aurreko 1. idatz-zatian ezarritako epean egin izan ez bada, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ofizioz itzuliko du autolikidazioaren ondoriozko kuotaren gaineko soberakina, bidezkoak izan daitezkeen likidazioak, behin-behinekoak nahiz behin betikoak, galarazi gabe.

4. Artikulu honen 1. idatz-zatian ezarritako epea Ekonomia eta Ogasun Departamentuari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik itzulketa egiteko agindurik eman gabe igaro bada, itzuli beharreko kopuruari Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 50.2.c) artikulua aipatutako berandutze interesa aplikatuko zaio, epe hori amaitu eta hurrengo egunetik aurrera eta ordainketa agintzen den egunera arte, subjektu pasiboak hala eskatu beharrik izan gabe.

5. Artikulu honek aipatzen duen ofiziozko itzulketa egiteko prozedura, betekizunak eta ordaintzeko modua erregelamendu bidez zehaztuko dira.

IV. KAPITULUA Betebehar formalak

86. artikulua. Subjektu pasiboan betebehar formalak.

1. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak beren aitortzen agertu beharreko mota guztietako eragiketa, errenta, gastu, diru-sarrera, murriztapen eta kenketen frogagiriak eta egiaztagiriak gorde beharko dituzte, zergaren preskripzio-aldian.

2. Foru lege honen ondoretarako, etekina zuzeneko estimazioko araubidean zehazten duten enpresa jarduerak garatzen dituzten subjektu pasiboak Merkataritza Kodean ezarritakoarekin bat datorren kontabilitatea egin beharko dute.

Hala ere, Merkataritza Kodearen arabera merkataritza izaerarik gabeko enpresa jarduera burutzen duten zergadunak betebehar horretatik salbuetsi ahal izango dira erregelamenduz, baita beren etekin garbia zuzeneko estimazioko araubidearen modalitate sinplifikatuaren bidez zehazten duten subjektu pasiboak ere.

3. Halaber, zergaren subjektu pasiboak erregelamenduz ezartzen diren liburuak edo erregistroak egin beharko dituzte, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehazten duen moduan.

4. Erregelamenduz ondareari buruzko informazioa emateko berariazko betebeharrak ezarri ahal izango dira, Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren edo Ondarearen gaineko zergaren aitortzen aurkeztearekin batera, errentak edo subjektu pasiboak zenbait ondasun eta eskubideren erabilerak kontrolatzeko.

5. Ezgaitasunak dituzten pertsonen ondarea babesteko eta, xede berberarekin, Kode Zibila, Auziperatze zibilari buruzko Legea eta Zerga arloko Araudia aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legean araututako ondarearen titularrak diren zergaren subjektu pasiboak aitortzen bat aurkeztu beharko dute ondare horren osagaiak adierazteko, hala nola zergaldian jasotako ekarpenak eta erabilitako dirua, erregelamenduz ezarritako denaren arabera.

87. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebehar formalak.

1. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituen subjektuak atxikitako diru-kopuruen edo egindako konturako ordainketen aitortzen aurkeztu beharko du, edo horiek egitea bidezkoa ez zenean, aitortzen negatiboa, erregelamenduz ezartzen diren epeetan, moduan eta lekuetan. Halaber, atxikipen eta konturako sarreraren urteko

laburpena aurkeztuko du, erregelamenduz zehazten den edukia izango duena.

Atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituen subjektuak agiri egokiak gorde, eta, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak errespetatuta, egindako atxikipen edo konturako sarreraren egiaztagiriak egin beharko ditu.

Aitortzen ereduak Ekonomia eta Ogasun Departamentuak onetsiko ditu.

2. Erregelamenduz hurrengo eragiketarako garatzen dituzten edo hurrengo egoeretan dauden pertsona eta entitateei informazioa emateko betebeharrak ezarri ahal izango dira:

a) Entitate mailegu-emailetarako, etxebizitzak erosteko emandako hipoteka maileguei dagokienez.

b) Atxiki beharrik ez daukaten lan edo kapital errentak ordaintzen dituzten entitateetarako.

c) Sariak ordaintzen dituzten entitate eta pertsona juridikoentzat, zergaren ondoretarako salbuetsitako errentak izan arren.

d) Zerga horrengatik kenkaria izateko eskubi-dea ematen duten dohainak jasotzen dituzten entitateetarako, emailearen nortasunari zein jasotako zenbatekoei dagokienez, zerga horrengatik aitortzen ondoretarako dohainaren egiaztagiria eskatu denean.

e) 7. artikuluan f) letran araututako sari salbuetsiak ordaintzen dituzten entitateetarako.

f) Kreditu entitateetarako, bertako etxebizitzakontuetan ezarritako diru-kopuruei dagokienez. Horretarako, subjektu pasiboak kreditu entitatearen aurrean helburu horretarako kontua zein den adierazi beharko dute.

88. artikulua. Errenta-esleipeneko araubidean dauden entitateek informazioa emateko betebeharrak.

1. Errenta-esleipeneko araubideko entitateek informazio aitortzen aurkeztu beharko dute, Espainiako lurraldean egoiliarren diren zein ez diren bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei esleitu beharreko errentei buruzkoa. Edukia erregelamendu bidez zehaztuko da.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako informazio aitortzen honakook eman beharko dute: errenta-esleipeneko araubideko entitatearen ordezkaria, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 36.4 artikuluan agindutakoaren arabera, edo, atzerrian eraturako entitateen kasuan, berriz, Sozietateen gaineko zergaren edo zerga honen subjektu pasiboak diren kideak.

3. Errenta-esleipeneko araubideko entitateek beren bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei jakinarazi beharko dizkiete entitatearen errenta osoa eta haietako bakoitzari esleitu ahal zaion errenta, erregelamenduz ezarri bezala.

Horretarako, zergaren aitorpena egiteko epea hasi baino lehen, bazkide, oinordeko, komunero edo partaide bakoitzari erregelamenduak zehaztutako datuen egiaztagiriak emango zaizkio. Subjektu pasiboek egiaztagiri horiek aurkeztu beharko dituzte zergaren aitorpen-likidazioarekin batera.

4. Ekonomia eta Ogasun kontseilariak adieraziko du zein eredutan, zein epetan, non eta nola aurkeztu behar den artikulu honetan aipatutako informazio aitorpena.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Gauzazko ordainsariak.

Ez dira gauzazko ordainsaritzat joko diruaren legezko interes-tasa baino txikiagoa daukaten, 1992ko maiatzaren 25a baino lehen eman diren, Hitzarmen Kolektiboen babesean egin diren eta egun horren aurretik zenbateko nagusia mailegatzailaren esku jarri duten maileguak.

Bigarrena. Bikote egonkorak eta ezkontideak parekatzea.

Foru lege honen ondoretarako, bikote egonkor bateko kideak ezkontidetzat hartuko dira. Horiek ordaindu beharreko zergaren ordainarazpenari dagokionez, Foru Komunitatean foru lege honen 4. artikuluan xedatutakoa hartuko da aintzat.

Hirugarrena. Zerga arloko informazioa ematea.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak, foru agindu bidez, arautu ahal izango du zerga arloko informazioa nola eman behar den, Tributuak buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 105.1 artikulua ezarritako kasuetan, baita administrazio publikoek beren eginkizunak burutu ahal izateko informazioa nola eman behar duten ere, interesdunek horretarako baimena eman ondoren.

Laugarrena. Informazio betebeharrak.

1. Erregelamendu bidez, zilegi izango da beren akzio edo partaidetzekin eginiko eragiketei buruzko informazioa, baita akzio edo partaidetza horiek erosi zein saltzeko eragiketen emaitzei buruzkoa ere, emateko betebeharra ezartzea ondoko hauei: inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten sozietateak, inbertsiorako sozietateak, helbidea atzerrian daukaten inbertsio kolektiboko erakundeak akzio edo partaidetzak Espainiako

lurraldean merkaturatzen dituzten entitateak eta foru lege honen hamazazpigarren xedapen gehigarriari jarraikiz izendatu eta zerbitzuak aske emateko araubideari loturik diharduen ordezkaria.

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak behartuta egongo dira paradisu fiskal gisa sailkatutako herrialdeei edo lurraldeei zuzenean nahiz zeharka lotutako balioak edo ondasunak edukitzetik datozen eragiketei, egoerei, kobrantzei eta ordainketei buruzko informazioa ematera, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

3. Horretaz gain, erregelamenduaren bidez ezarri ahalko da informazioa eman beharra ondoko kargura:

a) Aseguru entitateak, merkaturatzen dituzten eta foru lege honen 55.1 artikuluan aipatzen diren aseguratutako aurreikuspen planei, enpresaren gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruak dagokienez.

b) Finantza entitateak, merkaturatzen dituzten eta foru lege honen 30.1.g) artikulua aipatzen dituen aurrezki sistematikoaren banakako planei dagokienez.

c) Gizarte Segurantzako erakundeak eta mutualitateak, beren kide eta mutualistek sortutako kotizazio eta kuotei dagokienez.

d) Erregistro Zibilak, jaiotzei, adopzioei eta heriotzei buruzko datuei dagokienez.

4. Bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek eta banku edo kredituen trafikoa aritzen diren pertsona fisiko edo juridikoek, erregelamenduak ezarritako baldintzei jarraikiz, Zerga administrazioari eman beharko diote entitate horietan irekitako kontu guztien identifikazioa, edo entitateek hirugarrenen esku jarritakoena, betetzen duten modalitatea edo hartzen duten izena edozein dela ere, atxikipenak edo konturako sarrerak egin ez dituztenean ere. Besteak beste, kontuen titularren zein baimendutako pertsonen edo onuradunen identifikazioa sartuko da informazio horretan.

5. Ezgaitasunak dituzten pertsonen ondarea babesteko eta, xede berberarekin, Kode Zibila, Auziperatze zibilari buruzko Legea eta Zerga arloko Araudia aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legearen 3. eta 4. artikuluen arabera, ondare babestuei ekarpenak egiteko egintzen formalizazioetan parte hartzen duten pertsonak ekarpen horiei buruzko aitorpena aurkeztu beharko dute, erregelamenduz ezartzen denaren arabera. Aitorpena egiteko, Ekonomia eta Ogasun kontsei-

lariak ezartzen dituen lekua, modua eta epeak erabiliko dira.

Bosgarrena. Judizialki ezgaituta dauden elbarriei aplikatu ahal zaien araubidea.

Zerga neurriei buruzko abenduaren 30eko 19/1999 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarria, judizialki ezgaituta dauden elbarriei zergen ondoreetarako aplikatu dakiekeen araubideari buruzkoa, xedatu bezala aplikatuko da, indarrean dagoen bitartean.

Seigarrena. “1999 Done Jakueren urtea” eta “Compostelako Donejakue - Europako Kulturaren Hiriburua 2000. urtean” ekimenei aplikatu ahal zaizkien zerga onurak.

“1999 Done Jakueren urtea” eta “Compostelako Donejakue - Europako Kulturaren Hiriburua 2000. urtean” ekimenei buruz estatuko araudian ezarritako zerga onurak Nafarroan aplikatuko dira.

Zazpigarrena. Hondamenekin eta kultur edo kirol arloko aparteko gertakari jakin batzuekin zerikusia duten zerga onurak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondoreetarako, honako xedapen hauek aplikatuko dira, xedatu bezala, indarrean dauden bitartean eta eskatutako betekizunak eta baldintzak errespetatuta:

a) Zerga neurriei buruzko abenduaren 30eko 19/1999 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarria, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan 1996ko abuztuaren 7an Biescasko uholdeek sortutako kalte pertsonalak konpontzeko laguntza publikoak zerga honetatik salbuesteari buruzkoa.

b) Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen 10. artikulua, “2004 Done Jakueren urtea” garatzeari lotutako eragiketek jaso ditzaketan eta estatuko legedian araututa dauden zerga onurei buruzkoa.

d) Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 30eko 35/2003 Foru Legearen hamabigarren xedapen gehigarria, “2005ean Almerian egindako Mediterraneoko XV. Jokoei” aplikatu dakizkiekeen zerga onurei buruzkoa.

Zortzigarrena. Zerga oinarrian sartzen ez diren laguntzak.

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria aplikatuko da, xedatu bezala, indarrean dagoen bitartean eta kasu bakoitzean eskatutako betekizunak eta baldintzak errespetatuta.

Xedapen horrek honakoa dio: ez dira sartuko Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarrian bai nekazaritzako politika komunen zenbait laguntza, bai errepideko garraioaren jarduerari nolabait uzteko laguntzak, bai zirkuntantzia katastrofiko batzuegatik enpresa jardueren ekitaldiari lotutako ondare elementuen suntsidura konpontzeko helburua daukaten laguntza publikoak jasotzearen ondorioz agertzen diren errenta positiboak.

Bederatzigarrena. Nekazari gazteentzako zerga onura bereziak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondoreetarako, uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuak onetsitako Nafarroako nekazaritza ustiatzearen erregistroari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 23. artikulua eta lehenengo xedapen gehigarria aplikatuko dira, xedatu bezala, indarrean dauden bitartean eta eskatutako betekizunak eta baldintzak errespetatuta. Horiek beren jardueraren etekin garbia estimazio objektiboko araubidearen bidez zehazten duten nekazari gazteen zerga onura berezietan buruzkoak dira: zenbait baldintza betez gero, beren nekazaritza jarduerari dagokiona %50 baino gehiago murriztu ahal izango dute, lehentasunezko ustiatze baten titular lehenengoz bihurtu direnetik hurrengo bost urteetan amaitutako zergaldietan.

Hamargarrena. Paradisu fiskal gisa sailkatutako herrialdeak edo lurraldeak.

Zerga honen ondoreetarako, paradisu fiskaltzat joko dira estatuko araudiak erregelamenduz horrelakotzat jotzen dituenak. Araudi horri heldu behar ko zaio, zerga-ordainketa balio gabeari eta zerga arloko informazioaren benetako trukeari dagokienez.

Hamaikagarrena. Ceutan eta Melillan eskuratutako errentak.

Ceutan edo Melillan errentak eskuratzen dituzten subjektu pasiboek estatuko araudian ezarritako kenkariak aplikatuko dituzte.

Hamabigarrena. Estatuko araudiaren aplikazioa.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek dagokienez, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko da, indarrean dagoen bitartean. Horrek zehazten du Nafarroan hurrengo arloetan lurralde komunean indarrean dagoen araudia aplikatuko dela, Nafarroako araudiaren ordeztu.

a) Meatzaritza eta hidrokarburoen ikerketa eta ustiaketaren zerga araubidea.

b) Sevillako 1992ko mundu osoko erakusketari, Amerikaren aurkikuntzaren V. mendeurrenaren oroitzapenezko ekitaldiei eta Bartzelonako 1992ko Joko Olinpikoei buruzko zerga onurei buruzko maiatzaren 25eko 12/1988 Legean, aurrekontu, finantza eta zerga arloko neurriei buruzko ekainaren 29ko 5/1990 Legean eta Madril, Europako 1992ko Kultur Hiriburuari buruzko zerga onurei buruzko abenduaren 27ko 30/1990 Legean ezarritako zerga araubidea.

c) Birmoldaketa eta berrindustrializazioari buruzko uztailaren 26ko 27/1984 Legean ezarritako zerga onurak.

d) Espainiako lurraldean egoiliarrek ez direnei eta nazioarteko erakundeei buruzko xedapenak.

e) Sistema elektriko nazionalaren antolamenduari buruzko abenduaren 30eko 40/1994 Legea.

f) Inbertsio koefiziente, norberaren baliabide eta finantza-bitartekarien informazio betebeharrak buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritako zerga araubidea.

g) Balioen mailegu batzuen zerga araubidea.

Hamahirugarrena. Elbarritasuna duten pertsonen alde egindako gizarte aurreikuspeneko sistemarako ekarpenen eta prestazioen zerga araubidea.

1. Elbarritasuna duten pertsonen alde egindako pentsio planetarako ekarpenei, baldin eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko estatuko araudian ezarritako betebeharrak, ezauzgarriak eta baldintzak betetzen badituzte, eta haie-tatik datozen prestazioei ondoko zerga araubidea aplikatuko zaie:

a) Zilegi izango da pentsio plan horietara sartzen diren dirutzei murriztapena egitea Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zati orokorrean, gehieneko muga hauek kontuan hartuta:

a') Partaide bakoitzak bere ahaide elbarri baten alde urtean egindako ekarpenen kasuan: 10.000 euro urtean.

Horrek ez die galarazten beren pentsio planetan ere dirua sartzea, foru lege honen 55. artikulua ezartzen dituen mugen barnean.

b') Partaide elbarriek berek urtean egindako ekarpenak: 24.250 euro urtean.

Elbarri beraren alde ekarpenak egin dituzten pertsona guztien murriztapenak, elbarriarenak

barne, guztira, ez dira inoiz 24.250 eurotik gorakoak izango urtean. Hartarako, elbarri baten alde ekarpen bat baino gehiago egiten badira, aurrena elbarriak berak egindako ekarpenei egin beharko zaie murriztapena, eta horiek 24.250 euroko muga horretara iristen ez direnean soilik egin ahal izango zaie murriztapena haren alde beste pertsona batzuek eginiko ekarpenei, euren zerga oinarrian eta proportzionalki. Edozein kasutan ere, elbarri beraren alde ekarpenak egin dituzten pertsona guztien murriztapenak, guztira, ez dira inoiz izango 24.250 eurotik gorakoak.

b) Elbarriek errenta gisa jasotako prestazioetatik datozen lanaren etekinek, xedapen honek aipatzen dituen ekarpenei dagozkienek, murriztapena izango dute zerga honetan, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako hiruraino.

Elbarriek kapital gisa jasotako prestazioen kasuan, xedapen honek aipatzen dituen ekarpenei buruzkoak badira, foru lege honen 17.2 artikulua- ren b) eta c) letretan jasotako murriztapena %60koa izango da.

2. Xedapen gehigarri honetan ezarritako araubidea aplikatuko zaie gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara, aseguratutako aurreikuspen planetara, enpresaren gizarte aurreikuspeneko planetara eta mendekotasun larria edo mendekotasun handia baizik estaltzen ez duten aseguru- etara (Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatzen denaren arabera), Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko estatuko araudian ezarritako baldintzak eta erregelamendu bidez finkatzen direnak betetzen dituzten elbarrien alde egindako ekarpenei eta prestazioei, baita haie-tatik guztietatik jasotakoei ere. Kasu horretan, ezarritako mugak berdina izango dira hamahirugarren xedapen gehigarrian ezarritako gizarte aurreikuspeneko sistema guztietarako.

Pentsio plan eta funtsen Araudian ezarritakoak ez bezalako kasuetan, gizarte aurreikuspeneko mutualitate horien eskubide kontsolidatuak erabiltzearen ondorioak foru lege honen 55. artikulua- ren 1. idatz-zatiaren 2. puntuaren b) letraren bigarren lerrokadan ezarritakoak izango dira.

3. Elbarritasuna duten pertsonen alde gizarte aurreikuspeneko sistemetan egiten diren ekarpenei, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren estatuko araudian ageri diren pertsonak egindakoei, ez zaie Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga aplikatuko.

Hamalauugarrena. Ezgaitasunak dituzten pertsonen ondare babestuari egindako ekarpenen zerga araubidea.

Ezgaitasunak dituzten pertsonen ondarea babesteko eta, xede berberarekin, Kode Zibila, Auziperatze zibilari buruzko Legea eta Zerga arloko Araudia aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legean arautzen diren ekarpenei, hau da, ezgaitasunak dituzten pertsonen ondare babestuari egindakoei, ondoko zerga araubide hau aplikatuko zaie:

1. Ezgaitasuna duen subjektu pasiboari.

a) Ekarleak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak direnean, urtean ekarle bakoitzeko 10.000 eurora arteko kopurua eta, osotara, 24.250 eurora arteko kopurua hartuko da lanaren etekintzat.

Horrez gainera, aurreko lerrokadan ezarritako mugak gorabehera, ekarleak Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak direnean, urtean 10.000 eurora arteko kopurua lanaren etekintzat hartuko da, betiere Sozietateen gaineko zergan gastu kengarri gisa agertu bada.

Etekin horiek ezgaitasuna duen subjektu pasiboaren zerga oinarrian sartuko dira, ondare babestuaren titularrarenean, hain zuzen. Etekinetako zenbatekoa eta, horrelakorik badago, foru lege honen hamahirugarren xedapen gehigarriaren 1.b) idatz-zatian aipatzen diren errenta gisako prestazioak batu ondoren, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) halako hiru gainditzen duen zenbatekoa hartuko da aintzat.

Ekarpenak Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek egiten dituztenean, eta beren menpe dauden langileen ahaide edo ezkontideen edo langileek tutoretza, harrera edo umeordetza araubidean dituzten pertsonen ondare babestuaren aldekoak badira, lanaren etekinen izaera ondare babestuaren titularrarentzat izango dute, bakar-bakarrik.

Letra honetan azaldu diren etekinetan ez da atxikipenik edo konturako sarrerarik egin beharko.

b) Diruzkoak ez diren ekarpenen kasuan, ondare babestuaren titularra den eta ezgaitasuna duen subjektu pasiboa ekarlearen tokian subrogatuko da kasuko ondasun eta eskubideen erosketaren balioa eta eguna finkatzeari dagokienez, baina ondorengo eskualdaketetan ezin izango zaio aplikatu foru lege honen zazpigarren xedapen iragan-korrean ezarritakoa.

Diruzkoa ez den ekarpenetik Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren menpe dagoen zatia-

ri foru lege honen 42. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaio.

c) Eskuratzailarentzat lanaren etekinen izaera duen ekarpenen zatia ez da Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren menpe egongo.

2. Ekarleari.

a) Maila guztietako zuzeneko ahaideek edo hirugarren mailara arteko alboko ahaideek familian ezgaitasuna duen pertsona baten ondare babestuari egindako ekarpenek eskubidea ematen dute ekarleak zerga oinarrian kenkaria egiteko, urtean 10.000 euro gehienez. Berdin jokatuko da ekarpena ezgaitasuna duen subjektu pasiboaren ezkontideak egin badu edo haren kargura dauden beste pertsona batzuek, tutoretza araubidean eduki, harrera araubidean (Kode Zibilaren 73. eta 74. artikuluan eta hurrengoetan arautua) edo umeordetza araubidean (Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumaren 73. eta 74. legeek edo beste autonomia erkidego bateko ordenamendu juridiko zibilean izaera bera duten beste erakunde batzuek arautua). Ondare babestu bakoitzerako diru-ekarle guztien artean egindako ekarpenei dagozkien murriztapenen multzoa, urtean, ezin da 24.250 eurotik gorakoa izan. Kopuru hori gaindituz gero, ekarpen bakoitzari dagokion murriztapena gutxitu beharko da, modu proportzionalen.

Foru lege honen 55. artikularen 7. idatz-zatiaren 1. arauaren ondoretarako, murriztapen horiek 55. artikularen 1. idatz-zatian ezartzen direnekin batera egingo dira.

b) Aurreko letran ezarritako mugetatik gorako ekarpenek zerga oinarria murrizteko eskubidea emango dute hurrengo bost zergaldietan, harik eta, haietako bakoitzean, murriztapenaren gehieneko mugara iritsi arte.

Zergaldi berean baldin badaude ekitaldi horretan egindako ekarpenengatik zerga oinarriaren murriztapenak eta aurreko ekitaldietatik egiteko dauden beste murriztapen batzuk, lehenbizi aurreko ekitaldietako ekarpenen ondoriozko murriztapenak egingo dira, murriztapenaren gehieneko mugara iritsi arte.

c) Diruzkoak ez diren ekarpenen kasuan, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen 34. eta 38. artikuluetan ezarritakoaren ondoriozko emaitza hartuko da ekarpenaren zenbatekotzat.

d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek egiten dituzten ekarpenak beren enpresa edo lanbide jardueri atxikita dau-

den elementuak direnean, ez dute murriztapena egiteko eskubiderik sortuko.

Ondare babestuaren titularra den eta ezgaitasuna duen subjektu pasiboak berak egindako ekarpenek ez dute murriztapena egiteko eskubidea emango inola ere.

3. Ondasun edo eskubideen erabilera.

Ezgaitasuna duen pertsonaren ondare babestuari egindako ekarpeneko ondasun edo eskubideak ekarpena egin den zergaldi berean edo hurrengo lau zergaldietan erabiliz gero, zerga betebeharrak sortuko dira:

a) Ekarlea Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboa baldin bada, zerga oinarrian egindako murriztapenei dagozkien kopuruak sartu beharko ditu ondasun-eskubideak erabiltzen hasten diren zergaldiko zerga oinarrian, hots, egindako erabiltzeei eta bidezko berandutze interesei dagozkienak.

b) Ekarlearen izaera edozein delarik ere, ekarpena jaso duen ondare babestuaren titularrak ekarpena jaso zuen zergaldian xedapen gehigarri honen 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera sartu gabe utzi zuen kopurua sartu beharko du ondasun-eskubideak erabiltzen diren zergaldiko zerga oinarrian, gehi bidezko diren berandutze interesak.

Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibok egindako ekarpena bere kargura dauden langileen ahaideen, ezkontideen edo -xedapen gehigarri honen 1. idatz-zatiaren a) letran aipatzen den tutoretza, harrera edo umeordetza araubidean ardurapean duen beste pertsona baten ondare babestuan sartzeko izan baldin bada, aurreko lerrokadan azaldutako betebeharrak langileak izango du.

Letra honetan eta aurreko a) letran zerga oinarrian sartzeko ezarri den eginbeharraren ondoretarako, foru lege honen 55. artikulua 1. idatz-zatiaren 2. puntuaren b) letraren bigarren lerrokadan xedatutakoa aplikatuko da.

c) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 68.bis artikulua 3. zenbakian xedatutakoaren ondoretarako, ondare babestuaren titularra den langileak zergaldian egin dituen erabiliren berri eman beharko dio ekarpena egin duen enplegu-emaileari.

Ondasunen erabilera langileen ahaideen, ezkontideen edo aurreko lerrokadan aipatutako tutoretza, harrera edo umeordetza araubidean haien kargura dauden pertsonen ondare babestuan egiten den kasuetan ere, aurreko lerrokadan

aipatutako jakinarazpena langileak egin beharko du.

Jakinarazpenik ez egitea edo jakinarazpen faltsua, osagabea edo zehaztasunik gabekoa egitea zerga arloko arau-hauste arina izango da. Arauhauste horri 6 eurotik 900 euro bitarteko zehapena dagokio.

3. idatz-zati honetan ezarritako ondoretarako, ondasun edo eskubideetan homogeneotasuna gertatzen bada, lehenbizi eman zirenak erabili direla ulertuko da.

Ondare babestuaren titularra, ondasun-ekarlea edo Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 68.bis artikulua 3. zenbakian aipatzen diren langileak hilez gero, idatz-zati honetan ezarritakoa ez da aplikatuko.

Hamabosgarrena. Kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitatearen ekarpen eta prestazioen zerga araubidea.

Kirolari profesionalen mutualitateari egiten zaizkion ekarpenei (prima finakoaren bidezko gizarte aurreikuspeneko mutualitatea), baldin eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko estatuko araudian ezarritako betebeharrak, ezauzgarriak eta baldintzak betetzen badituzte, bai eta haietatik datozen prestazioei ere, ondoko zerga araubidea aplikatuko zaie:

a) Egindako ekarpenengatik, hala zuzenekoengatik nola egotzitakoengatik, murriztapena egin ahalko da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarriaren zati orokorrean; horretarako muga izango da lanarengatik eta lanbide edo enpresa jarduerengatik ekitaldian banaka jasotako etekin garbien batura, eta betiere urtean 15.025,30 euroko zenbatekoa gainditu gabe.

b) Aurreko a) letran ezarritako muga aplikatzearen ondorioz zerga oinarrian murriztapenik egin ahal izan ez zaien ekarpenei hurrengo bost ekitaldietan egin ahal izango zaie. Arau hau ez zaie aplikatuko foru lege honen hamahirugarren xedapen gehigarriaren 1. idatz-zatiaren a) letraren b') azpiletran ezarritako muga gainditzen duten ekarpenei.

c) Pentsio plan eta funtsen Araudian aipatutakoak ez bezalako kasuetan, gizarte aurreikuspeneko mutualitate horien eskubide kontsolidatuak erabiltzearen ondorioak foru lege honen 55. artikulua 1. idatz-zatiaren 2. puntuaren b) letraren bigarren lerrokadan ezarritakoak izango dira.

d) Jasotako prestazioek, bai eta kontsolidatutako eskubideak Pertsona fisikoen errentaren gaineko

ko zergaren estatuko araudian ezarritako kasuetan jasotzeak, lanaren etekin gisa ordainduko dituzte zergak oso-osorik.

e) Aurreko letretan ezarritako araubide berezia alde batera utzita, kirolari profesionalek eta goi mailakoek zilegi izango dute kirolari profesionalentzako gizarte aurreikuspeneko mutualitateari ekarpenak egitea, kirolari profesional gisa lan-bizitza bukatu edo goi mailako kirolarien izaera galdu badute.

Ekarpen horiek Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarriaren zati orokorrean murriztapena egiteko aukera eman ahal dute, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 8.6 artikuluan ezarritako inguruabarrak estaltzeko xedea duten neurrian.

Mutualisten eskubide kontsolidatuak, pentsio planei dagokienez, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 8.8 artikuluan ezarritako kasuetan baino ezin izango dira bihurtu.

Ekarpen horien murriztapenaren gehieneko muga, osotara, foru lege honen 55.1.7 artikuluan ezarritakoa izango da.

Hamaseigarrena. Aurrezki kutxen partaidetza-kuotak.

Aurrezki kutxen partaidetza-kuotek izango duten zerga araubidea, kasu guztietan eta zerga-figura guztietan, eta ondorio guztietarako, entitateen akzioek eta entitateen kapital sozialeko edo funts berekietako partaidetzek duten zerga araubide berbera izango da, indarrean dauden legeekin eta garapen arauekin bat.

Hamazazpigarrena. Zerbitzuak aske emateko araubideari loturik diharduten aseguru entitateek izendaturiko ordezkariaren zerga betebeharrak, bai eta araubide horri loturik diharduten inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten entitateek izendaturiko ordezkariaren zerga betebeharrak ere.

1. Urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Aseguru pribatuen antolamendu eta ikuskapenari buruzko Legearen testu bateginaren 86. artikuluan 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera izendaturiko ordezkariak, aipaturako testu bateginaren 82. artikuluan ezarritakoez gain, hurrengo zerga betebeharrak bete beharko ditu, zerbitzuak aske emateko araubideari loturik diharduen aseguru entitatearen izenean.

a) Atxikipena egin eta diru hori sartu edo konturako sarrera egin Nafarroako Ogasunean, Espainian egiten diren eragiketak direla eta, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arauak ezarritako moduan edo Pertsona fisikoen errentaren edo Sozietateen gaineko zergak arautzen dituzten Nafarroako arauetan ezarritako moduan, eta hori, betiere, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako esparruan.

b) Foru Komunitateko Zerga administrazioari informazioa eman, Espainian egiten diren eragiketak direla eta, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arauak ezarritakoarekin bat edo Pertsona fisikoen errentaren edo Sozietateen gaineko zergak arautzen dituzten Nafarroako arauetan ezarritakoarekin bat, eta hori, betiere, aurreko letran ezarritako muga berekin.

2. Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen zerga betebeharrak bete beharko ditu, halaber, Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 55. artikuluan 7. idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz izendaturiko ordezkariak, zerbitzuak aske emateko araubideari loturik diharduen kudeatzailearen izenean.

Hemezortzigarrena. Egoitza Europar Batasuneko kide den beste estatu batean duten pentsio funtsen zerga arloko betebeharrak.

Egoitza Europar Batasuneko kide den beste estatu batean duten pentsio funtsen izendaturiko ordezkariak Espainian enpleguko pentsio planak gauzatzen badituzte, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Enpleguko pentsio funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruz 2003ko ekainaren 3an eman zuten 2003/41/EE Zuzentarauan xedaturikoarekin bat, atxikipena egin eta haren zenbatekoa ordaindu beharko dute eta, behar izanez gero, konturako sarrerak ere egin beharko dituzte, Espainian egiten diren eragiketei dagokienez. Gainera, irailaren 30eko 1307/1988 Errege Dekretuaren bidez onetsirik Pentsio plan eta funtsen Araudian pentsio funtsak kudeatzen dituzten entitateetarako aipatzen den zerga arloko informazioa eman beharko dute, hori dena Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak izenpeturiko Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan.

Hemeretzigarrena. Konturako atxikipenak edo sarrerak jaulkipen primaren banaketan edo ekarpenen itzulketarekin egindako kapital murriztapenetan.

2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, akzioen edo partaidetzen jaulkipen primaren banaketatik edo ekarpenen itzulketarekin egindako kapital murriztapenetik datorren etekina ez da Per-

tsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipen edo sarreraren pean egongo. Kasu horietan konturako atxikipen edo sarrerak egiteko beharra ezarri ahalko da erregelamendu bidez.

Hogeigarrena. Zerga konpentsazioak, banakako bizi-aseguruetatik edo baliaezintasun-aseguruetatik sortutako etekin batzuen kasuan.

1. Xedapen honetan araututako kenketa eskubidea izango dute zerga oinarriaren aurrezkiaren zati berezian kapital geroratu gisa egindako eskurapenetatik sortutako etekinak -foru lege honen 30.1.a) artikulua aipatzen dituenak- sartzen dituzten subjektu pasiboek, baldin eta 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen kontrataturiko bizi-aseguruetatik edo baliaezintasun-aseguruetatik sortuak badira eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 32.2 artikuluan ezarritako %40ko edo 75eko kenketa portzentajeak aplikatzekoak bazaizkie, 2006ko abenduaren 31n indarrean zegoen idazketaren arabera.

2. Kenkari horren zenbatekoa honako diferentzia positibo hau izango da: aurreko idatz-zatian ezarritako etekin garbieraren zenbateko osoa batu eta konpentsatuetatik sortzen den saldo positiboari %15eko karga-tasa aplikatuetatik sortzen den kopuruaren eta aurreko idatz-zatiaren portzentajeak aplikatuta etekin horiek likidazio oinarri orokorrean sartu izanez gero egokituko litzatekeen kuota osoaren zenbateko teorikoaren arteko diferentzia.

3. Aurreko idatz-zatiak aipatzen duen kuota osoaren zenbateko teorikoa honako hau izango da:

a) Aurreko 1. idatz-zatiak aipatzen dituen etekinak bateratu eta konpentsatuetatik sortzen den saldo zero edo negatiboa bada, 2006ko abenduaren 31n indarrean zegoen idazketaren arabera Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 32.2 artikuluan eta bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako kenketa portzentajeak aplikatuta, kuota osoaren zenbateko teorikoa zero izango da.

b) Aurreko a) letran deskribatutako saldoa positiboa bada, 2006ko abenduaren 31n indarrean zegoen idazketaren arabera Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 32.2 artikuluan eta bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako kenketa portzentajeak aplikatuta, kuota osoaren zenbateko teorikoa honako hau izango da: likidazio oinarri orokorraren eta saldo positibo horren baturari foru lege honen 59.1 artikuluan ezarritako eskala aplikatuetatik sortzen den emaitzaren eta eskala hori

likidazio oinarri orokorrari aplikatuz sortzen den kuotaren arteko diferentzia positiboa.

4. Aurreko 3. idatz-zatiak aipatzen duen saldoa zehazteko, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen (2006ko abenduaren 31n zuen idazketaren arabera) 32.2 artikuluan ezarritako murriztapenak aplikatuko zaizkio soil-soilik 2006ko abenduaren 31ra arte ordaindutako primei dagokien etekin garbiaren zatiari, eta ondorengoei aseguru kontratuaren jatorrizko polizan ezarritako prima arruntak badira.

Kapital geroratuko aseguru kontratuaren prima bakoitzak lortutako etekin osoaren zatia zehazteko, etekin osoa honako zatiduratik sortzen den ponderazio koefizienteaz biderkatuko da:

Zatigaiian honako emaitza hau: prima bider ordaindu zenetik eskurapena kobratu arte igarotako urteen kopurua.

Zatitzailean honako emaitza hau: prima bakoitz bider ordaindu zenetik eskurapena kobratu arte igarotako urteen kopurua.

5. Aseguru entitateak adieraziko dio subjektu pasiboari bizi-aseguruetatik edo baliaezintasun-aseguruetatik datozen kapital geroratu gisa egindako eskurapenetatik sortutako etekin garbieraren zenbatekoan zein den prima bakoitzari dagokiona, aurreko idatz-zatian ezarritakoaren arabera kalkulaturik eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 32.2 artikuluan eta bosgarren xedapen iragankorrean ezarritako murriztapen portzentajeak aplikaturik, 2006ko abenduaren 31n indarrean zegoen idazketaren arabera.

6. Horrela kalkulaturiko kenketaren zenbatekoa foru lege honen 67. artikulua aipatzen duen nazioarteko ezarpen bikoitzagatik kenketa egin eta gero kenduko zaio zergaren kuota likidoari.

Hogeita batgarrena. Hartzaileak inbertsioaren arriskua hartzen duen bizi-aseguruaren kontratu jakin batzuen zerga-ordainketa.

Hartzaileak arriskua hartzen duen, 2000ko urtarrilaren 1a baino lehen egin diren eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 32.3 artikuluan -2000ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen idazketaren arabera- ezarritakora moldatu ez diren bizi-aseguruaren kontratuek zergak ordainduko dituzte, foru lege honen 78.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hogeita bigarrena. Zenbait bizi-aseguru aurrezki sistematikoko banakako plan bihurtzearen zerga ondorioak.

Bizi-aseguruaren kontratuak estatuko araudiari jarraikiz aurrezki sistematikoko banakako plan bihurtuz gero, foru lege honen 7.u) eta 30.1.g) artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

Behin aurrezki sistematikoko banakako plan bihurtuta, foru lege honen 7. artikulua u) letran ezarritakoa aplikatzeagatik salbuetsita egon den errenta itzuli beharko du subjektu pasiboak aurrerakina gertatzen den zergaldian, baldin eta eratu den biziarteko errentatik sortu diren eskubide ekonomikoak, osorik edo hein batean, jaso baditu aldez aurretik.

Hogeita hirugarrena. Gizarte aurreikuspeneko sistemen arteko eskubide ekonomikoaren mobilizazioa.

Erregulazio berezirik izan ezean, Foru Komunitatean araubide arrunteko lurralderako indarrean dagoen araudia aplikatuko zaie gizarte aurreikuspeneko sistemen arteko eskubide ekonomikoaren mobilizazioaren zerga arloko ondorioei, haien zerga tratamenduaren homogeneotasuna eta ezaugarri juridiko, tekniko eta finantzarioak kontuan hartuz.

Hogeita laugarrena. Kapital murriztapenaren ostean negoziatziora onartu ez diren partaidetzak edo balioak eskualdatzea.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Finantza baliabideen merkatuei buruzko 2004ko apirilaren 21eko 2004/93/EE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetakoren batean negoziatziora onartu ez diren balio edo partaidetzak eskualdatu baino lehen, subjektu pasiboaren balio edo partaidetza guztiei era berean eragiten ez dien balio nominalaren murrizketa-

ren bitartez kapital murriztapena egiten bada, III. tituluaren II. kapituluaren 4. atalean ezarritako arauak aplikatuko dira, ondoko zehaztapenak kontuan izanik:

a) Eskualdaketa baliotzat joko da foru lege honen 39. artikulua 4. idatz-zatiaren a) letran ezarritakoa aplikatzeak datorren balio nominalaren arabera legokiokeena.

b) Subjektu pasiboak ez baditu bere balio eta partaidetza guztiak eskualdatu, efektiboki eskualdatu dituen balio edo partaidetzen balio nominalari dagokion eskualdaketa balioaren eta aurreko letran aipatzen den eskualdaketa balioaren arteko diferentzia positiboa gainerako balio edo partaidetza homogeneoen erosketa baliotik murriztuko da, harik eta ezabatu arte. Eragiketa horretatik atera daitekeen soberakinari ondare gehikuntzari dagokion zerga ezarriko zaio.

Hogeita bosgarrena. Ondare pertsonala osatzen duten ondasunez baliatzea zahartzaroak eta mendekotasunak eragindako premia ekonomikoei aurre egiteko.

Ez dira errenta gisa hartuko 65 urtetik gorako pertsonen ohiko etxebizitzaz baliatzearen ondorioz jasotako zenbatekoak, ez eta Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua arabera mendekotasun larria edo mendekotasun handia duten pertsonen jasotakoak ere, betiere zahartzaroak eta mendekotasunak eragindako premia ekonomikoei aurre egiteko ondare pertsonala osatzen duten ondasunez baliatzeko egintzei buruzko arau finantzarioen arabera jokatzeko bada.

Hogeita seigarrena. Lanaren etekinen gaineko atxikipen portzentajeak.

1. Atxikipen portzentajeen taula orokorra.

URTEKO ETEKINA	SEME-ALABEN ETA BESTE ONDORENGO BATZUEN KOPURUA										
	SEME-ALABARIK GABE	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10 edo GEHIAGO
10.000 baino gehiago	2,00	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
11.250 baino gehiago	4,00	2,00	-	-	-	-	-	-	-	-	-
12.750 baino gehiago	6,00	4,00	2,00	-	-	-	-	-	-	-	-
14.250 baino gehiago	8,00	6,00	4,00	2,00	-	-	-	-	-	-	-
16.750 baino gehiago	10,00	8,00	6,00	4,00	1,00	-	-	-	-	-	-
19.750 baino gehiago	12,00	11,00	9,50	8,00	6,00	4,00	-	-	-	-	-
23.250 baino gehiago	13,50	12,00	11,50	9,00	8,00	6,00	4,00	-	-	-	-
25.750 baino gehiago	14,50	13,00	12,50	10,00	9,50	8,00	6,00	4,00	1,00	-	-
28.250 baino gehiago	15,50	14,00	13,50	12,00	10,50	9,00	8,00	6,00	4,00	1,00	-
32.250 baino gehiago	16,50	15,00	14,50	13,00	12,50	11,00	10,00	8,00	7,00	5,00	2,00
35.750 baino gehiago	17,50	16,50	16,50	14,00	13,50	13,00	12,00	10,00	9,00	7,00	6,00
41.250 baino gehiago	18,50	17,50	17,50	16,00	15,50	15,00	13,00	12,00	11,00	10,00	9,00
48.000 baino gehiago	20,50	20,50	20,00	18,00	17,50	17,00	16,00	15,00	14,00	13,00	12,00
55.000 baino gehiago	23,00	22,50	22,00	20,50	20,50	20,00	19,00	18,00	17,00	16,00	14,50
62.000 baino gehiago	25,00	24,50	23,50	23,50	22,50	22,00	21,00	20,50	19,00	18,00	16,50
69.250 baino gehiago	27,00	26,50	26,00	25,50	24,00	24,00	23,50	22,00	21,00	19,50	18,50
75.250 baino gehiago	28,00	28,00	27,00	26,00	26,00	25,00	25,00	23,50	22,50	21,50	20,50
82.250 baino gehiago	29,00	29,00	29,00	28,00	28,00	27,00	26,50	25,50	24,50	23,50	23,00
94.750 baino gehiago	30,00	30,00	30,00	29,00	29,00	29,00	28,00	27,50	26,50	25,50	24,50
107.250 baino gehiago	32,00	32,00	32,00	31,00	30,50	30,00	29,50	28,50	28,00	27,00	26,00
120.000 baino gehiago	33,00	33,00	32,50	32,00	31,50	31,00	30,50	29,50	29,00	28,00	27,50
132.750 baino gehiago	33,50	33,50	33,00	32,50	32,00	31,50	31,00	30,50	30,00	29,00	28,50
146.000 baino gehiago	34,00	34,00	34,00	33,50	33,00	32,50	32,00	31,50	31,00	30,50	30,00

2. Atxikipen portzentajeak, jardunean dauden eta ezgaitasuna duten langileen kasuan.

Jardunean dauden eta ezgaitasuna duten langileei aurreko 1. idatz-zatian ezarritako taulan dagokien atxikipena egingo zaie, baina ondoko eskalan ageri diren puntuak murriztuta:

URTEKO ETEKINAREN ZENBATEKOA (EUROTAN)		ELBARRITASUN MAILA	
HONAKOTIK	HONAKORA	HONEN BERDINA EDO HAUXE BAINO HANDIAGO %33	HONEN BERDINA EDO HAUXE BAINO HANDIAGO %65
10.000,01	23.250,00	5	15
23.250,01	41.250,00	3	15
41.250,01	94.750,00	2	8
94.750,01	Honakotik gora	2	5

Eskala horretan agertzen diren murrizketak aplikatzearen ondorioz, ezin izango da zerotik beherako portzentajerik atera.

3. Atxikipen portzentajea, langabeziagatiko prestazioen kasuan.

Langabeziagatiko prestazioen kasuan, entitate kudeatzaile batek onetsitakoak betiere, atxikipen-tan honako portzentaje hauek aplikatuko dira:

URTEKO ETEKINA (EUROTAN)	PORTZENTAJEA
10.000,00 baino gehiago	2
11.250,00 baino gehiago	4
12.750,00 baino gehiago	6
14.250,00 baino gehiago	8

4. Portzentaje horiek erregelamendu bidez aldatu ahalko dira.

Hogeita zazpigarrena. Atxikipenak eta konturako sarrerak.

1. Foru lege honen 28. artikulua a) eta b) letretan aipatzen diren etekinen kasuan, kontraprestazio osoak eratuko du atxikipenaren oinarria, eta ondore horietarako ez da kontuan hartuko foru lege honen 7. artikulua v) letran ezarritako salbuespena.

2. Inbertsio kolektiboko erakundeek akzio eta partaidetzen eskualdaketetan eta itzulketetan ez

da atxikipena aplikatuko, foru lege honen 52.1.a) artikuluan ezarritakoari jarraikiz ondare gehikuntza konputatzea bidezkoa ez denean.

Xedapen iragankorrak

Lehenengoa. Paradisu fiskal gisa sailkaturiko herrialde edo lurraldeetan eraturako inbertsio kolektiboko erakundeen zerga balioa.

1. Foru lege honen 52. artikulua aipatzen duen likidazio balioaren soberakina kalkulatzeko ondoretarako, erosketa baliozat joko da Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen aplikazioa jaso behar duen zergaldiko lehenengo eguneko likidazio balioa, subjektu pasiboak zergaldi horretan dituen partaidetza eta akzioei dagokienez. Balio horren eta benetako erosketa balioaren arteko aldea ez da erosketa baliozat joko, akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketatik datozen errentak zehazteko ondoretarako.

2. Inbertsio kolektiboko erakundeek banatzen dituzten eta Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea indarrean jarri aurretik eskuratutako mozkinetatik datozen dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak bazkideen edo horien partaideen zerga oinarrian sartuko dira. Horretarako, banatutako lehenengo erreserbek irabazitako lehenengo mozkinak jaso dituztela ulertuko da.

Bigarrena. Gizarte aurreikuspeneko mutualitatei aplikatu ahal zaien araubide iragankorra.

1. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin itundutako aseguru kontratuetatik datozen prestazioak direla-eta egindako ekarpenak edo haietako batzuk Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Lege hau indarrean jarri baino lehenagokoak badira eta murriztu badute dagozkien zergaldietako zerga oinarria, zergaren zerga oinarrian sartu beharko dira lanaren etekin kontzeptupean.

2. Horiek sartuko dira, jasotako kopurua une bakoitzean indarrean dagoen legediaren arabera zergaren zerga oinarrian murriztu edo gutxitu ezin izan diren eta mutualitateari egin zaizkien ekarpenak baino handiagoa den neurrian eta, horren ondorioz, aurretik zergak ordaindu dituzte.

3. Zerga oinarrian murriztu edo gutxitu ezin izan diren ekarpenen zenbatekoa egiaztatu ezin bada, erretiro eta baliaezintasunagatik jasotako prestazioen %75 sartuko da.

Hirugarrena. Konpentsatu zain dauden kontusailak.

1. 2007ko urtarrilaren 1ean konpentsatu zain dauden eta 2003, 2004, 2005 eta 2006ko zergaldiei dagozkien ondare murrizketak, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 53.b) eta 54. artikuluetan aipatzen direnak (2006ko abenduaren 31n indarra duen idazketaren arabera), foru lege honen 54.1.b) artikuluan aipatutako ondare gehikuntzen eta murrizketen saldo positiboarekin konpentsatuko dira soilik.

2. 2003, 2004, 2005 eta 2006ko zergaldiei dagozkien likidazio oinarri orokor negatiboak, 2007ko urtarrilaren 1ean konpentsatu zain badaude, foru lege honen 55. artikuluan ezarritako likidazio oinarri orokorraren saldo positiboarekin konpentsatuko dira bakarrik.

3. Dibidenduen ezarpen bikoitzagatiko kenkariari dagozkion zenbatekoak, 2003, 2004, 2005 eta 2006ko zergaldiei dagozkienak eta 2007ko urtarrilaren 1ean konpentsatu zain daudenak, foru legearen 61. artikuluan aipatutako kuota likidotik kenduko dira, 2006ko abenduaren 31n geratzen zaion epean, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 62.6 artikuluan azken lerrokadan ezarritakoarekin bat, egun horretan indarra zuen idazketaren arabera.

Laugarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea indarrean jarri aurretik ondare gehi-

kuntzak edo murrizketak eragiten dituzten biziaseguruen kontratuen araubide iragankorra.

Kapital geroratu bat jasotzen denean, foru lege honen 30.1.a) artikuluari jarraikiz kalkulaturako etekin garbi osoaren zatia, 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako primei badagokie eta 2006ko abenduaren 31 baino lehen sortu bada, %14,28 murriztuko da urte bakoitzeko, gora biribilduta, prima ordaintzen denetik 1994ko abenduaren 31ra bitartean.

Bosgarrena. Biziarteko eta aldi baterako errentei aplikatu ahal zaien araubide iragankorra.

1. Higigarrien kapitalaren etekintzat jotzen diren biziarteko eta aldi baterako errenten -berehalakoen edo geroratuen- zatia zehazteko, zilegi izango da foru lege honen 30. artikuluen 1. idatz-zatiaren b) eta c) letretan ezarritako portzentajeak aplikatzea 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera jasotzen diren errenta gisako prestazioei, errenta horiek 1999ko urtarrilaren 1aren eta 2006ko abenduaren 31ren bitartean eratu badira.

Portzentaje horiek aplikatu ahalko dira errentadunak (biziarteko errenten kasuan) urteko kopuru bakoitza jasotzen duenean daukan adinaren arabera, edo, aldi baterako errenten kasuan, errentaren iraupen osoaren arabera.

2. Foru lege hau indarrean jarri aurretik eratu diren biziarteko eta aldi baterako errenten erreskatera jotzen bada, erreskatearen ondoriozko higigarrien kapitalaren etekina kalkulatzeko, errenta eratu zeneko egunera arte lortutako errentagarritasuna kenduko da.

3. Higigarrien kapitalaren etekintzat jo behar diren biziarteko eta aldi baterako errenten -berehalakoen edo geroratuen- zatia zehazteko, zilegi izango da foru lege honen 30.1 artikuluen b) eta c) letretan ezarritako portzentajeak aplikatzea 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera jasotzen diren errenta gisako prestazioei, errenta horiek 1999ko urtarrilaren 1aren eta 2006ko abenduaren 31ren bitartean eratu badira.

Portzentaje horiek aplikatu ahalko dira errentadunak (biziarteko errenten kasuan) urteko kopuru bakoitza jasotzen duenean daukan adinaren arabera, edo, aldi baterako errenten kasuan, errentaren iraupen osoaren arabera.

Bidezkoa denean, foru lege honen 30.1.d) artikulua aipatutako errenta eratzen den egunera arte lortutako errentagarritasuna gehituko da.

Seigarrena. Landalur birkalifikatuen ondare gehikuntzak.

Landalurren edo horien gaineko eskubideen eskualdaketak izanez gero, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, hirigintza arloko arauekin bat, lurzoru urbanizagarritzat edo hiri lurzorutzat jo badira edo, betiere, hirigintza arloko edozein aprobetxamendu beretu badute, zazpigarren xedapen iragankorraren 2. idatz-zatian aipatzen diren murriztapenak eresketa balioaren eta, landalurrea den aldetik, hirigintzaren arloko edozein aprobetxamenduren ondoriozko balioa aintzakotzat hartu gabe saltzeko momentuan izango zukeen balioaren arteko aldearen adinako ondare gehikuntzari aplikatuko zaizkio bakarrik. Balio hori Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 44. artikuluan xedaturikoarekin bat zehaztuko da.

Aurreko lerrokadan xedaturikoa, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, landalurreak edo horien gaineko eskubideak eskualdatzean ere izango da aplikatzekoa eta, eskualdatzen direnetik hiru urte pasatu baino lehen, hiri lurzorutzat edo lurzoru urbanizagarritzat jotzen direnean edo hirigintzaren arloko edozein aprobetxamendu beretu dutenean.

Xedapen iragankor honetan xedatutakoa zazpigarren xedapen iragankorrean xedatutakoari jarraikiz aplikatuko da.

Zazpigarrena. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako elementuen ondoriozko ondare gehikuntzak.

1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ondare elementuak eskualdatzearen ondorioz izan diren ondare gehikuntzak, lanbide edo enpresa jardueri lotuta egon ala ez, eta eskubide eta ondasun ez-materialen ondoriozkoak salbu, hone-lakalkulatuko dira:

1. Elementu bakoitzerako zehaztuko dira, eta foru lege honen III. tituluaren II. kapituluaren 4. atalean ezarritakoari jarraikiz. Hala kalkulatutako gehikuntzan 2006ko abenduaren 31 baino lehen sortutako zatia bereiziko da, eta halakotzat joko da eresketa egunetik 2006ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) igarotako egunen kopuruari proportzioz dagokion ondare gehikuntzaren zatia, betiere elementua subjektu pasiboaren ondarean egon den egun guztien kopuruarekin alderatuta.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren arabera 2006ko abenduaren 31 baino lehen sortutako ondare gehikuntzaren zatia honela murriztuko da:

a) Elementua erosten den egunetik 1996ko abenduaren 31ra bitarteko urteen kopurua (gora biribilduta) hartuko da subjektu pasiboaren ondarean izan duen iraupen alditzat.

Harpidetza eskubideen kasuan, iraupen aldia izango da sorburu dituzten balioei dagokiena.

Eskualdatutako ondare elementuetan inbertsioak edo hobekuntzak egin badira, egin diren egunetik 1996ko abenduaren 31ra bitarteko urteen kopurua (gora biribilduta) hartuko da horiek subjektu pasiboaren ondarean izandako iraupen alditzat.

b) Sozietate nahiz erakundeen funts berekieta-ko partaidetzaren erakusgarri diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan, finantza baliabideen merkatuari buruzkoan, definitu diren bigarren mailako balore-merkatu ofizialetakoren batean negoziatorako onarturiko akzioei dagokienez, ondasun higigarri eta higiezinaren inbertsiorako sozietateen kapital sozialaren erakusgarri diren akzioak izan ezik, ondare gehikuntza %25 murriztuko da iraupen urte bakoitzeko, lehen bi iraupen urteak kenduta.

c) Aurreko b) letran xedatutakoa galarazi gabe eta ondasun higiezinak, horien gaineko eskubideak edo Baloreen merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 108. artikuluan ageri diren entitateen balioak direnean, ondasun higiezinaren inbertsiorako sozietateen edo funtsen kapital sozial edo ondarearen erakusgarri diren akzioak edo partaidetzak izan ezik, ondare gehikuntza %11,11 murriztuko da iraupen urte bakoitzeko, lehen bi iraupen urteak kenduta.

d) Gainerako ondare gehikuntzak, 2006ko abenduaren 31 baino lehen sortuak, %14,28 murriztuko dira iraupen urte bakoitzeko, lehen bi iraupen urteak kenduta.

e) Ez dira zergari lotuta egongo 2006ko abenduaren 31 baino lehen izaten diren ondare gehikuntzak, baldin eta 1996ko abenduaren 31n, aurreko b), c) eta d) letretan adierazitakoaren arabera, hurrenez hurren bost, hamar edo zortzi urteko iraupen aldia duten ondare elementuen ondoriozkoak badira.

3. Araututako merkatuetakoren batean negoziatorako onartutako balioen eta inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzen kasuetan, foru lege honen 43. artikuluan 1. idatz-zatiaren a) eta c) letretako araubidea aplikagarri badute, foru lege honen III. tituluaren II. kapituluaren 4. atalean ezarritakoari jarraikiz kalkulatuko dira, balio, akzio edo partaidetza bakoitzerako, ondare gehikuntza eta murrizketak.

Baldin eta, aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondorioz, ondare gehikuntza bat izaten bada,

honako murriztapen hauen artean bidezkoa dena aplikatuko da:

a) Eskualdaketa balioa 2006ko Ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako balioei, akzioei edo partaidetzei dagokien balioa bezalako edo handiagoa izanez gero, 2006ko abenduaren 31 baino lehen sortutako ondare gehikuntzaren zatia murriztu egingo da, aurreko 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera. Ondorio horietarako, 2006ko abenduaren 31 baino lehen sortutako ondare gehikuntza 2006ko Ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako balioei, akzioei edo partaidetzei dagokien balioa eresketa baliotzat jotzearen ondorioz sortzen den gehikuntzaren zatia izango da.

b) Eskualdaketa balioa 2006ko Ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako balioei, akzioei edo partaidetzei dagokien balioa baino txikiagoa izanez gero, ondare gehikuntza osoa 2006ko abenduaren 31 baino lehen izan dela ulertuko da, eta aurreko 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera murriztuko da.

4. Eskualdatutako ondare elementuetan inbertsioak edo hobekuntzak egin badira, osagai bakoitzari dagokion besterentze balioaren zatia bereziko da, aurreko 2. idatz-zatian xedatutako aplikatzearen ondoreetarako.

5. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako eta lanbide edo enpresa jardueri atxikitako eskubide eta ondasun ez-materialen eskualdatzearen ondoriozko ondare gehikuntzak kalkulatzeko, aurreko idatz-zatietan ezarritakoari jarraituko zaio, baldin eta eskualdaketa ezintasun iraunkorraren edo erretiroaren ondorioz gertatu bada.

Zortzigarrena. Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatiko kenkaria.

Foru lege honen 62. artikulua 1. idatz-zatien c) letrak aipaturiko muga aplikatzeko, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea indarrean sartu aurretik erositako edo zaharberitutako ohiko etxebizitzari dagozkion eta une hori baino lehen aplikatu diren kenketen zerga oinarriak ez dira zenbatuko.

Aurreko idatz-zatian ezarritako ondoreetarako, honako hauek ulertuko dira:

a) Etxebizitza Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea indarrean sartu aurretik erosi da, egun horren aurretik erositako ohiko etxebizitza erosteagatik zerga pizgarrien araubidea aplikatzeko eskubidea sortu denean, etxebizitza kontuan sartutako kopuruengatiko kenkariak, aipaturiko egunean osorik aplikatu ez direnak, izan ezik.

b) Etxebizitza Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea indarrean sartu aurretik zaharberritu da, zaharberrikuntza babestuko behin-behineko kalifikazioa edo entitate eskudunak emandako egiaztagiria egun horren aurretik eman direnean.

Bederatzigarrena. Kaleratzeagatiko kalteordaina.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea indarrean sartu aurretik gertatutako langilea kaleratu edo lana uzteagatik ematen diren eta egun horren ondoren jaso diren kalte-ordainei zergaren salbuespena aplika dakieke, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 10. artikuluan ezarri bezala.

Hamargarrena. Zor publikoko balio batzuen zerga-ordainketa.

Zor publikoko balioen eskualdaketa, amortizazio edo itzulketaren ondoriozko etekinak (1999ko urtarrilaren 1etik aurrera eginak, 1997ko abenduaren 31 baino lehen eskuratuak, eta lehenago ondare gehikuntzak sortu zituztenak) zerga oinarriaren aurrezkiaren zati berezian sartuko dira, eta ezin izango dira foru lege honen 32. artikuluan ezarritako murriztapenak aplikatu.

Hamaikagarrena. Sozietate gardenak eta ondare sozietateak. Horiek desegin eta likidatzea.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak dagokienez, hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko da, horiek indarrean dauden bitartean:

a) Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehenengo eta bigarren xedapen iragankorrak, sozietate gardenak desegin eta likidatzeari buruzkoak.

b) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hogeita seigarren xedapen iragankorra, ondare sozietateen araubide iragankorrari eta araubide orokorraren araberrako haien zerga-ordainketari buruzkoa.

c) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hogeita zazpigarren xedapen iragankorra, ondare sozietateak desegin eta likidatzearen zerga ondorioei buruzkoa.

Hamabigarrena. Zenbait finantza-eragiketaren mozkinak buruzko araubide iragankorra.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboari dagokienez, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hamabigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa aplikatuko da, indarrean dagoen bitartean. Hori 1979ko urtarrilaren 1ean zerga horretan finantzaketa eta birfinantzaketa eragikete-

tarako ordainpeko autobideen sozietate esleipendunek aitortuta dituzten mozkinak eusteari buruzkoa da, bere berariazko legediaren, Foru Diputazioaren 1978ko abenduaren 28ko erabakiaren hirugarren xedapen iragankorraren 2. idatz-zatian ezarritakoaren eta hori garatzen duten arauen arabera.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	47,00 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,25 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,40 »